

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-09-25
EGUBAKOITZA
653. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

'Amama' filma:
epaimahaiaren
zain, nahiz eta
sari bat jaso duen
dagoeneko | 22

Kataluniako eta
Euskal Herriko
prozesuak,
Debagoienetik
begiratuta | 3



SANMIGELAK DIRA OÑATIN ETA ARETXABALETAN
Jaien gaineko gehigarriak barruan



Antzuolako haur eskolak urriaren
2an ospatuko ditu hamar urteak | 8



Gaixoak eta ikasleak elkarrekin bizi izaten

San Juan de Dios Ospitaleko hainbat gaixok eta Arizmendi Ikastolako talde batek esperientzia pilotu batean parte hartu dute | 2

Ekimenean parte hartu dutenek batzarra izan zuten martitzenean ospitalean.

JAGOBA DOMINGO

SINADURAK

	BEÑARDO KORTABARRÍA 6
	6 UBANE MADERA
	ANE GOROSABEL 10
	12 ALAZNE GURIDI
	ANDER BOLIBAR 14
	15 JOSU ZALDÑA
	ANDER ETXEBERRIA 32

Hondakinak batzeko hiru aukera Eskoriatzan

Atez atekoa, 5. edukiontzia edo sistema mistoa nahi duten galdetuko diete | 16

ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Ane Irazabal kazetari arrasatearrari elkarriketa
- Kirol-arloko lanbideak erregulatzeko legea aztergai

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

EROSKI
ARRASATE

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

Maika Carmona
Informazioko langilea
Lan-bazkidea

Ongi etorri, Arrasate hipermerkatu berrira

20% sagarretan, udare eta mahats freskotan

Bazkideentzat soilik **-eko DESKONTUA***

*Zure txartelean itzuliko dizugu, hurrengo erosketan erabiltzeko. Eskaintza baliagarria 2015eko irailaren 27ra arte.

Elkarrengandik ikasiz gaixoeak eta gazteak

- ▶ Arespalditzan elkarbizitza egin dute gaixo mental eta ikasle talde batek
- ▶ San Juan de Dios ospitaleak eta Arizmendik egindako proiektua da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE
Arrasateko San Juan de Dios ospitaleak, Arizmendi ikastolarekin batera, elkarbizitza esperientzia pilotu aitzindaria egin du, Respal-diza proiektua izenekoa. Lau egu-

nez, gaixotasun mental larria duten 15 paziente eta Arizmendiko Almen guneko bederatzi ikasle elkarrekin bizi izan dira Arabako Arespalditza herrian. Modu horretan, praktikan jarri nahi izan dute urriaren

10eko Nazioarteko Osasun Mentalaren egunaren leloa: *Jar zaitez nire lekuan. Konektatu nirekin.* Eguaztenean batzarra egin zuten parte-hartzaileek, San Juan de Diosko kideek eta gainerako gaixoeak eta ikasleen gurasoek, eta ondorioen berri eman zuten. Laburbilduz, hau da ondorio nagusia: elkarbizitzak erabat aldatu ditu elkarrenganako zituzten aurreiritziak.

Esperientzia hori ikertzen dabil, gainera, Madrilgo Rey Juan Carlos I Unibertsitateko ikertzaile Domingo Palacios, eta hura ere Arespalditzan izan da, baina ez esperientzian parte hartzen, ikusle soil gisa baizik.

Aurreiritziak gainditu dituzte
Pazienteei hutsetik hasteko aukera eskainiko zien espazio bat nahi zuten proiektuaren ardura-dunek.

Hainbat ariketa egin dituzte elkarrekin gaixoeak eta gazteak. Besteak beste, eguneroko bizi-



Maria Jara. | J.D.



Ana Amenabar. | J.D.



Jorge Juan Martin. | J.D.



Sara Agiriano. | J.D.

tzarako ezinbestekoa den antolaketa gaitasuna landu dute, lau egunetarako menua eta haren aurrekontua prestatuz. Horrez gain, gaitasun sozialak eta ohitura osasuntsuak ere landu dituzte. Eguneroko ohiko ekintzak ere konpartitu dituzte; horrela, bategatik, gaixotasun mentala dutenek ikusi ahal izan dute egonaldi luzeko unitate baten ingratuta egotetik haragoko bizimoduak eskain dezakeena; bestetik, gazteen sentsibilizazioaren bidez, etorkizunean, gaixotasun mentala dutenek gizartean duten iru-

di negatiboa aldatzeko balio izango dutela esperientziak uste dute sustatzaileek.

Aurreiritziak zituzten gazteak, baina baita gaixoeak ere, eta gehienek zalantzak izan zituzten proiektuari baietza eman aurretik. Honako hau dio Maria Jara ikasleak: "Beldurra nuen eurak nolakoak izango ziren eta nolakoak izango zen gure harremana. Pentsatzen nuen bakartiak eta agresiboak izan zitezkeela". Etxean animatu egin zuten eta esan zioten esperientzia aberasgarria izango zela. Eta hala izan da:

ESANAK

"Ez genuen hara joan nahi, eta gero, ez genuen bueltatu nahi"

JORGE JUAN MARTIN | GAIKOA

"Ez gara hain desberdinak; azken baten, berdinak gara"

ANA AMENABAR | GAIKOA

"Beldurra nuen, baina uste nuen kontrakoa izan da dena"

MARIA JARA | IKASLEA

"Oso ondo pasatu dugu, eta berriz parte hartuko nuke"

SARA AGIRIANO | IKASLEA

elejalde®

COLCHONERÍA

VITORIA - GASTEIZ

Etor zaitez!

Parkeak,
sehaskak,
ume-kotxeak...

Merkatuko marka
nagusienen bermearekin.

UMETXOAREN HAMABOSTALDIA

Urriaren 1etik 21era.

% **15** eko
deskontua lehen marketan.



Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:30 / 16:30-20:00
Zapatuetan: 10:00-13:30 (zapatu arratsaldeetan itxita)

www.colchonerieaelejalde.com



Kupoi hau aurkeztuz gero gure edozein dendatan, opari bat jasoko duzu (Gutxieneko erosketa, 150 euro).

ZURE UMEAK BEHAR DUEN GUZTIA

Domingo Beltran 33
Tel.: 945 242 297

Benito Ginea 1
Tel.: 945 287 667

Panama 7
Tel.: 945 267 314

Florida 43
Tel.: 945 279 085

Donostia 64 (Lakua)
Tel.: 945 179 912

"Uste nuen kontrakoa izan da. Ez gaude hain urruti eurengandik. Lehen, kalean ikusiz gero, beharbada errepidea gurutzatuko nuen, saihestu egingo nituzkeen; baina orain, ez".

Beste ikasle batek, Sara Agirianok, aldiz, "hasieratik argi" izan zuen parte hartu nahi zuela: "Gizarteak beti alderatu egin izan ditu. Guk oso ondo pasatu dugu, eta asko gustatuko litzaidake horrelako beste esperientzia bat izatea".

Parte hartu duen Jorge Juan Martin pazientek dio hasieran ez zutela joan nahi, baina gero ez zutela bueltatu nahi, hain ondo ibili direnez, eta esperientziak "indar handiagoa" eman diola aurrera jarraitzeko. Beste gaixo batek, Ana Amenabarrek, dio "oso polita" izan dela esperientzia: "Ez gara hain diferenteak; berdinak gara, azkenean", dio.

DOMINGO PALACIOS IKERTZAILEA

"Gaixoeke babesten zituzten gazteak, ez alderantziz"

Rey Juan Carlos I Unibertsitateko Domingo Palaciosen Respalidiza proiektua ikertuko du.



GOIENA

Zein izan da zure esperientzia?

Lekuko soila izan naiz, baina ezinezkoa da ez ikastea, gutxieneko sentsibilitate bat baduzu. Espero ez nuen errespetua eta maitasuna ere ikusi ditut euren artean.

Zer aurkitzea espero zenuen?

Aurreiritziak nituen nik ere. Elkarbizitza formala espero nuen; ekintzak bukatutakoak, norbera bere aldetik joatea. Eta ez da hala izan; elkarrekin egon dira, taldea osatu dute, eta gaixoeke zuten gazteak babesteko joera; nik alderantziz izango zela uste nuen.

Zer hunkitu zaitu bereziki?

Gaixo daudela dakiten gaixoeke nola ahalegintzen ziren hobeak izaten, euren onena ematen.

Kataluniako hauteskunderi begirada, eskualdetik

Josemari Velez de Mendizabali eta Naroa Elortzari galdetu diegu



J.M. VELEZ DE MENDIZABAL
IDAZLEA

"Haiengandik asko ikasi beharko genuke, baina ez dakit prest ote gauden ikasteko"

1. "Nahiko eszeptikoa naiz. Izan dezake bere eragina, baina epe laburrean ez. Kataluniak ikasgai bat eman digu. Mekanismo politikoak erabili ditu eta bertako klase politikoa egitura-tuago dago, baita erakundeak ere. Eta egundoko indarra erakutsi du gizarte zibilak. Katalunian hitzez bakarrik ez, baizik eta egitez ere mintzatu da. Gurean idazki edo diskurtso mamitsuak eta eraginkorrak egin beharrean, esloganekin gabilta. Eta esloganekin ezin daiteke ezer egin. Hemen erakundeak ez daude batere egituratuta. Eta bestalde, hemen mintzaten bagara Euskal Herriaz, auskalo zer ulertzen den. Katalunia esaten duzu, eta denok dakigu zer den; Franco garaian ere bagenekien zer zen. Eta lehen hau zen Baskongadak, gero Euskadi, Euskal Herria... Orain Euskal Herria ez dakigu zer den... Irizpide eta diskurtso desberdinak ditugu, erabat".

2. Ez dut paralelismorik ikusten, zoritxarrez. Ez dut uste kataluniarrek erakutsi dutenik erabateko batasunik. Baina bai erakutsi dute elkartasunean motorrak piztu dituztela. Ni batasunen kontrakoa naiz, eta elkartasunen aldekoa. Eurek motorrak piztu dituzte eta gu oraindik formula asmatzen gabilta, eta ez dakit gai izango garen. Bestalde, bada

UBANE MADERA | DEBAGOIENA
Batzuk baietz, beste askok ezetz, ez dagoela batere paralelismorik. Edozein dela pentsamendua ere, asteotan debagoiendar ugari

atentzioa ematen didan gauza bitxi bat: hemen esaten dugu euskarak egiten gaituela euskaldun. Eta ez da kataluniarren kasua. Hau da, pentsatzen genuen katalanismoa egituratzen zela hizkuntzaren inguruan, eta ez da egia. Izan ere, han kataluniar sentitzen ez direnek ere berba egiten dute katalanez. Hemen ez dugu erakutsi euskarak egiten gaituela euskaldun. Daramakigu 40 urte hori esaten, eta ez dugu erakutsi; seguru aski, askatasun kulturalera ez garelako iritsi. Ni ez naiz bizi askatasun kultural euskaldunean. Hor ere herren gaude. Beraz, haiengandik asko ikasi beharko genuke, baina ez dakit prest ote gauden ikasteko. Lehen Franco aipatu dut, eta esaten da Francok beldur handiagoa ziela katalanei euskaldunei baino. Esaten omen zuen: "Utz itzazue euskaldunak, euren artean zatituko dira-eta". Atzera begiratu eginez gero, beti egon dira antzerako banderizoak; lehen, orain eta beti".

3. "Ez dakit emaitza zein izan- go den, ez dakit Espainiarekin eten egingo duten; baina burua goian eta berrindartuta aterako dira. Ez dut zalantzarik. Eta, seguru aski, diru gehiagorekin. Hauek jarraituko dute izaten aberatsak, eta eraginkorrak negozioetan... Garbi dago Kataluniako independentziaren aldekoak garaile atera direla eta ateratzen ari direla. Erakutsi didate gauzak garbi dituztela, nahiz eta hautetsontzietan galdu. Ikasgai handia eman diote munduari, modu baketsuan eta aukerazko mekanismoak emanez".

Katalunian gertatzen dabilenari, domekan gertatuko denari eta ostean gertatu ahal denari begira dabilta. Jakin-min orokorrak eraginda asko, baina beste askok

bat egiten dutelako kataluniarren sentimenduekin. Edozein modutan, Euskal Herrian, epe laburrean gutxi eragingo duela uste dute gehienek.



NAROA ELORTZA
ELA SINDIKATUKO KIDEA

"Independentzia bezain garrantzitsua, estatu ereduari buruz hitz egitea gakoa da"

1. "Bi mailatan bereiziko nuke Kataluniako prozesuak gure herriarengan izan dezakeen eragina. Alde batetik, sinbolikoa, sentimenduekin erlacionatutakoa. Bestetik, politikoa. Uste dut bereziki lehenari eragingo diola, jendartearengan ilusioa piztuko duela. Eta, beharbada, hori da eraginkorra. Uste dut Katalunian gertatu bezala jendartearen mobilizazioak mugiaraziko dituela alderdi politikoak, independentziarekiko gero eta urrunago dauden alderdiak, bereziki. Akaso, independentzia aldarrikatuzera bultzatuko gaitu! [Kar, kar, kar] Edozein modutan, etziko emaitza dena delakoa izanda ere, uste dut erabakitzeke pausoa ematea bera dela garrantzitsua. Baime-nari itxaron gabe, hori egiteko eskubidea hartzea.

2. "Mobilizatzeko gaitasunean ikusten dut, akaso, diferentzia handiena. Autoeratutako mugimendu sozialaren ondorio da egungo Kataluniako egoera. Geurean ilusio eta indar hori berreskuratzeko beharra ikusten dut, "posible da" ozen esateko beharra. Bestalde, hemen bide bera lantzeko aukerari buruz alderdi politikoei begira gelditzen bagara, zaila da. Gehienak ez daude eskema horietan sartzeko prest, egungo testu-guru eta egoeran eroso daudela dirudi. Jendarteari dagokio alderdiak mugiaraztea".

3. "Independentziaren aldeko aldarria izango dela uste dut, juxtu-juxtu akaso, baina baiezkoa. Beldurraren estrategiak ezezko botoak ekarriko dituela uste dut. Eta emaitza aldekoa bada, herriaren hitzari kasu egitea espero dut. Ausardia eta indarra beharko da kate estua eteteko, baina, herriak hala eskatzen badu, aurrera egin beharko lukete. Eta emaitza ez bada independentisten aldekoa, Estatuarekin estatus berriari buruzko negoziazioa hastea – hauteskunderen ondoren – espero dut. Bukatzeko, nahiko nuke esan independentzia bezain garrantzitsua, estatu ereduari buruz hitz egitea gakoa dela. Sarri, erabakitze eskubideari buruz hitz egiten dugu, baina erabakitze eskubidea zerekiko? Erabaki behar dugu ze egitura ekonomiko nahi dugun, zelako sistema neoliberalarekin jarraitu nahi dugu? Ala beste zerbaiteiraiki nahi dugu?".

1. Zelan eragin lezake Kataluniako prozesuak Euskal Herrian? Eta emaitzak?
2. Ikusten duzu paralelismorik hango prozesuaren eta hemengoaren artean? Eta aukerarik hemen, han landu duten bide bera lantzeko?
3. Kataluniari dagokionez, zein da zure kiniela? Emaitza aldekoa bada, zer gertatu beharko litzateke? Eta kontrakoa bada?



Ikusmen nekatua zuzentzeko
Presbizia-kirurgia Quirón Gasteiz Ospitalean
Behin betiko soluzioa

Ospitaleratu gabeko kirurgia · Kalitate handiko lente multifokalak



www.quiron.es

Interes bako finantzaketa. RPS 136/12


Oftalmologoa: Pío García Gómez

Eskatu txanda
945 03 03 77

HOSPITAL
QUIRÓN
Vitoria

Esperanza kalea, 3
Gasteiz 01002
info.vitoria@quiron.es

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

LAURA ALUTIZ

Arrasate / Otalora Lizentziaduna, 18 solairu artea
687 97 69 76

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.


Etxetresnetako eta Edesako 900 lagunen salaketa gertu dago

Laster aurkeztuko dute, eta 47 milioi eta interesak eskatzen dizkiote Mondragoni

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Ordaindu eta Eskuratu elkar-teetako 900 bat lagunek bultzatutako salaketa gertu dago, eta laster aurkeztuko dutela baieztatu du Ordainduko arduradun Mikel Olabek; data zehatza ez dute jakinarazi gura izan, baina konfirmatu du bertan "erantzukizuna" eskatzen diotela Mondragon Korporazioari Fagor Etxetresnen eta Edesaren porrotaz, eta 47 milioi euro eta interesak ordaintzea 900 bazkide ohi horiei.

Olabek itxaropena eta "justiziaren konfiantza" adierazten ditu, izan ere, salaketa "ondo argumentatua eta sendoa" da eta oso abokatu talde onak ordezkaturiko ditu. Gaineratu du honako hau: "Gure ustez, Mondragon Korporazioak erantzukizuna du; Fagor Etxetresnak eta Edesa jausi ziren Mondragoneko zuzendaritzak erabaki zuelako; bideragarritasun plan bat ere bazegoen eta Mondragon Korporazioak egin zuen. Erantzukizun zuzena eta garrantzitsua izan zen euren". Salaketaren bidez, "erantzukizuna euren gain har dezaten" eskatzen dute 900 bazkide ohi horiek.



Mikel Olabe. | ENEKO AZKARATE

Izan ere, "Mondragon ez da lekuko soila izan; berak sortu zuen arazoa eta gero baztertua utzi gaitu".

Kooperatibismo "harroa"

Edozein modutan, 900 salatzaileriek "negoiazioa" eskatzen jarraitzen dute. Baina Korporazioak "ez du nahi izan" eta horregatik justizia administratzailea jotzea erabaki dute bazkide ohiak.

Mikel Olabek dioenez, Fagor Etxetresnen porrotak "zerikusia du kooperatibismoaren jarduerarekin; kooperatibismoa afektiboa da, elkarrizketazalea, pertsonak jartzen ditu kapitalaren aurretik... eta hemen guztiz kontrakoa izan da: baztertzalea, harroa... izan da".

Aizkorri-Aratzeko interesatuen mozioa onartu da hiru herritan

L.K. | OÑATI

Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Interesatu Taldeak Aretxabaletan, Zegaman, Leintz Gatzagan eta Eskoriatzan aurkeztu du parkea kontserbazio bereziko eremu izendatzeko egungo kudeaketa planari buruzko mozioa, eta denetan aho batez onartu du udalbatzak. Atzo, eguena, Oñatin ziren aurkeztekoak. Udalei eskatzen diete Eusko Jaurilaritzari eska diezaizoten honako hau: Kontserbazio Bereziko Gunearen oraingo kudeaketa plana bertan behera utz dezala; eragina duten udalerrie-

tako ordezkariak parte har dezatela erabakiak hartzerakoan; eta Kontserbazio Bereziko Gune izendapena ezartzeak ekar ditzakeen eraginak eta balio-galtzeak baloratzea bermatuko duen plan bat zehaztu dadila.

"Desinformazioa"

Elkarteak honako hau dio: "Ahalik eta ondoen azaldu nahi dugu instituzio publikoek desinformatuta izan gaituztela Kontserbazio Bereziko Gunea izendatzerakoan eta kaltetutako jabe eta erabiltzaileendako kontserbazio-neurriak zehazterakoan".

Euskal presoen sakabanaketaren amaiera eskatzeko elkarretaratzea egingo dute gaur Arrasaten

Gaur, egubakoitza, Espainiako Auzitegi Nazionalak batzarra egingo du euskal presoen ezarritako sakabanaketarekin amai dezan egindako eskaerari erantzuteko. Hamaika euskal presoren eskaerak aztertuko ditu, hain justu ere. Horien artean da Josu Arkauz arrasatearra. Bada, horren harira, Arrasateko Sortuk elkarretaratzea deitu du gaurko, 19:30ean Herriko plazan, "mobilizazio soziala, babes eta presio politiko eta instituzionala indartzeko".

Ana Calvo | Arrasateko Hiper Eroskiko gerentea

"Eroskik Debagoienez 2,5 milioi euro inbertitu ditu eraldaketatan"

► Eskualdean 22 lanpostu berri sortu ditu azken bi urteotan

► Eroski Taldearen helburua da 2016rako sare komertzial osoa eraldatzea

UBANE MADERA | ARRASATE

Arrasateko Eroski hipermerkatuan leku deigarria hartu dute bertako produktuek. Horixe da ikasturte berriaren antzematen den aldaketetako bat. Beste bat da, adibidez, hamahiru lanpostu sortu dituztela. Hipermerkatuko gerente Ana Calvok esan duenez, ohituen garapena kontuan hartu eta eraldaketa gauzatu dute Arrasateko saltokian.

Zelan aldatu dira urteotan kontsumo ohiturak?

Aldaketa handia egon da 25 urte-tik hona; iaz ospatu genituen Arrasateko Eroskiren 25 urteak. Orain inauguratu dugun hipermerkatu honetan irudikatzen dira. Batez ere, plaza itxura eman nahi izan diogu, produktu freskoak nabarmentzen, eta, bereziki, Euskal Herriko produktuak: frutategian, harategian, Eusko Label-dunak... Ikusi dugu, baita ere, norberaren zaintzak -barrukoak zein kanpokoak- geroago eta garrantzi handiagoa hartu duela, bereziki, produktu osasungarriekin lotuta; horregatik sortu dugu guk ere produktu ekologikoen eta dietetikoen gunea. Eta ikusi dugu, baita ere, handitu egin dela, adibidez, alergia, intolerantzia... kopurua. Eta horiei zuzendutako eskaintza ere handitu egin dugu. **Era berean, baina, nazioarteko produktu asko ere ikusten dira...**

Bai; produktu tradizionalakiko lotura handitzeaz batera, gure bezeroek eskatzen zituzten produktu bereziak. Eta hori eta elikadura osasuntsua aintzat hartuta, Eroskin, adibidez, sushia eskaintzen duen gunea sortu dugu. Egunean bertan prestatzen den sushia izaten da. Eta txokolate, kafe, te, infusio, pasta, olio... guneetan ere berrikuntzak egin ditugu, jendearen kontsumo joera berrien arabera, oso modan daudelako halakoak ere. Gauza bera edari-gunean: kasu horretan, adibidez, oso modan daude nazioarteko garagardoak, eta, horrekin batera, ardo eskaintza zabal-zabala duen bodega ere egokitu dugu. **Eta prezioak zelan eraldatu dira?**

Elikadura negozioa deflazioan dago. Oraingo prezioak orain dela bi urtekoak baino merkeagoak dira. Hori asko igartzen da oinarritzko produktuetan: frutategian, harategian... Guk, familiaren ekonomia beharrak kontuan hartuta, iaz Eroski Klub txartela atera genuen, gure bezeroei laguntzeko. Modu horretan, oinarritzko erosketa merkeago atera dakion. Jakina, eskaintza bereziak, BEZik bako egunak... egiten ditugu.

Eroskiri dagokionez, eta taldearen dimentsioari begiratuta, zenbat bazkide ditu -kontsumitzaileak-? 2.300.000. Iaz 2.100.000 bazkide



Ana Calvo, frutategi aurrean, bertako produktuak atzean dituela | UBANE MADERA

"Produktu tradizionalakiko, bertakoekiko lotura handitu egin da"

"Oraingo prezioak orain dela bi urtekoak baino merkeagoak dira"

genituen; orain 2.300.000 ditugu. Oso garapen azkarra izan du txartel horrek Euskadin: azaro hasieran atera genuen eta astebetean 1.000.000 bazkide egin ziren eta bi hilabetean 2.100.000 bazkide. **Eta langileak?** 8.000 lan-bazkide ditu Eroski S. Coop-ek.

Datu gehiago: ze inbertsio egin duzue Arrasateko hipermerkatua berritzen? 1,7 milioi euro.

Lanpostu berririk sortu duzue? Hamahiru lanpostu. Hemen 145 langilek dihardugu, eta ahalegin handia egin dugu, baita ere, bezeroari arreta eta zerbitzu hobea emateko formazio ordu kopurua handitzen: 560 ordu. Baina Eroskiren ideia da 2014-2016an Eroskiren sare komertzial osoa eraldatzea. Hala, Debagoienari dagokionez, eraldatu dira hiru supermerkatu eta hipermerkatu bat. Eta, guztira, izan dira 2,5 milioi euro, 22 lanpostu berri eta 2.000 formazio ordu. Hori, kontuan hartu barik hipermerkatuaren eraldaketak berak ekarri duen kanpo-lana, obra zibil handia egin dugu eta.

Merkataritzan, gero eta marka berri gehiago dabilta sartzen merkatuan. Adibidez, oso sonatua den Mercadona Eibarren zabaltzekotan dela eta, zenbateraino kezkatzen dute halakoek Eroski moduko talde bat?

Ohituta gaude beste lehiakide batzuekin lan egiten, hemen eta hemendik kanpo Mercadonaren kasuan, Nafarroan, Errioxan... haiekin lehiatzen gara. Beti da osasungarria lehiakideak izatea. Gu lasai gaude. Gure negozioa sendoa da, eta, egiten ditugun eraldaketei esker, sendotasunari eutsi egiten diogu.

Hipermerkatura bueltatuta, egokitu duzuen ikasgela-gunean Maritxuaren lore-ikaslaro antolatutuzuela ikusi dut. Halakoetarako erabiliko duzue?

Eroski zurekin da gure leloa. Eta, zentzu horretan, adibidez, bezeroen interesak kontuan hartuta, handitu egin dugu saltokian bertan ere bezeroei aholkularitza, informazioa... eskaintzeko mostradoreak. Bada, bezero den irakasle batek esan zigun ea posible zen gazteei zuzendutako tailer bat egitea Maritxutarako. Kontuan hartuta Maritxu jaia Arrasaterako oso esanguratsua dela, erabaki genuen tailerra antolatzea makillaje teknikak eta erakusteko, orain loreena dago... Baina erabili dugu, baita ere, gure bezeroei erakusteko osasunarekin lotuta ditugun produktu berriak. Adibidez, teak, infusioak... Nafarroan lantzen dituen eta, gainera, langabeekin lanean diharduen Nafarroako ekoizle baten produktuak erakutsi genituen... Bertako produktu osasungarriak eta interesgarriak izan daitezkeenak ezagutzera emateko erabiliko dugu, adibidez.

ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA
goiena.eus/komunitatea/



Oinezkoendako herria

Tira, asteburu honetatik aurrera indarrean jarriko da oinezkoei begira Antzuolan garatu den plana. Oinezkoaren eta automobilaren arteko elkarbizitzan, oinezkoari toki hobea ematea bilatzen duen plana da, herria gehienontzat jasangarriagoa izatea eta bizi-kalitatean puntu bat gora egitea.

Badakit ez dela antzular guztien gustuko plana. Ohiturak aldatzea dakar, eta aldaketak beti sortzen du nolabaiteko ezi-negon egonezina.

Badakit ez dela akatsik gabeko plana izango ere, eta erabiltzen hastean konturatuko garela plana diseinatzerakoan hau edo hura ez genituela kontuan hartu...

Eta badakit egokitzapenak egin beharko ditugula. Ez dago arazorik, hilabete eta erdiko probaldia dugu paperean dagoena kalean probatzeko.

Modu berean, badakit aldaketa ez dela hainbesterakoa, lehen asteburuetan egiten zenaren antzerakoa dela.

Badakit oinezkoei lehenetsua emateko tamaina egokia duela Antzuolak, inguruan dauzkagun herri handiagoetan oinezkoendako gero eta gune zabalagoak sortzea posible izan bada –Bergara, Arrasate, Oñati, Eibar...– gurean errazagoa izan behar duela. Aparkaleku batzuk galduko direla ere badakit, baina egunero alferkeriaz hutsik geratzen den garaje-kopurua dezentz handiagoa dela.

Automobilik gabeko kale eta plazak gustatzen zaizkit, eta adibidetzat beti neure auzoa jartzen dut. A zelako alde dagoen Ondarreko plaza Corpuzetako asteburuan ikusi edo urteko gainerako 363 egunetan ikusi! Prozesio-zale ez banaiz ere, ni Corpuzetakoarekin geratzen naiz.

Aldaketa datorkigu, ez iraultza; lasai hartu, eta ikusten duzenarekin etorri udaletxera! Ondo, eta lasai, paseatu asteburuan!

Hilabete eta erdiko probaldia dugu paperean dagoena kalean probatzeko

USTEAK USTE

UBANE MADERA | umadera@goiena.eus

Eta gauzatuko balitz?

Ezinbestean egunotan gutako askoren begiradak Katalunian daude eta egongo dira. Han zer gertatuko jakin-minez. Euskal Herriaren eta Kataluniaren arteko paralelotasunarengatik. Ez. Ez dut esan nahi herrialde haren eta gurearen errealtatea berak direnik. Ezta gutxiago ere. Zoritxarrez, uste dut kataluniarrek lortu duten punturaino iristeko bide luzea dugula egiteko: euskaldunon arteko kohesiotik abiatuta, hizkuntzatik pasatuta... Askok dugu haiengandik ikasteko. Baina sentimendu asko bai dira oso antzekoak –berberak, ez esatearren–. Eta nik, behintzat, sekula ez dut sentitu hain gertu Estatuko herrialde baten independentziarako aukera. Eta gauzatuko balitz?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Amama

Luis Aranberri Mendizabal 'Amatiño'
<http://goo.gl/1646Xd>

Zenbaitentzat poesia hutsa da *Amama* filma; beste hainbaitentzat, ordea, ez omen du Donostiako Zinemaldiaren A kategoriak eskatzen duen besteko mailarik.

Ez dakit ba... Niri gustatu egin zait, baina ez naiz poesiaren zale. Eta orain arte sail ofizialean ikusi ditudan hiru filmetarik onena... *Amama* bera.

Leporatzekotan, *Amama* filmari leporatuko nizkioke akats bat eta eskasia bat. Akats gisa, bi helbururi aldi berean erantzun nahi izatea: batetik, baserri giroko azken belaunaldion arteko etenari eta, bestetik, nolabaiteko errealismo magikoari. Eskasiaz, berriz, zuhaitz gorria (pasioa, errebeldia...)

Segurutzat, ez bata (akatsa) eta ez bestea (eskasia) ez dira euli-kakak ziria sartu nahi izateko zorian baina, zer gerta ere, filma atsegina da oro, zirrarragarria inoiz, interpretazio onekoa gehien-gehienetan, primerako fotografia beti eta, euskaraz

den aldetik, nabarmen asko landua, hasi eta buka.

Edozein modutan, besterik iruditu arren, gai unibertsala. *Amama*, baserria, tradizioa, ohitura zaharrak, belaunaldi-haustura eta zuhaitzen erreferentzia biltzen zituen *La balada de Narayama* film japoniarrak (Shohei Imamura) Urrezko Palma irabazi zuen Cannesen (1983), eta inork ez zion behintzat unibertsaltasunik eza egotzi.

Maila-kontuez, berriz, *Amama* pelikulaz gainera, *21 nuits avec Pattie* eta *Eva no duerme* baino ez ditut nik orain arte ikusi baina, Urrezko Maskorra hiruon artean erabakitzeotan, Asier Altuna eta Telmo Esnal bikotearenak irabaziko luke, hamarretik hamarretan.

Bardea

Angel Erro
<http://goo.gl/2UJWXM>

Egunotan hamabi Emmy eskuratu dituen *Game of Thrones* telesailko dagoeneko ez dakit zenbatgarren denboraldirako eszena batzuk ari dira Bardean filmatzen egunotan. Ezkutukeria handiarekin ari dira, eta ez

dago baieztapenik zer filmatu behar duten zehazki. Tokiaren aukeraketak eta kontratatutako estren ezaugarriek dothraki tribukoekin eta beraien buru den Daeneris Targaryen pertsoniarekin zerikusia izanen duela pentsaraz dezakete. Oso litekeena da dragoiak ekar ditzatela egunotan Bardeara, inork ikusi ez arren, digitalizatuta sartuko baitituzte gero postprodukzioan.

Egunotan *Trident Juncture* 2015 egiten ari dira Bardean. Ez da mastekatzeko goma marka batek babestutako lasterraldi estremo bat, NATOk bultzatutako nazioarteko maniobra militar batzuen izena baizik. Lanak izanen zituzten telesail ezagunarekin bat ez egiteko. Joan den astean hasi ziren. Dothrakiak eta dragoiak joatean jarraituko dute. Erabiliko duten sua (benetakoa, hilgarria eta abar) ez da postprodukzioan gehituko.

Egunotan ezin da Bardeara lasai joan paseoan. Segurtasun enpresako zainzaileek edo militarrek bidea itxiko dizute, noiz zoazen, sekulako gerrate baten edo bake mundialaren fikzioaren izenean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundinano, Zoritz Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetzea eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.850 ale
Difusioa: 18.857 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

LKRTSN Eguna

Aner Elorza Berasategi

(LKRTSN Eguna herri ekimenaren izenean)
Arrasate

Ez daukogu hitzik irailaren 19an Arrasaten bizi izandakua adierazteko. Benetan berezixa izan da aurtengo LKRTSN Eguna guretzat.

Erronka haundixa zan X. urteurren hau Monterronen antolatzea, baina pertsona askok jarritako LKRTSN aletxo bakoitzakin ikusi da helburu haundixak be lortu ahal diezela.

Beraz, gure esker ona adierazi nahi dotzegu aurreko zapatuan Arrasatera hurbildutako guztioi, baina bereziki LKRTSN egunian bolondres lanetan ibili zineten guzti-guztiori. Guzti hau ez zan posible izango zuen laguntza barik.

Esker mila: kartel diseinatzaileari, propaganda taldiari, Monterrongo segurtasun taldiari, Monteazpiko sarreran egondakuei, Monterrongo montaje eta txosna ekipuari, bazkari ekipuari, afari ekipuari, ume jolasetako taldiari, tabernetako kontzertuetan koordinatzaile bezela ibili zinetenoi, Monterronen ostiral gaba zaintza lanetan ibili zinetenoi, taberna kolaboratzaile guztiei, Monterrongo soinu teknikariei, herriko plazara etorritako artisa-saltzaile guztiei,

LKRTSN materiala saltzen egon zinetenoi, bertsolari-txalapartari-albokalariei, ipuin kontalariei, musika talde guztiei, manifestazio osteko ekitaldia antolatu zinetenoi, Monterron garbitzen geratu zinetenoi, edari pilo bat musu-truk eman zigunari... a, eta eguzkiari, nola ez (hurrengo urtian be ea ikusten garen). Ziur norbait ahaztu jakula...

Ea aurtengo aldarria egia bihurtzen dan: azkena izan dadila!

Adiskide bat bazen, orotan bihotzbera

Inaxio Garro

(Aretxabaletako Txistulari Taldearen izenean)
Aretxabaleta

Aretxabaletar askoren hatsa garrastuta, begiak bustita eta eztarria korapilatuta geratu zitzaizkigun joan den ostiralean, Ramon handiari *hurrengo batera arte* esan genionean, negar-malkoei eutsi nahian. Azken agurrean pilatutako jendetzak bere ibilbidea, konpromisoa eta inplikazioa eskertu eta adierazi nahi izan zizkion. Ez zuen gutxiago merezi, han eta hemen, makina bat saltsatan parte hartzen ibilia delako, beti aurpegi onez eta bere bibote azpian irribarrea eskainiz.

Aretxabaletak ez du erraz ahaztuko Loramendi dantza taldearen sortzailea izan zenik, edo atletismo taldeko bultzatzailea, edo udal-kontutan jardun zuela zinegotzi gisa, edo odol emaileen elkarteko herriko arduraduna izan zenik, edo txistulari aparta, edo euskaltzalea... Honekin lotuta, Herriko Plaza ondoan tente eskegita dagoen ikurrina jarri arte ez zuen amore eman, Aretxabaletako talde, erakunde eta elkarte guztietako ordezkariekin elkartu eta sinadurak bildu artean, Felis laguna ondoan zuela. Beraz, hemendik aurrera ikurrinari begiratu bat ematen diogunean, bera izango dugu pentsamenduan, dotore eta tente.

Ez da batere erraza maite duzun horri agur esatea. Guztiok edan dugu gehiago edo gutxiago ur horretatik. Arrazoiak hamaika izan daitezke, baina guztion bizitzaren aurretik pasatzen dira arrasto nabarmena uzten duten lagunak, lankideak, herritarrak... Isilik, zarata handirik atera barik, protagonismoari eta handikeriei bizkarra emanez, behar zenean behar zen tokian eta moduan egonda ezagutu dugu Ramon.

Txistulari-taldean adinez nagusiena izan arren, nerabe baten kemena eta gazte baten indarra zeuzkan. Gaixotasunak bere indarrak ahuldu zituenean ere, Arkupen egiten ohi ditugun entseguetara azaltzen

zen, guri babes emanez, txistu-hotsarekin gozatuz. Hainbat eta hainbat kontu eta anekdota kontatzen zigun ondoren, bere buruan ondo gordeta zituenak: pertsonak, datak, gertatutakoa... Beti txukun, langile, edozein gauzatarako prest. Dotoreen artean dotoreena zen, bere txapel, intsignia, alkandora zuri eta praka ilunekin, gainerakoentzat eredugarri bihurtuz.

Gaiean ditugun San Migel jaietako kantu-afarian ere faltan botako dugu, eta zapatu arratsaldean Beinke-Loramendi dantzaren emanaldian, aurrerantzean beste hainbatetan ere bere hutsunea igarriko dugun moduan. Dagoen tokian dagoela, ohorezko mahaian egongo da gure kantu eta garrasiak entzuten. Horieta batak berarentzat izango dira.

Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik. Eraña tar Erramon, agur eta ohore.

Kultura tortura da

Manex Agirre Aranguren

(AGAKO)

Arrasate

Ez deigun danok ezikusixarena egin.

Jakin badakigu eta ez dogu onartzen.

Kultura tortura da.

Txispun!

Asanbladak egin, diskutidu, hau lotu, bestia engantxau,

laguntza eskatu, baita emun be, zereko zera lortu, beste harek azkenian kale. Kaka! B planik badau? Ez. Kaka zaharra! Eta oin ze? Ba... ti-tau! Hau aurrera atarako dogu!

Lan eta lan, amesten eta eraikitzen, gure esparrutik gauzak aldatu guran, inor zapaltzeko asmo barik eta zapalduak izeteko boletto danekin.

Bilbo 2011. Gora jabetza pribaua! Proiektu kolektibauk txikittu, ordura arte ahaztutako auzo oso bati bizi-poza kendu, tanketak, ostixak, kargak, porrak eta sua. 3 urteko kartzela zigorra, "Atentado a la autoridad". Amen. Omen.

19 pertsona epaixaren zain. Kartzela eskaerak. Kukutza egon biheko zan tokixa, hutsik, kakaz beteta. Gora jabetza pribaua! Orube huts bat besterik ez bada be...

Donostia 2016 2015; Kapitalaren kultura. Barkatu, kulturaren kapitala. Eraiste agindua, ertzainak, mehatxuak eta zigarro fabrika flamantiak. Donostiar, euskaldun eta espaiñolak. Zezenak eta "lo siento, no volverá a suceder". Berriro ostixak, multak eta zigorrak. Gora kapitala!

Hala eta be, lan eta lan, alternatibak sortzen eta beste bizi eta kultura eredu bat aurrera ataraten.

Eurek indarra daukie, guk ilusiñua eta arrazoia.

Kukutzan egon ginen eta Kortxoenean egongo gare!

Karakterea, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Goiena Klubeko iraileko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!




Arrasateko hipermerkata
EROSKI

**LG telebista
32 hazbetekoa**


Parte hartzeko sariaren izena:
Telebista



DVD-a
Peter Pan musikala
Parte hartzeko sariaren izena:
PeterPan



Liburua
Gerardo Markuletaren azken liburua
Parte hartzeko sariaren izena:
Liburua



Jokoak
Ardibidez eta Kirolaz Badakit jokoak
Parte hartzeko sariaren izena:
Jokoak



Otarra
Bidezko merkataritzako produktuak
Parte hartzeko sariaren izena:
Otarra



Sarrerak
Arrikruz kobetarako sarrerak
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikruz

PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.



Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

ANTZUOLA



Eli Matxinandiarena, Vanesa Tamayo eta Nagore Santos hezitzaileak haur eskolan, umez inguratuta, ipuina kontatzeko ulean. | MAIDER ARREGI

Maitasunez heziz eta haziz

Antzuolako haur eskolak hamar urte bete ditu; urriaren 2an egingo dute ospakizun festa

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

2005eko urtarrilean, lau umekin, zabaldu zituen lehenengoz ateak Antzuolako haur eskolak. Pixkanaka ume gehiagok eman zuen izena eta beste gela bat ere zabaldu zuten. Vanesa Tamayo eta Nagore Santos hezitzaileek abiatu zuten proiektua orain dela hamar urte. Tamayo, baina, lehen urtean bakarrik egon zen eta Herri Eskolaren laguntza izan zuen. Orain dela sei urtetik, berriz, Eli Matxinandiarenak ere osatzen du hezitzaile taldea. "Haur eskola txikia da. 0-1 urte artekoen gelak zortzi plaza ditu; eta 1-2 urtekoenak hamahiru". Egun, langile finkoak ditu haur eskolak. "Modu horretan, zenbait proiektutan parte hartzea posible da; baita helburuak finkatzea ere. Lan egiteko beste modu bat lorzen da hezitzaile finkoak izanda".

Aldaketak

Proiektu berri batean murgilduta dago Antzuolako haur eskola. "Umeak oso txikiak direla kontuan hartu behar dugu, eta gure helburua da umearen garapen osoa bultzatzea. Umearekiko errespetuak erabatekoa izan behar du eta haren erritmoa errespetatu egin behar da. Abiatu dugun proiektu honen ardatzak egokitzapena, mugimendua, esplorazioa eta zaintza unea dira", argitu du.

Egokitzapena

Garrantzi handia ematen dio haur eskolak txikiaren egokitzapenari. "Gurasoekin elkarriket-

ESANAK

"Errutinak segurtasuna ematen die umei"

ELI MATXINANDIARENA | ARDURADUNA

tak izaten ditugu, euren kezkek eta beldurrak argitzeko. Umea ezagutzen laguntzeko informazio iturri dira guretzako".

Mugimendua

Batzuetan gurasoek "presa" izaten dutelako, umeari lagundu egiten diotela esertzen edo zutitzen diote. Baina haur eskolak umea autonomoa izan dadin lagundu gura du. "Mugimendu autonomo librea garatzeko baliabideak



Haur eskolako lehen umeak hezitzaileekin bazkalorduan. | HAUR ESKOLA

eskaintzen dizkiegu. Konfiantza eta segurtasuna izatea lortuko du. Ez dugu umea berak ez dakien jarreran jarriko; berak lortu behar du, eta guk lagundu egingo diogu prozesu horretan".

Esplorazioa

"Zentzumenen esplorazioa bultzatzen dugu". Hala, betiko jostailuez gain, bestelako material-dun jostailuak erabiltzen dituzte umearen esploraziorako: metala, egurra, kartoia, telak... "Askotariko tamainatako ontziak ere erabiltzen ditugu alde bate-tik bestera ibil daitezen".

Zaintza unea

Janaria, loa eta higiena; hezitzailearen eta umearen arteko komunikazioa indartzeko hiru zaintza unea dira. "Harremana sendotzeko oso une garrantzitsuak dira. Umearen eta hezitzailearen arteko komunikazioa

indartzen da". Errutinak duen garrantzia ere azpimarratu dute hezitzaileek. Izan ere, errutinak "segurtasuna eta konfiantza" ematen die.

Ospakizuna

Urriaren 2an ospatuko da haur eskolaren festa, 17:00etan hasita.

Puzgarriak, txokolate-jana, tailerrak, bideo-muntaia... izango dira. Helburua da haur eskolako ateak ireki eta gertutik egiten duten lana ezagutzera ematea. "Pausoka guraso elkarteari eta Udalarari eskerrak eman nahi dizkiegu festa antolatzen laguntzeagatik".



Aratusteetan ez da mozturik festa falta izaten. | HAUR ESKOLA



Pixkanaka ume kopurua handituz joan da. | HAUR ESKOLA

Oihan Vitoria | Maritxu Kajoi Komisoñoko kidea

"Santa Ageda abesbatza sortu zutenei emango diegu inbutua"

- ▶ Nobenaixua gaur Herriko Plazan (18:30); ardoa eta gazta banatuko dute doan
- ▶ Herriko koru omenduak emanaldi berezi bat prestatu du ospakizunerako

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Astebete falta da urteko egunik dotoreenerako, eta, festa berotzen joateko, Nobenaixua ospatuko dute gaur Herriko Plazan (18:30), ama birjina maitatuenaren azpian. Komisoñuak Santa Ageda abesbatza omenduko du, eta abesbatzaren sortzaileei emango diete inbutu preziatua, inguratzen direnei ardoa eta gazta musu-truk banatzearekin batera. Komisoñoko Oihan Vitoriak (Arrasate, 1991) eman dizkio GOIENARI zehaztasun guztiak.

Nola doaz prestaketa lanak?

Ekaina ezker biltzen egon ostean, dena dugu gertu egun handirako. Egitaraua zehaztu dugu, eskapularioak eta kartela gertu... Azken txanpan gaude, gogotsu.

Nobenaixua gaur, festaren urteroko iragarle. Zergatik omenduko duzue Santa Ageda abesbatza?

Urtero saiatzen gara herriaren alde egiten duen eragile bat omentzen, eta aurten Santa Ageda abesbatza aukeratu dugu. Urte luze tradizioa mantentzearen eta herriko bazterrak alaitzen zein kantuz barreiatzen egindako lanagatik jasoko dute omenaldia. Pozik hartu dute gonbidapena, eta oso gustura etorriko dira abestera; emanaldi berezi bat prestatzen dihardute, gainera. Inbutua abesbatzako sortzaileei emango diegu, eta, ondoren, inguratzen diren guztiendako ardoa eta gazta egongo da musu-truk. **Sarean presentzia handia izan duzue azken egunotan...**

Eguna gerturatu ahala sare sozialetan bidez egin dugu zabalkundea, jendea harra piztu guran. Webgunea eduki berriz hornitu dugu, eta .eus domeinua jarri [www.maritxukajoi.eus da helbidea]. Puntu Eus fundazioaren kanpainarekin bat eginez, gure hondar aletxoak jarriko diogu sarean euskarari eta euskal kulturari, eta, euskaraz jarduten dugun elkarte bat garenez, horren alde egingo dugu aurrerantz ere.

Egongo da argazki lehiaketarik?

Bai. Bi urte daramatzagu argazki lehiaketarekin eta aurten



Oihan Vitoria, asteon, Maritxupean. J.B.

"Hondar alea jarriko diogu sarean euskal kulturari '.eus' domeinuarekin"

elkarlanean antolatu dugu herriko ArtGazki elkartearekin batera. Urriaren 9ra arte egongo da erretratuak lehiaketak@artgazki.org helbide elektronikora bidaltzeko.

Amaitzeko, mezurik helarazi gura diezue herritarrei?

Gogotsu eta dotore irten daitezela, eskapularioa ahaztu barik. Eta gogoratzeko festak ondo pasatzeko direla. Hau da, Maritxuk ez duela jarrera sexistarik onartuko. Bestalde, asko eskertzen ditu loreak, eta, beraz, anima daitezela kuadrilla guztiak lore eskaintza egitera. Ondo ibili!

Emakumeen Mundu Martxa eskapularioan

Urriaren 2ko egitarauan ez dago aldaketa nabarmenik. Goizetik goizera egitaraua prestatu du Komisoñuak, ohikoa duen umorearekin eta oharrekin. Hartara, kuadrillei gogoratu diete Maritxuk izugarri eskertzen duela loreak jasotzea, eta dotore-dotore eta eskapularioa soinean jantzita irten behar dela. Eskapularioak moreak dira aurten, Emakumeen Mundu Martxarekin bat eginda; Gure gorputza gure lurraldea leloarekin atzean.



Meatzerreka berreskuratzeko auzolana bihar, "pertsonen eta naturaz gozatzeko"

J.B. | ARRASATE

Naturzaindia, Besaide eta Sustraibarri elkarteek herrilane-rako dei egin dute biharko. 09:00etan elkartuko dira, Arbolapetan, eta Meatzerrekarako bidea egingo dute berreskuratu berri den Errege Bidetik: "Bide historikoa ezagutu ahal-ko da; ibilbide arina da", diote.

Ez dago izena eman beharrik, eta auzolanaren ostean hamaiketako ederra egingo dute.

"Pertsonen eta naturaz gozatzeko" eguna izango da. Otsailean 400 zuhaitz landatu zituzten San Balerio ermitaren inguruan, eta bigarren deialdirako honako lan hauek egitea aurreikusitako dute: zuhaitzen egoera aztertzea, San Balerioko ermita ondotik lursailera zuzenean igotzeko egurrezko eskailerak eraikitzea, saguzarrentzat eta hegaztientzat habia-kutxak jartzea eta anfibioentzat ur putzu bat egitea.



ARRASATEKO UDALA

Eskerrak ematera, El Salvadortik

El Salvadorko Chalatenango Departamenduko Las Vueltas herriko alkate Rosa Candida Alas de Menjivar udaletxean egon zen joan den astean, Udalarri eskerrak emateko, Garapenerako Lankidetzaren Udal Programan emandako diru laguntzagatik; Herriko Plaza berritu dute eta kultura etxea eraikitzen ari dira, besteak beste. Jakina denez, Pakito Arriaran ekintzaile arrasatearra oso maitatua da inguru hartan.

DSk nahiago du TOTAL

ORAINDIK AURKITZEKO
DAGOENA DA
ZIRRARAGARRIENA.

SYLVESTRE MAURICE DOKTOREA - ASTROFISIKARIA

DS 5 BERRIA



BATEZ BESTEKO KONTSUMOA: 3,3-6,1 L/100 KM. CO2 EMISIOAK: 85-158 G/KM



www.driveDS.es

TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22

ONDO PASAU
SANMIGELETAN!

Arrasatetik irteera

Gabonetako azoka txikiak München
Neuschwansteineko gaztelua

2015eko abenduaren 4tik 8ra
Prezioa pertsonako: 625 €

Barne dagok: lekualdatzeak Arrasatetik Bilboko aireportura eta aireportutik hotelera - Hegaldi zuzenak Bilbotik - 4 gau lau izarreko hotelean, gaua eta gosaria - Municheko bisita hango gidariarekin - Egun osoko bisita Neuschwansteineko gaztelura eta Oberammergau herrira - Bidaia aseguru

Aireportuko tasak ez daude barne: 126 €, gutxi gorabehera.

Informazio gehiago:
943 79 29 88

Halcon bidaiak.com

Olarre 14
ARRASATE

NIRE USTEZ

ANE GOROSABEL



Altxa emakume!

Arma gaitezen luma, aizkora, jostorraz, aitzur edota amantalez, eta irten gaitezen kaleak gure egitera. Emakumeon Mundu Martxa indartsu dator, karabana feminista Kurdistandik abiatu zen martxoaren 8an, eta urriaren 2an iritsiko zaigu Bergarara. Auzo, herri eta hirietatik mundu osora zabaltzen ari den hotsak ozen aldarrikatzen du gure gorputzak gure lurraldeak direla, eta emakume oro aske izan arte borrokak ez duela etenik izango.

Biolentzia gabeko bizitza ereduera irakitzear dugu, erakutsi gura digutenaren aurka alternatibak sortzen ari dira, ez gaitzela itsutu, betaurreko moreak jarri besterik ez dugu eskura dugun aukera errealitate bihurtzeko. Bizitza erdigune izanik, genero eta desberdintasun harremanak kolektiboki gainditu genitzake, gure gorputzak gureak sentituz, gure erabakiak gure eginaz eta gizarteak ezartzen dizkigun mugak hautsiz. Hamaika proposamen dator-kigu karabanan: elikadura burujabetza, desmilitarizazioa, autodefentsa feminista, ondusun kolektiboa, emakumeon ezinbesteko jardunen aitortzea...

Haziak ditugu gure esku, baita jakintza, esperientzia, bizipoza eta aldaketarako grina ere, erein dezagun borroka feminista, elkartu gaitezen borroka honetan eta lortu dezagun askatasun eta duintasunez bizitzea, merezi dugu.



Osoko bilkuran, bozketa; EAJko eta PSE-EEko zinegotziak, TTIPren aurkako mozioaren kontra. | JOKIN BEREZIARTUA

Siriako gerratik ihesi datozenak hartuko dituzte

Udal talde guztiek bat egin dute errefuxiatuen "krisi humanitarioaren" aurrean

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udalak Siriako gerrako errefuxiatuak hartzeko "prestutasun osoa" du, iristen direnen eskura udal zerbitzu "guztia" jartzeko konpromisoarekin: "Jaurlaritzarekin zein Aldundiarekin modu koordinatuan erantzun behar zaie jende horren beharrei. Ezin dugu ahaztu, bozkatzeko eskubidea izan ezik, gainerakoon eskubide berak izango dituztela, eta, horregatik, erantzun ona eman behar zaio krisi humanitarioari. Gainera, talde guztiak ados jarri izana balioan jarri behar da", dio Maria Ubarretxena alkateak.

Etxe-kaleratze gabeko udalerr

Joan den asteko osoko bilkuran onartu zen, era berean, Arrasate etxe-kaleratze gabeko herri izendatzea. Kaleratzeak Stop taldearen izenean egin zuen berba Juan Luis Merinok, eta adierazi zuen Arrasaten etxegabetzerako hamar prozesu daudela irekita. Mozioak aurrera egin zuen, talde guztien aldeko botoarekin eta EAJren abstentzioarekin. Bestalde, Balekeren TTIP delako akordioaren aurkako mozioak ez zuen aurrera egin -AEBen eta EBren arteko liberalizazioa-, EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu zuten-eta.

Askapenaren aurkako prozesua

EH Bilduren ekimenez, Askapenaren aurkako epaiketa bertan behera uzteko eskatu du udalbatza -EAJ, EH Bildu, Baleike eta Irabazi alde; PSE-EE kontra-: "Auzitegi Nazionalaren beste barrabaskeria bat gehiago da. Askapenaren lana oso garrantzitsua da, estatuek porrot egin duten eremuetan herrien arteko elkartzuna ari delako bultzatzen", uste du EH Bilduko Eneko Barberenak. EAJk ere gogor salatu zuen epaiketa. Bihar Herriko Plazan egingo den manifestaziorako (18:30) dei egin dute EH Bildukoek.

Askapena babesteko manifestazioa deitu dute biharko (18:30)

Askapena, Askapeña, Herriok Aske eta Elkar Truke elkarten ilegalizazio eskaerak salatzen dituzten manifestazioa deitu dute biharko, Herriko Plazatik irtenda (18:30). Urriaren 19an bost militante epaituko ditu Auzitegi Nazionalak, eta urriaren 12rako "herri epaiketa" deitu dute: "Internazionalistak garelako espetxeratu eta ilegalizatu nahi gaituzte. Internazionalistak garelako espainiar estatu inperialista epaitu eta kondenatuko dugu", adierazi dute.

Alde zaharreko terminen aurka egiteko bilera irailaren 28an

Udalak, Anticimex 3D Sani-dad Ambientak SA enpresaren bitartez, alde zaharreko terminen izurritea kentzeko eta kontrolatzeko zerbitzua- ren nondik norakoak azalduko ditu astelehenean, hilak 28, Kulturategi areto nagusian (19:00). Ez da lehen aldia Udalak terminen aurka egiten duena, eta bilera horretan azalduko da, besteak beste, zerbitzua nola gauzatuko den eta orain arte zein urrats egin diren.

Txakurrak lotuta eraman eta haien kakak jasotzeko kanpaina abiarazi du Udalak

J.B. | ARRASATE

Txakurren eta herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko kanpaina abiatu zuen astelehenean Udaleko Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak batzordeak. Hilabete iraungo duen lehen fase baten, bando eta kartel bidez gogora ekarriko diete jabeen txakurrak lotuta eramateko -txakur arriskutsuen kasuan muturrekoarekin- eta

haien kakak jasotzeko betebeharrak dutela. Kontzientiazio kanpainaren ostean, udaltzainak isunak jartzen hasiko dira. Batzordeko buru Oscar Garciaren arabera, Udalean "hainbat kexu" jaso dituzte lotu barik doazen txakurrengatik zein haien kakengatik: "Egoera hori amaitu egin behar da. Gaiarekin serio jarriko gara", dio PSE-EEKo zinegotziak.

Buzkantz usaina eta askotariko ekintzak asteburuan Garagartzako sanmigeletan

J.B. | ARRASATE

Urtero moduan, buzkantzak izango dira protagonista Garagartzako San Migel jailetan. 300 kilo inguru eskatu dituzte Patxisena auzo-etxean prestatzeko; gaur eta bihar egongo da jaki preziatua dastatzeko aukera, 19:00etatik aurrera. Nobedadeen

artean, gaur gauerdarako, auzoan oso ezagunak diren Lamia eta Neanderthal pertsonaien jaitziera berreskuratu dute; argiak itzali egingo dituzte eta txalparta doinuekin agertuko dira bi pertsonaiak. Gainera, Buzkantz Rock jaialdia zapatara atzeratzea erabaki dute.

OHARRAK

1949AN JAIOTAKOAK

Urriaren 17an Araba aldera egingo dute txangoa. Prezioa 80 euro da eta izena Lore lurrin-dendan eman behar da; 50 euro aurrera-

tu behar dira urriaren 13a baino lehen. Ereserki eta guzti izango dute ospakizunerako, Jesus Mar-kaidek egindakoa, Adrian *El Guate*-ren konponketekin.

1956AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 14an irteera egingo dute Villabuenara (Araba). Izena emateko, izen-abizenak jarri kontzeptu moduan honako kontu korrante zenbakian: 30305 0202 77 202104550 (60 euro).

1964AN JAIOTAKOAK

Urriaren 31n batuko dira Herriko Plazan (12:00). 65 euroko ordainketa egin behar da urriaren 15a baino lehen kontu korrante zenbaki honetan: 2095 5055 50 9113880736.

1969AN JAIOTAKOAK

Urriaren 31n Herriko Plazan elkartuko dira (12:30). Izena emateko, izen-abizenak jarri behar dira kontzeptu moduan honako kontu korrante zenbaki honetan, 50 euroko ordainketa eginda: 2100 1972 0002 00145316. Urriaren 25an itxiko da izen-ematea.

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa

Diagnostikoa - Orientazioa
Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
Arreta psikologikoa genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
Estimulazio goiztiarra
Logopedia
Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

SANMIGELAK GARAGARTZAN: EGITARAUA

HILAK 25, EGUBAKOITZA

19:00 Jaien hasiera, Ikurrinaren igoera eta suziri jaurtiketa.

19:30-21:30 Arrasateko trikitilariak kalejiran.

22:00 Dantzaldia Gau Alai taldearekin.

00:00 Lamia eta Neanderthalen jaitziera.

03:00 Berakatz-zopa.

HILAK 26, ZAPATUA

11:30 Umeendako jolasak.

12:00 Meza auzoko hildakoen alde.

17:30 Gorriti eta bere animaliak.

19:30 Erromeria.

22:30 III. Buzkantz Rock musika jaialdia: Zarzamora,

Agressive Combat, Crap eta talde sorpresa.

HILAK 27, DOMEKA

00:00 Garagartzako Kobateko XI. futboleko partiduak.

12:00 Meza San Migelen oroimenez.

12:30 Euskal dantzak, Txikitxu Arrostitz taldearekin.

14:30 Auzo bazkaria.

HILAK 29, MARTITZENA

19:00 Meza San Migelen oroimenez. Ondoren luntxa egongo da.

BUZKANTZAK

Egubakoitzean eta zapatuan buzkantzak egongo dira auzo-etxean, 19:00etatik aurrera.

Hiru lehiak galduta, agur esan dio MUK Euskal Kopari

J.B. | ARRASATE

Denboraldi-aurrea prestatzeko balio izan duen saskibaloiko Euskal Kopa handi geratu zaio aurten Mondragon Unibertsitateari. Jokaturako hiru partidua galduta, agur esan diote txapelketari Josu Larreategiren mutilek: "Nahiz eta hiru partidua galduta, pozik gelditu naiz taldearen lanarekin. Aurten, Zilarrezko LEB taldeen kalitatea gorantz joan da iazkoarekin alderatuta, eta oso zaila egin zaigu euren erritmoari eustea. Gainera, aurten, gure prestaketak atzeratuta daude apur bat, eta igarri egin da; horrelako lehietan ikusten da zer falta zaizun talde moduan lehiakorra izateko eta zer hobetu behar den. Jokalariak ere ikusten dute zelan dauden, eta hori ere oso aberasgarria da", dio entrenatzaileak. Easoren aurkako azken partiduan 56-75 galdu zuten eta gainerako bi partiduetan, Araberriren eta Zornotzaren aurka, jipoi galantak jaso zituzten.

Era berean, Ointxe saskibaloiko klubeko talde guztiak aurkeztu zituzten domekan Iturripen (ikus 21. orrialdea).

Bueltan dator 'Azalerako ipuinak', literatura eta masajea elkartzeko

Urriaren 1ean, 8an eta 15ean izango dira saioak, euskaraz, Kulturaten

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hitzik gabe komunikatzea, 0 eta 3 urte arteko haurra hartzaile nagusi dela. Hori da Udal Bibliotekako Haurtxotekara bueltan datorren *Azalerako ipuinak* tailer bereziaren funtsa; iaz egin zen lehen aldiz: "Helburua da ahozko tradizioa eta haur literatura ezagutzea. Masajeak eskaintzen duen hitzik gabeko komunikazioa baliatuz, hitz jokoak, poemak, kantua eta ipuinak landuko dituzte giro lasai eta atseginean", diote Udal Bibliotekatik. Urriaren 1ean, 8an eta 15ean izango dira saioak (10:30). 0 eta 3 urte arteko umeendako eta haien guraso edo hezitzaileendako da. Doakoa da izen-ematea -hilaren 29ra arte- eta saioak euskaraz izango dira. Argibide gehiago: 943 25 20 25 edo aagiriano@arrasate.eus.

Gidatzailea, iazko berbera

Iaz bezala, Saroa Bikaindi hezitzaile durangarrak gidatuko ditu saioak. Horren gazteak izan arren, ipuinek eragina dutela sinesten du Bikaindik: "Asko gustatzen zaie. Ipuin laburrak direla, hitz-jokoak, errimak... Horiek haurrendako elikagai moduan hartzen



Iaz egindako *Azalerako ipuinak* taileraren saioetako bat. | UDAL BIBLIOTEKA

ditut nik". Haurrak dira hartzaile nagusiak, baina ez bakarrik. Gurasoendako "oso baliagarria" da ikastaroa: "Materiala eta baliabideak ezagutzeko oso saio egokiak dira. Ez dut espero denok adi-adi egotea, inondik inora". Iaz parte hartu zuten gurasoak "oso pozik" geratu ziren: "Samurra da, oso atsegina. Adin tarte horretako haurren gurasoak oso gogotsu etorri ohi dira, eta horrek asko errazten du dena".

Literatura solasaldiak

Bestalde, urri amaieran hasiko dira euskarazko eta gaztelarazko literatura solasaldiak. Euskarazkoak urriaren 28an, azaroaren 18an eta abenduaren 17an izango dira, 18:15etik 20:15era, Kulturaten. Gaztelarazkoak, berriz, urriaren 21ean, azaroaren 25ean eta abenduaren 16an izango dira, 18:00etatik 20:00etara, Kulturaten. Izen-ematea urriaren 1ean irekiko dute bi ekimenetarako.

Herrixa Dantzan ekimena astelehenean aurkeztuko dugu

Urtero moduan, plazako dantza tradizionalen ikastaroak antolatuta ditugu. Hiru talde izango dira: hasiberriak, bigarren maila eta *beteranoen* dantza-txokoa. Urriaren 5ean hasiko dira eskolak. Irailaren 28an, astelehena, ikastaroen aurkezpena eta dantzalditxo egingo dugu Uarkapeko tabernan, denondako zabalik. Argibide gehiagorako, deitu 675 94 46 09 telefono zenbakira.

KOMUNITATEA GOIENA | HERRIXA DANTZAN
PORTALDI ELKARTEA | ARRASATE

San Migelen omenezko kontzertuak bihar gaztetxean (22:30)

Zuzeneko musika izango da protagonista bihar gaztetxean, 22:30ean hasita. Hiru musika talde gonbidatu ditu AGAKOK, Arrasateko Gazte Alternatiboaren Kofradia Organizatuak: Oñatitik datorren eta herriko Des-kontrol taldearen *Behin eta berriz* disko abestiak jotzen dituen talde bat, Bedoña auzoko Lokuria eta Musakolako Zuen Azkena. Gaztetxearen atzealdetik sartu beharko da eta antolatzaileek aurreratu dute ez dela ordaindu beharko.

AZKENEKO ERAIKINA
ARRASATE / URIBARRI

FINANTZAKETA:

kutxabank

Baldintza berriak

943 31 68 68

www.sukia.com

2x
3x



Logelak



Garaje itxiak



Espazio osagarri batekin



Bista irekiak



Hornitutako sukaldeak



Armairuak

 sukia
 GEDI

Bizikleten konponketa txikiak egiteko eta gurpilak puzteko gune bi jarri dituzte

Gune iraunkorrak dira Bidaurretan eta Otadui zuhaitzian jarritako zerbitzuak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bizikleten gurpilak puzteko eta oinarritzko konponketak egiteko gune bi jarri dituzte erabilgarri Oñatin: bata Bidaurretan dago, eta puzgailu bat dago han; bestea Otadui zuhaitzian dago, eta oinarritzko konponketak egin ahal izateko stand bat jarri dute han. Mugikortasun Astearren barruan jarri ditu Udalak, Oñatiko BaiBike enpresarekin elkarlanean, eta gune iraunkorrak izango dira.

Eroso

Ekipamendu horien instalazioak bi helburu nagusi ditu: Oñatiko bizikleta erabiltzaileei zerbitzu funtzionala ematea, batetik; eta bizikletaren erabileraren aldeko kontzientziazio lana egiten jarraitzea, bestetik.

Oñatin bizikleta egunerokorako gero eta herritar gehiagok erabiltzen dutela ikusita erabaki dute Udalak eta BaiBike enpresak gune horiek jartzea, Mugikortasun Astearrekin bat eginda, bide batez. "Gure ekipamendua instalatu eta probatzen lehen-dabiziko herria da Oñati. Udala hasieratik egon da prest laguntzeko", dio BaiBike enpresako Antton Zubia oñatiarrak.



Bidaurretan dagoen gunean bizikleten gurpilak puzteko gailua dago. | GOIENA

Bizikleta mugimendua Bidaurreta aldean eta Otadui zuhaitzian bereziki nabarmena izaten delako erabaki dute herriko bi puntu horietan jartzea guneak. "Bidaurretako puntuan puzgailu bat dago. Puzgailuak duen zabaleran bizikletaren gurpila kokatu eta bizikleta tente gertzen da, aho-muturra gurpileko balbulan sartu eta gurpila puzteko moduan. Bestea, berriz, oinarritzko konponketak egiteko postu bat da. Goialdean dituen bi besoetan bizikleta kokatuta, gelditu geratuko da. Era erosoan

zintzilik dauden erremintak hartu eta bizikletako edozein puntutan konponketa edo mantentze-lanak egin ahal izateko", azaldu du Zubiak.

Erabilgarri

Zerbitzu biak edozein bizikleta erabiltzailek erabiltzeko dira. "Lotsa barik erabil daitezke, baina bizikleta erabiltzaileendako dira, ez beste edozein konponketa egiteko", argitu gura izan du BaiBike enpresako Antton Zubiak. Guneen mantentze-lanez enpresa hori arduratuko da.

Pilotako finalurrekoak jokoan asteburuan

O.E. | OÑATI

Batera jokatzeko ari diren pilotako bi txapelketetako finalurrekoak jokatu dituzte asteburu honetan. San Migel txapelketaren barruan, zapatuan izango dira partiduak, 18:00etan, kiroldegiko pilotalekuan. Kadete eta gazte mailako partiduak izango dira. Kadeteetan, Biain oñatiarrak Antzuolako Balardirekin jokatuko du. Herri mailako txapelketako finalurrekoak, berriz, gaur, egubakoitza, izango dira, 18:00etan. Finala martitzenean izango da.

Urriaren 5ean hasiko da gripearen kontrako txertaketa kanpaina

O.E. | OÑATI

Urriko lehen astelehenean, urriak 5, hasiko da Osakidetzak urtero egiten duen gripearen aurkako kanpaina.

Auzoetara ere bai

Gripearen aurkako txertoa hartzeko, txanda hartu beharko da Oñatiko osasun etxean. Hala ere, lasaitasunerako dei egin dute anbulatorioetik, kanpainak bi hilabete iraungo du eta. Aurten ere herriko hainbat auzotara joango dira erizainak txertoa ematera. Oraindik ez dute zehaztu noiz eta nora joango diren, baina datozen egunetan egingo

dute hori, eta garaiz jakinaraziko diete auzotarrei.

Gripearen kontrako txertaketa kanpaina 65 urte edo gehiago dutenei eta gaixo kronikoei zuzenduta dago, bereziki. Haurdun dauden emakumeek txertoa hartzea gomendatzen dute Osakidetzako arduradunek, eta osasun arloan diharduten langileek ere bai, ez eurek zuzenean izan ditzaketen konplikazioengatik, baizik eta inguruan dituzten pertsona nagusiak kutsa ditzaketelako.

Oñatin, iaz, 1.850 txerto jarri zituzten, eta aurtengo kopurua antzerakoa izatea espero dute osasun etxeko arduradunek.

NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI



Zientzia eta kitto?

bilbide luzeko lanari esker, zientziak argitasun handia ekarri digu gizakioi. Munduaren sorreraz hitz egin digu. Izadiaren eta izaki bizidunen eboluzioaz jakin dugu. Teknologia eta medikuntzak izugarriko aurrerakada izan dute. Historia, antropologia, psikologia, ekonomia eta beste hainbat arlotan aplikatu dituzte bere teoriak, eta emaitzak lortu ere bai. Miresten dut izan duen garapena, baina gehiegizkoa iruditzen zait errealitate osoa zientziaren neurrietara tolestatzea; errealitatea, zientziaren mugetan bukatuko balitz bezala.

Zer daki zientziak maitasunaz? Eta bizitzaren zentzuaz?

Zer esan diezaieke gerra sufritzen ari diren siriarrei? Nola egiaztatu pertsona orok duen duintasuna? Zer daki ama baten bihotzaz? Eta artelan baten edertasunaz?... Zenbait arlotan, zientziaren erantzunak motzak eta hotzak gertatzen zaizkigu; ezer gutxi esaten digute.

Zientziaz gain, filosofia eta espiritualitatearen bidetik, errealitatearen aurpegi osoa ikustera heldu da gizakia mendeetan zehar. Gaur, alderdi hauek gurean ez dira oso ezagunak eta, nire ustez, ez diegu zor zaien arreta eskaintzen.

Beharbada, umetan jasotako irudiarekin jarraitzen dugu oraindik ere edo telebistaz behin ikusi genuenarekin... Pena da, aberastasun asko galtzen baitugu.

"Pena da, aberastasun asko galtzen baitugu"

Alberto Plazaola 'Aitto'-ren aurkako epaiketaren sententzia martitzenean jakinaraziko dute

Espainiako Auzitegi Nazionalaren prozedura akatsak zirela-eta hilaren 29ra atzeratu zuten Alberto Plazaola Aitto-ren kontrako auziko erabakia. Hilaren 7an atxilotu zuten Aitto, eta 15ean epaitu Pauen. Prozedura akatsak zirela-eta hiru epailez osatutako tribunalak haren aurkako edo aldeko erabakia atzeratzea erabaki zuen. Eta erabaki hori irailaren 29an emango dute, 10:30ean, epaiketara egin zen toki berean, Paueko auzitegian. Aittoren anaia Gerardo Plazaolaren esanetan, familiak badu esperantza sententzia aldekoa izateko: "Baina ikusi arte, jakin ez". Aitto Ziburun bizi da eta astean birritan joaten da Donibane Lohizunera sinatzera.

Kataluniarren hitza babestuko du etzi Gure Esku Dagok

Oñatiko Gure Esku Dago ekimenak deituta, elkarretaratzea egingo dute domekan, 12:00etan, Foruen plazan. *Katalanen erabagixia, katalanen esku* lelopean egingo dute. Horrekin batera, domekan herriko leiho eta balkoietan Kataluniako banderak edo *Gaur hautetsontzia, bihar erabakia* kamisetak eskegitzeko dei egin du Gure Esku Dagok.

Txokolateixian jarriko dituzte salgai bertso saiorako sarrerak

San Migel jaietako bertso saioa urriaren 2an egingo dute, Zubikoan, 22:30ean. Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Mainer Arregi, Andoni Goitia, Maialen Lujanbio eta Agin Laburu izango dira bertsolariak. Sarrerak Txokolateixian jarriko dituzte salgai. Urriaren 4an, berriz, Lizaso eta Zubeldia arituko dira bertsoetan balkoietan bakoira.

Maiatzaren 1a plaza, 2 OÑATI

EKIN AKZIOARI, 3 ETXEBIZITZA BAINO EZ DAUDE!

ATE IREKIJETAKO JARDUNALDIA.

IRAILAK 25-26

OSTIRALA 25 LARUNBATA 26

16:00-20:00

11:00-14:00

16:00-20:00

www.maiatzaren1.com

Azkeneko etxebizitzak
277.000€-tik hasita

BISITA EZAZU PISU PILOTUA

3 LOGELA SOLAIRUAN EDO DUPLEXA



Larrain

Promoción Inmobiliaria

Grupo MOYUA

Errotaburu pasealekua, 1-4. solairua
20018 Donostia (Gipuzkoa)

943 21 33 88 larrain@moyua.com

Denda bakoitza bakarka aurten, urriko desfilean

laz modelo berak eraman zitzakeen bateko arropak eta besteko osagarriak

JULEN IRIONDO | BERGARA

Hori izango da aurten bigarren aldiz egingo den moda desfilearen berritasunetako bat –beste bat, herriko hiru diseinatzaileen arropak ikusi ahal izango direla–: iaz modelo berak eraman zitzaizkeen denda bateko arropak eta beste bateko betaurrekoak, adibidez; aurten, ordea, modelo bakoitzak komertzio bakarreko produktuak erakutsiko ditu. Optika bada, adibidez, arropa nongoa den ez da aipatuko; izan daiteke norberarena ere.

Hori horrela izatea erabaki dute komertzio bakoitzari bere protagonismoa emateko, tarte propioa. 35 inguru izango dira urriaren 17ko desfilean parte hartuko duten herriko dendak, hamar alorretakoak: arropa –haurrena eta nagusiena–, oinetakoak, kirolak, lentzeria...; 120 bat,



Modeloak pasarelan, iazko desfilean. | IMANOL SORIANO

berri, modelo lanetan ibiliko diren pertsonak.

Bergara Bizi ekimenaren barruan, Bedelkar elkarteak Udalen laguntzarekin antolatutako desfilea gauzez izango da aurten, 22:00etan –San Martin plazan–, eta horrek ere desberdinduko du

iazkoarekiko: "Argitasun desberdina... gauza polita gabilta prestatzen", zioen Jo'ka dendako Ainhoa Garitanok; *glamour*-ik ez da falta izango: "Jendeak ikusteko badagoela non erosi".

Gaur inauguratuko dute ofizialki Laboratorium museoa

19:30ean izango da ekitaldia, eta Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko ordezkariak hartuko dute parte, Udalekoekin batera. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko eta zientzia eta hezkuntza alorretako ordezkariak garrantzitsua ere izango du ekitaldiak (museoaren gainekoak, *Puntua*-ren 30. zenbakian).

Arizmendiarietaren gaineko erakusketa ikusgai Santa Marinan

Arizmendiarietaren jaiotza-aren mendeurrenko ekitaldien barruan, erakusketak panel handi batean jasotzen ditu haren bizitzaren eta obraren gainekoak. Erakusketa goizez egongo da ikusgai, urri erdialdera arte. Bergaran baino lehenago, Donostian, Bilbon, Arrasaten eta Arantzazun egon da erakusketa.

Xabalote: batzarra, antzara-joko erraldoia eta 'selfie' lehiaketa

Denen ideiak kontuan hartuta gaztelekua eraikitzekeo batzarra egingo dute gaur, egubakoitza; zapatuan, berriz, taldekako antzara-jokoa. Domekan, gustuko duten zerbaitean *selfie*-a atera eta onena sarituko dute begiraleek. Bestetik, urriaren 24ko *paintball*-erako izena eman daiteke, gaztelekuan eta Jardunen.

Kartzela Zaharreko ikasturteko lehen batzarra gaur

19:00etan izango da, eta lehenengo bilera horretan hasiko dira pentsatzen hasi berri den ikasturterako proiektuen gainean. Kartzela Zaharra irekita dago "norbanako eta kolektibo guztiei, sortzeko, ikasteko, ikusteko, entzuteko, emateko, hartzeko...". Kartzela Zaharra "askatasun gune" bihurtzera dei egin dute.

Langabeentzako bi ikastaro, %100 diruz lagunduta

KOMUNITATEA GOIENA
MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA | BERGARA

Miguel Altuna Institutuan, langabeei zuzendutako eta Lanbideek %100 diruz lagundutako bi ikastaro izango dira urriaren 5etik aurrera.

Txirbil Harroketa Bidezko Mekanizazioa izeneko ikastaroa da bat, 2016ko maiatzaren 4ra bitartean egingo dena, 15:00etatik 20:00etara (guztira, 540 ordu).

Beste ikastaroa da Automatizazio Sistema Industrialen Muntaita eta Mantenua izenekoak, 2016ko apirilaren 4an bukatuko dena; aurrenekoaren ordutegi bera izango du bigarren ikastaro horrek ere (guztira, 390 ordu). Urriaren 5ean hasiko dira biak.

Informazio gehiagorako, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzura jo daiteke, edo Miguel Altuna Institutuan kontsulta egin (943 76 70 49, ikastaroak@imaltuna.com edo www.imaltuna.com).

Urriaren 2ra arte eman daiteke izena mintzapraktiketarako

J.I. | BERGARA

Aurten ere egingo da Bergaran Hizkuntza Taldeen egitasmoa: ingelesa, frantsesa, alemana... praktikatzeko taldeak dira. "Normalean, hizkuntzak ikasten ari direnek hizkuntza hori praktikatzeko zailtasunak izaten dituztelako" antolatzen du Udalak ekimen hori.

Mintzakideak astean behin eta ordubetez elkartuko dira; autonomoak izango dira, ez da irakaslerik egongo akatsak zuzentzeko, ezta mintzapraktika bideratzeko ere.

Taldeen aurkezpen bilera Irizar jauregian izango da urriaren 7an, asteazkena, 18:00etan. Taldekideek elkar ezagutuko

dute, eta gero, eurek erabakiko dute non elkartu nahi duten: taberna batean, kalean...

Talde bakoitzak astero arduradun bat izendatuko du, hurrengo asterako eztabaidarako gai bat hautatu eta taldekideei aurkezteko –egunkariko albiste bat, gai orokor bat...–. Horrela, arduradun horrek gai horrekin lotutako hiztegi espezifikoa, esamoldeak... landuko ditu, taldekideei aurkezpena egin ahal izateko.

Ekimenerako izena emateko epea urriaren 2ra artekoa izango da; udaletxeko Kultura edo Hezkuntza zerbitzuetan egin behar da, eta telefonoz ere egin daiteke.

Gaur hasi, asteburuan festa, eta asteartez San Migel, Angiozarren

J.I. | BERGARA

Danborradarekin, gaur –egubakoitza– 19:00etan hasiko dira jaiak. Ikurrina jarri eta kanpaiekin, patata-tortilla lehiaketaren eta txistor-pintxo-potearen txanda izango da gero. 23:00etan, herriko gazteen arteko pilota partiduak izango dira, eta gauerdian hasita Javi Sound. 01:00etan, galtzontzillo, kulero eta tanga lasterketa.

Zapatu eguerdian haurrentzako jolasak egingo dituzte plazan, eta triki-txikiteoa ondoren –13:00–, buruhandiek. Kantu-bazkaria 14:30ean, eta mus txapelketa Pagomendin

18:00etan. Eta gauari musika eta kolorea jartzeko, Obaneuke taldea eta argi festa.

Domekan, 12:00etan, alkate aldaketa, elizatean; azken urtean jaiotakoei ongietorria, argazki erakusketa –Arbaskan– eta triki-poteoa, ondoren. 17:00etan umeentzat herri kirolak, eta nagusien arteko erronka.

Martitzenean, azkenik, 11:00etan, meza eta Bergarako erretiratuen abesbatza. Ondoren, erretiratuentzako luntxa, eta 16:00etan puzgarriak. 19:00etan, briska txapelketa eta txokolat-jana izango dira, eta 20:00etan San Migelen zeruratzea.

'EH Bilgune' irekia egingo du koalizio abertzaleak asteartean

Bergarako EH Bilduk 19:00etarako jarri du hitzordua –hilaren 29an–, Irizar jauregian. Udal mailako hainbat gai jorratuko dituzte bertan, eta Madrilgo Gorteetarako hauteskundearen gainean ere jardungo dute: Amaiurren balantzea, legegintzaldi berrirako planteamendua, hautagaiak...

Uxuera irteera egingo dute San Joxepekoek urriaren 6an

08:30an irtengo dira, autobus geltokitik. Uxuera joan eta bertan herria eta gaztelua bisitatuko dituzte, besteak beste. Bazkaria, berriz, Azagrako Venecia hostalean izango da, eta bingoa eta dantzaldia izango dituzte bazkalosteant. Irteeraren prezioa 35 euro da.

Bueltan gaude!

Etor zaitez!

Janaria ere etxera eramaten dugu

Etxez etxeko zerbitzua: Bergara: +1,80 € Inguruko herriak: + 2 €

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA



Iñaki Ugarteburu eta Sabino Azkarate, padel pista. | J.I.



Kirola Kalera-ren beste edizio bateko irudia. | GOIENA

Padel pista urriaren 5etik aurrera egongo da erabilgarri

Inoizko herritar gehien ibiliko da Agorrosingo ikastaroetan kurtso berrian: 1.151

JULEN IRIONDO | BERGARA

Hainbat gai jorratu dituzte astean Udaleko Kirol Sailak antolatutako agerraldian. Udako denboraldiari dagokionez, ekainaren 12tik irailaren 20ra 90.000 erabiltzaile izan ditu Agorrosinek. Inoizko abonatu kopuru handiena izatera ere iritsi ziren uztailean: 5.068. Jende kopuru handiak, ordea, eragozpenak ere sorrarazi ditu. Bi egunetan ordu erdiz eta beste bitan ordu eta erdiz itxi egin behar izan zuten kanpoko igerilekurako sarbidea, gehienezko erabiltzaile kopurura iritsita. Seguritasunagatik, bete beharreko neurria dela eta aurrerantzean ere horrela funtzionatuko dutela adierazi du Udaleko Kirol teknikari Iñaki Ugarteburuk.

Uda amaituta, ikasturte berria, ikastaro eta ekintzetan inoizko erabiltzaile kopuru handienarekin hasiko du Agorrosinek: 1.151. Jardueren ardura BPXport enpresak izango du beste lau urtez, kontratua berrituta; modalitate berriak iragarri dituzte: *crossfit*-a eta *jump*-a.

Bestetik, fitness eta spinning gelak berregokitu egin dituzte, eta padel pista urriaren 5erako egongo da erabilgarri; ordu finkoak hartzeko eskaera egitea badago. Azkenik, hamakak jasotzeko dei egin zien Ugarteburuk oraindik igerilekuko biltegian dituztenei –hilaren 30era arte.

Kirola Kalera, beste behin, domekan

Seminarioan, Ibargarain eta Fraiskozurin ospatuko da. 10:30ean hasita haur-olinpiadak egingo dituzte, eta 12:00ak eta 13:15ak artean hainbat modalitate praktikatzeko aukera izango dute herritarrek: piraguismoa da edizio honetako berrietasuna. 13:30ean San Martin plazan hasita, berriz, *Euskaraz bizi nahi dut* martxa egingo dute, korrika, bizikletaz eta patinetan.

NIRE USTEZ

ANDER BOLIBAR



Whatsapp taldeetako administratzaileak gara

Eguneroko bizitzan naturaltasunez txertatu ditugun teknologia berriek herrigintza ere harrapatu dute. Arraroa da Whatsapp talde gabeko egitasmorik aurkitzea inguruan.

Horiek zabaltzen dizkiguten aukerak izugarriak dira; taldeko kide guztienganako komunikazio zuzena, talde sentipena, elementu multimedien erabilera, parte-hartze maila ezberdinen arteko bizi-kidetza, larrialdietarako urrezko bozgorailua eta berehalakotasuna. Orain dela gutxi arte gure esku ez zegoen itsaso berri bat.

Tresna horiek, ordea, gure hausnarketen ondorioz inplementatzen dira, edo taldean aztertu gabeko inertzia bulkadaren fruitu dira?

Eguneroko informazio gaindosian denok behar dugu arnasaldia, eta astean ekimen bati hiru ordu eskaintzeko prest dagoena, agian ez dago prest egunero 50 mezu irakurtzeko. 24 orduko *on line* militantzia atomizatuak jende asko erre dezake.

Erabakigune naturalak sarean lausotzen dira, hatz azkarrenaren mesedetan. Kontrol soziala normalizatu eta konpromiso mailakatua zailtzen da. Botere harreman berriak eraikitzen dira, adin, genero, ezagutza teknologiko eta egoera sozioekonomikoen arabera.

Tasun eta kerien artean, zer egin? Izugarriko potentziala duten tresnak ditugu eskura, garrantzitsuena talde bakoitzak erabilera zehaztu eta balantza osatzea da.

Alai Taldea Bilbo Kantuan ekimenean egongo da

J.I. | BERGARA

Bihar, zapatua, egingo da Bilbo Kantuan, Bizkaiko hiriburuan, eta bertan parte hartuko dutenen artean dago Bergarako Alai Taldea. Bilbo Kantuan ekimenaren ekitaldi nagusia 20:00etan izango da, Euskalduna jauregian; aurrez, Bilboko kaleak kantuz girotzeko gonbidapena da, ordea, bergararrek –beste talde batzuekin batera– jaso dutena.

11:30erako elkarte batean egin dute hitzordua, gosaltzeko, kantuan txikiteora ateratzeko gero. Bazkalostean, berriz, eliza batean egingo dute kantuan, beste otxote batzuekin batera. Hiru abesti kantatuko ditu talde bakoitzak, kontzertua osatuta. "Otxote giro hori berreskuratu nahi dute, eta erronka horrekin goaz hara", dio Xabier Olabarria zuzendariak.

Agorrosin prest ez, eta Ipintzan jokatu dute etxeko lehena

J.I. | BERGARA

Ligako etxeko lehen partidua Ipintzan jokatu du nagusien futbol taldeak –bihar, zapatua, 16:30ean, Tolosaren aurka–; arrazoia, abuztu amaieran zelai zati bat hondoratu ondoren, Agorrosin oraindik ez dagoela prest –bigarrenenerako egotea espero dute klubeko arduradunek–, nahiz eta zuloa harriz eta lurrez bete zuten eta belarra atera den dagoeneko.

Futbol zelai azpiko lurpeko egitura ezegonkorra da, eta tarteka gertatzen da zelai honedoratzea. Arazoak behin betiko konponbide zaila duenez eta konponketak, gainera, garestiak izan ohi direnez, Agorrosin

futbol zelaiaren gaineko elkarriketak hasi nahi ditu klubak Udalarekin: belar artifiziala jartzeko aukera edo jabegoa aldatzearena egongo lirarteke, besteak beste, mahai gainean. Gaur egun, Agorrosin futbol zelaiak Bergara Kirol Elkartearen jabegoa da.

Taldeak aurkezpena bihar

Bestetik, Bergara Kirol Elkartearen denboraldi honetako hamalau taldeen aurkezpena egingo dute bihar, 19:30ean, San Martin plazan. Federatutako 300dik gora jokalaririk dituzten Bergarak mutilen hamar talde eta nesken lautan; eta horiez gain, futbol eskolakoak.



Irail hasierako argazkia; dagoeneko berde dago berriz ere. | ENEKO AZKARATE

OHARRAK

IRAKURKETA KLUBA

Aurtengo ikasturterako eman daiteke izena dagoeneko, liburutegian edo *liburutegia@bergara.eus* helbidean. Euskarazko eta gaztelarazko taldeak daude; solasaldiak, hilean behin.

19:00etan, Jexux Larretxearekin.

AIRE LIBREKO LEHIAKETA

Simon Arrieta lehiaketako koa droak ikusgai daude udaletxean hilaren 30a bitartean.

AGORROSINEKO TABERNA

Taberna-jatetxea ustiatzeko eskaintza Udalean aurkezteko epea urriaren 1a artekoa da.

HITZALDIA: MAKROBIOTIKA

Gaur, egubakoitza, izango da hitzaldia, Irizar jauregian,

Bergara Hiria xake txapelketan, Kantabriara taldekako saria eta Perura nazioartekoarena

Aurreko domekan jokatuak txapelketan hogeitau klubek hartu zuten parte taldekakoan –euskarazko zirkuitukoak–. Salcedo klubekoak izan ziren nagusi, 25,5 punturekin; bigarren, Iruñeko San Juan, bi puntura; eta hirugarren, Bilboko Centro Conteneo, 22,5 punturekin. Nazioarteko txapelketan, berriz, Miguel Muñoz izan zen garaile, 6,5 puntu eginda. Mikel Huerga nafarra eta David Astasio arabarra izan ziren bigarren eta hirugarren, 5,5 punturekin biak. 100 parte-hartzaile izan ziren nazioartekoan.

Pol-Polekin Gredos-Guadarramara eta Irukerutzetara urriko lehen bi asteburuetan

Urriaren 4an izango da lehen irteera, Pol-Polen gazte taldeak antolatuta: Irukerutzetara izango da, sei-zazpi ordukoa, 07:30ean frontoitik abiatuta. Bertara joateko ez da ezer ordaindu behar. Bestetik, beteranoen taldekoek Gredos-Guadarramara egingo dute hurrengo irteera, asteburu bat geroago. Hiru eguneko irteera izango da, eta gauak Avilako hotel batean egingo dituzte. Bai baterako bai besterako izena Pol-Polen bulegoan eman behar da: astelehen, egun edo egubakoitzetan, 19:00ak eta 20:00ak artean.

'Kaleratzerik gabeko herri' izendatuko dute Aretxabaleta

Kaleratzeak Stop plataformaren mozioa onartu zuen udalbatzak martitzenean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Lau mozio eta adierazpen instituzional bat onartu zituen udalbatzak martitzenean egindako ohiko osoko bilkuran. Gainera, Mankomunitateko batzordeetara ordezkaririk izendatu zituzten.

Lau kasu Aretxabaletan

Kaleratzeak Stop plataformako kideek jakinarazi zieten udalbatzako kideei arazoa "larria" dela: "Udala herritarrengandik gertuen dagoen erakundea izanik, kontuztara ahalegin guztia egin behako luke". Aretxabaletan dagoeneko lau kasu izan direla esan zuten: "Eta orain esku artean duguna benetan larria da". Mozioarekin eskatu zuten, adibidez, *Kaleratzerik gabeko herri* izendatzea Aretxabaletan; eta beharrezko diren baliabide eta neurri guztiak erabiltzea kaleratzeak geldiarazteko. Onartu egin zuten mozioa, Iraba-

zi taldeko zinegotziaren eta EH Bilduko alderdi boteoekin. EA-Jko zinegotziak eta Alderdi Sozialistakoa abstenitu egin ziren, "iazatik protokolo bat dagoelako".

Aizkorri-Aratz parkea

Herriko hainbat lurjabe Aizkorri-Aratz parkea kontserbazio bereziko eremu izendatzeko kudeaketa planaren gaineko mozioa aurkeztu zuten, eta aho batez onartu udalbatzak. Besteak beste, hiru eskaera egin zituzten: egungo kudeaketa plana atzera botatzea eta berria egitea; eremu horretan lurrak dituzten jabeek kudeaketa organoetan ordezkaritza izatea; eta azkenik, lursailen ustiapenetik bizi direnek konpentsazio ekonomiko izatea.

Siriako errefuxiatuen gaineko mozioa ere aho batez onartu zuten. Hala, Jaurlaritzarekin, Aldundiarekin, hirugarren sektorearekin

eta beste udal batzuekin lan egiteko konpromisoa hartu zuten, "errefuxiatuak hartzeko tokiko sare bat egituratzeko". Lantalde bat sortuko dutela agindu zuten.

Eta onartu zuten laugarren mozioa izan zen irailaren 27an Katalunian egingo diren hauteskundearen gainekoa.

Emakumeen Martxarekin bat

EH Bilduk Emakumeen Mundu Martxarekin bat egiteko adierazpen instituzionala aurkeztu zuen, eta, besteak beste, eskatu indarkeriari aurre egiteko ekintza protokoloak martxan jartzea; zainzaileen bizitza hobetzeko lan egitea; eta emakumeen jabeak sustatzea. EH Bilduko eta Irabaziko alderdi boteoekin onartu zuten adierazpena.

Herrian sortu duten Emakume Txokoaren gainean ere eztabaiatu zuten udalbatzako kideek.

Kultura Aste arrakastatsua Basotxon

Basotxok antolatutako Kultura Asteak erretiratu mordo batu ditu bai hitzaldietan, bai ikuskizunetan. Bihar, kantuan jardungo dute herriko kaleetan (11:30); eta domekan agurtuko dute astea, dokean jokatura (11:00).



MIRARI ALTUBE

Bizikleta asko lehenengo azokan

Udal teknikariek material asko jaso zuten lehenengo egindako bigarren eskuko bizikleta azokan; baita saldu ere. Ume eta guraso mordoak elkartu ziren eguaztenezan plazan, eta kuxkuxean jardun ostean erosi ere egin zuten hainbatek.



M.A.

Kontsumo taldeko kideak azokan egongo dira argibideak ematen

Aretxabaletako kontsumo taldeak postua jarriko du bihar, zapatua, egingo den azoka ekologikoan. Taldearen gaineko informazioa emango diete herritarrei, baita izena emateko aukera eskaini ere. Hara hurbildu ezin duenarentzat, hona hemen taldearen kontaktua: atxabaltakontsumotaldea@yahoo.es.

Nerea Mendizabalek gidatutako guraso eskola izango da Kuku Mikun

Kuku Miku elkarteak guraso eskola jarriko du abian Nerea Mendizabal adituarekin. Hilero, martitzen batean elkartuko dira (17:45-19:45), urriaren 13an hasita. Hamar eta hamabost lagun artean gura dituzte taldea osatzeko. Argibideak eskatzeko eta izena emateko elkartera jo behar da (kukumikuelkarte@gmail.com); azken eguna urriaren 5a da.

Argazkilaritza eta biodantza ikastaroak urrian Loramendin

Loramendi elkarteak kultura taldeak ikastaro bi antolatu ditu urrirako: biodantza, eguaztenez; eta argazkilaritza, eguaztenez. Oihana Barrutiak emango ditu biodantza eskolak, eta Ekaitz Filarmendik argazkien gainekoa. Izen-ematea zabalik dago, eta argibideak eskatzeko Loramendira jo behar da.

NIRE USTEZ

JOSU ZALOÑA



Bidaia hobeto dastatzeko

GOIENARI begiratu bota diodan honetan, atseginez ikusi dut Zigor Lasagabasterri eginiko elkarrizketa. Bertan, kontatu du nola egin duten berak eta bikotekideak bi urte inguruko bidaia, bizikletari eraginez nola ibili diren Espainia hegoaldean hasi, eta Europa igarota, Asian barrena. Nabari zaio bidaia izugarri gozatu dutela, akaso, ez delako behar bizikleta bat baino askoz gehiago bidaian aurrera egiteko.

Aurrekoan ere, Urkulutik zehar bizikletekin aldarrikatu nahi izan zuten Europako Mugi-

kortasun Astea Aretxabaletan. Zer den kontua, Txinaraino bizikletan joatea bizi-gozena den honetan, kotxez leku guztietara joateko joerak hartuta tematuta gabiltza: haurrak eskolara eramateko, zein erosketak egiteko, edota lanera bakarrik noiznahi eta nahierara joan ahal izateko... Hartara, kontzienteago beharko genuke egunerokotasunean batetik bestera mugitzen garen moduan.

Zalantzarik ez, bizikletari gehiago eraginez gero, hobeto dastatu daiteke bidaia, eta, nik pentsa, baita bizitza bera ere. Bada, ea horretaz ohartzen naizen autoaren giltza poltsikoan sartzen dudana hurrengoan.

"Nabari zaio bidaia izugarri gozatu dutela"

'Atxabaltako kuentistek' hasiko dute haur liburutegiko egitaraua

Eguaztenezan kontatuko dituzte ipuinak, 17:30ean

M.A. | ARETXABALETAKO

Haur liburutegiak udazkeneko egitaraua gertatu du, eta datorren astean hasi eta abendu erdira bitartean hainbat ekitaldi izango dira.

Hasiera *Atxabaltako kuentistek* emango dituzte datorren eguaztenezan, hilak 30, 17:30ean; Nerea Egurzak eta Jone Ojeak ipuinak kontatuko dizkiete, txiki txokoan, 7 urtetik gorakoei. "Joan den udaberrian ipuinak kontatzen ikasteko hainbat saio antolatu zituen Udalak. Eta orain, han parte hartu zutenek ipuin kontalari jardungo dute", jakinarazi du Gazteria teknikari Maider Etxanizek.

Yolanda Arrietarekin saioa

Urriaren 3an, zapatua, helduendako saioa egingo dute Yolanda Arrieta idazlearekin. Irakurzetan bultzatzea helburu duen *Bularretik mintzora* egitasmo barruko saioa da, eta

Ibilbide bat liburutegian barrena izenarekin erakutsiko dute umeendako liburuak non dauden, zein irizpide erabili liburu bat aukeratzeko, eta beste hainbat kontu. 10:00etatik 13:00etara da saioa, liburutegian, eta izena emateko azken eguna gaur da, irailak 25; hona bideak: haurliburutegia@aretxabaleta.eus eta 943 08 10 01. Gurasoak ez ezik, interesa duen edozein gertura daitekeela jakinarazi dute antolatzaileek.

Marraski lehiaketa

Urriaren 10ean Vanessa Gonzalez ipuin kontalari arrasatearrak jardungo du kontu-kontari; azaroaren 14an, Eñaut Gorbeak; eta abenduaren 12an Pantzat Teatro taldeak *Amilami* ikuskizuna eskainiko du.

Urriaren 23tik azaroaren 27ra bitartean, ostera, irakurpunterako marraski lehiaketa deituko dute 12 eta 16 urte bitartekoendako.

Errasti

ONDO PASAU SANMIGELETAN!

aroztegia

Ateak • Leihoak • Tarimak • Parket flotatzailea
Horma-armairuak • Edozein motatako lanak

Aho batez onartu dute hondakinak batzeko sistema aukeratzeko herri galdeketa egitea

Herri galdeketa, hiru aukera izango dituzte herritarrek: atez atekoa, bosgarren edukiontzia eta mistoa

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Martitzenean egindako iraileko ohiko osoko bilkuran hainbat gai jorratu zituzten. Aipagarriena izan zen hondakinak selektiboki biltzeko sistema aukeratzeko herri galdeketa egitea aho batez erabaki zutela. Hasiera baten galdeketa planteatutako aukerak bi izango baziren ere, azkenean, eskoriatzarrek hiru aukera izango dituzte herri galdeketa.

Lehen aukera atez atekoa izango da; bigarrena, bosgarren edukiontzia; eta hirugarren aukera, mistoa –edukiontzi kolektiboa eta indibiduala–. Galderak zeintzuk izango diren onartuta, urratsak egiten hasiko direla azaldu du Joserra Zubizarreta alkateak. Bestalde, EH Bilduko Aitor Zubizarreta zinegotziak hauxe esan zuen: "Herri galdeketa bera aprobexatu behar da beste gai batzuekin egin daitezkeen kontsultak arautzeko".

Hitz eginda, mozioa onartuta

Bestalde, uztaileko osoko bilkuran atzera bota zen arren, moldaketa batzuk egin ostean udalbatzak onartu egin zuen Eskoriatzako Presoen Lagunak



Ohiko osoko bilkuran herritar asko batu zen, udalbatzaz gain. | IMANOL BELOKI

Taldearen eskariz EH Bilduk aurkeztutako mozioa. Elizateetako Iñaki Kerexeta zinegotzia abstenitu egin zen, eta gainerako guztiek alde bozkatu zuten, baita, uztailean ez bezala, EAJkoek ere. Arrazoi hau azaldu zuen alkateak mozioa onartzearen inguruan: "Gertatu dena da egon egin garela, hitz egin dugula, eta gauzak adostu ditugula".

Siriako errefuxiatuei lotutako mozio bat ere aurkeztu zuten EAJ eta Irabazi alderdiek, eta Eskoriatzako udalbatzak onartu egin zuen. Errefuxiatuak hartzea eta haiei laguntzeko aterpe hirien sarean sartzea eskatzen du mozio horrek.

Taldea eratuta, lurjabeak pozik

Beste hainbat punturen artean, aipatzekoa izan zen Aizkorri-Aratz parkea kontserbazio bereziko eremu izendatzeko egungo kudeaketa planari buruzko mozioa. Aho batez onartu zuten Eskoriatzako Elizateen Elkarteak eremu horretako lurjabe eta erabiltzaileen izenean aurkeztu zuen mozioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, orain, bi ordezkari bideratu ditu lurjabeekin lan egiteko, eta haiek elkarte bat eratu dute, Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Lurjabe eta Erabiltzaile Gipuzkoarren Elkartearen izenekoak. Taldeko Juan Karlos Beloki kidearen esanetan: "Elkarteak lokala behar du administrazio lanak egiteko, eta, eskaera onartuta, egoitza Eskoriatzan izango dugu".

Kultura arloko diru laguntzak eskatzeko epea amaitzear dago

I.B | ESKORIATZA

Irailaren 30ean, eguaztena, amaituko da kultura jarduerak eta ekintzetarako diru laguntza eskatzeko epea. Hala, Eskoriatzako irabazi asmorik gabeko talde, elkarte edo norbanakoek 2015ean garatuko dituzten programen ezaugarriak eta aurrekontua aurkeztu beharko dituzte irizpide batzuen arabera.

Jarduera horiek Udako Kultura batzordeak dituen helburuekin bat etorri beharko dute; hau da, udalerrian kalitatezko kultura jarduerak eskaintzea eta Eskoriatzako herritarren eta gainerako kultura elkarten arteko lankidetzaren bultzatzea.

Herritar guztiei zuzenduta egon beharko dute ekintzek, eta herrian bertan egin beharko dira. Kultura jarduerak mota guztietakoak izan daitezke: dantza, antzerkia, folklorea, arte plastikoak, ikus-entzunezkoak...

Eskaera tramitatzen

Astelehenean ostiralera 09:00etatik 14:30era aurkeztu ahal izango dira diru laguntzak, irailaren 30a baino lehen, udaletxeko harrean, edo, bestela, *Eskoriatza.eus* webgunean. Hain zuzen ere, eskaerak egiteko irizpide batzuk bete beharko dira, Eskoriatzako webgunean adierazten den moduan.



Olazar erretiratuen elkarteak, egindako bidai batean. | OLAZAR

Erretiratuek egun osoko egitaraua prestatu dute domekarako

I.B | ESKORIATZA

Egun osoko egitaraua prestatu dute Eskoriatzako Olazar elkarte erretiratuek domekarako. 12:30ean meza izango dute, eta gero, herriko plazaren inguruan batuko dira salda beroa hartzeko.

14:00etan, bazkaria izango dute Udal Pilotalekuan, eta elkarte zaharrenek lore sorta eta opariak jasoko dituzte Udalaren eskutik. 97 urteko Pablo Ganboa eta 92 urteko Elena San Vicente izango dira omenduak. Eguna amaitzeko, berriz, dantzaldia izango dute.

Irailaren 29an bidaietan

Irailaren 29tik urriaren 5era bidaiak egingo dute Olazar elkar-

tekoek. Bidaia horretan hainbat txango egingo dituzte Gaztelako zenbait herri eta hiritan. Besteak beste, Segovia, Aranjuez, Toledo, Cuenca, Madril...

Ostatu, berriz, Alcalá de Henaresko Badel de Alcalá de Henares hotelean hartuko dute, herriaren erdigunean, Cervantes plazaren ondoan.

Mugikortasunarekin bat

Aste osoan, egunero, Eskoriatzako ikastetxeetako haurrek kalera atera dituzte zaharren egoitzako hainbat erretiratu. Zubiarte, Huzezi, Ibarraundi, liburutegia eta Zaldibar aretoa ikustera atera dituzte, eta, bide batez, une eder bat pasatu dute elkarrekin.

Ur depositu zaharra konpontzeko auzolana egingo dute, familian

Eskoriatzako ur depositu zaharra gazteen jolastoki izan da urte askoan. Gaur egun, aldiz, ez dago egoera onean, eta leku atsegina eta jolasteko eremua berreskuratu nahi dute. Hezikuntza Foroak –Luis Ezeizako eta Arizmendiko gurasoak eta Eskoriatzako Udala– antolatuta, 16:00etan irtengo dira plazatik haurrak, gurasoekin batera. Han, txabolak naturako elementuekin eraikiko dituzte. Ekintzan parte hartzeko ezinbestekoa izango da arropa zaharrak eroatea.

Hankamotxen eta Lekaixokan izen-ematea zabalik

Eskoriatzako Hankamotx eta Aretxabaletako Lekaixoka bertso-eskolek ikasturte berriari hasiera emango diote. Horretarako, bi herriotako ikastetxeetara gerturatu dira bertso-eskolen koordinatzaileak gaztetxoak animatzera. Astean ordubeteko eskola izango dute, eta, horrez gain, urtean zehar hainbat ekitaldi antolatuko dituzte –bertso topaketak, saio motzak, bertso eskolen eguna...–. Ordutegia, berriz, izena ematen duten gaztetxoek erabakiko dute.



IMANOL BELOKI

Auzo-alkateak izendatu dituzte

Eskoriatzako zazpi elizateetan eta Lete auzoan ordezkariak izendatu dituzte. Elizate bakoitzean ateratako emaitzak alkatetzari jakinarazi dizkio eta iraileko osoko bilkuran kargua hartu dute ordezkari guztiek.

SANMIGELAK 2015

OÑATI
JAIETAN!

Iaz, umeen
danborradan bi
neskatila Santa
Marina plazan
kalejiran irten
aurretik.



- ▶ Danborrada
- ▶ Nazioarteko Artzain-txakur Txapelketa
- ▶ Aitor Ugarte Oñatiko Udal Musika Bandako kideari elkarizketa
- ▶ Euskal garagardoa txosnagunean
- ▶ Beldur Barik guneak
- ▶ Tirolina
- ▶ Musika emanaldiak
- + JAIETAKO EGITARAU OSOA

IMANOL SORIANO

ONDO PASAU SANMIGELAK!



gelatu s.l.

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxa: 943 78 15 51

BAINUGELAK
ETA MANPARAK

AGURRA



MIKEL BIAIN
Oñatiko alkatea

Danok gozatu!

Oñatiarrok badakogu urte gehixena jaixetan pasaitten dogun famia, eta, neurri baten, egixa be bada. Aurten be, famiari ohore egiñaz, ongietorrik beruena egingo dostegu jai nagusixai.

Jaixak danon gozamenerako egitten dira, emakuma nahiz gizakumiandako. Baiña hori horrela izan dadin, konpartiu degigun egun horreittan be etxeko eta zaintzako lanak.

Jarrera sexista edo sexu erasorik bageko jaixak izan dittezela, jaixetan edozerk ez dauelako balixo.

Oñatiko jaixak errespetu haundikuak izan dittezela, emakumezkuak beldur barik jaixak bizitzeko dakoin eskubidia zainduaz guztion artian; ezezkuak betik ezezkuak dalako, bizi jaixak begirunez.

Eta, zela ez, ba! Herriko jaixak gure artian pasaitterik eukiko ez daueñiak be gogora ekarri gura nittuke: betiko itzi gauein herritar maittiak, gaixorik, etxetik kanpo lanian edota ikasten, ehunka kilometrorra giltzapeian preso hartuta dagozenak... besarkada bero bana danondako.

EGUBAKOITZA

25

17:00 Txosnagunearen MUNTAIA HERRIKOIA.

17:30 Pilota txapelketako finalurrekoa, txosnaguneak antolatuta, plazako pilotalekuan. HITZNABARMEN.

19:30 ELKARRETARATZEA plazan, "Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde".

ZAPATUA

26

EGUN MOREA

10:00 BINAKAKO FRONTEfemiNISTa TXAPELKETA, plazako pilotalekuan.

14:30 HERRI BAZKARIA, txosnagunean.

Ondoren BINGO FESTA.

16:30 San Migeletako 7. MUS TXAPELKETA, kiroldegian. Izen-ematea: 15:30-16:15.

18:00 JOKO POTEOA, Txosna batzordeak antolatuta, kaleetan zehar.

18:00 SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETAKO FINALERDIAK, Gipuzkoako kadete eta gazte mailetako pilotari onenen artean, Aloña Mendi Kirol Elkartea Pilota Sailak antolatuta, Zubikoa pilotalekuan.

18:00 HAURREN DANBORRADA plazan, Musika Bandak lagunduta. Eguraldi txarra eginez gero, irailaren 27an egingo da.

20:00 BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK, Jose de Azpiazu Musika Eskolako trikiti-pandero taldeak lagunduta.

22:00 BALA taldearen kontzertua; ondoren, KAZEROLADA; eta jarraian, AFU eta DJ GURE BESTA, txosnagunean.

JAIETAKO EGITARAUA

DOMEKA

27

09:00 Txistulari bandaren GOIZ-ERESIA.

Goizean zehar Aire libreko 13. MARGO-LEHIAKETA. 14:30ean, kultur etxean, sari-banaketa.

10:30 Nazioarteko 56. ARTZAIN-TXAKURREN TREBETASUN LEHIAKETA, Santa Lutzian.

12:00 Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA. Ondoren, 13:00etan KONTZERTUA plazan. Inaxio Ibarrodok zuzenduta eta honako egitarau honekin:

► *Galas imperiales* (Pasodoblea) Manuel Gómez de Arriaga.

► *An all american* (Suitea) Robert Macray.

► *Lawrence of Arabia* (filmeko gaia) Maurice Jarre.

► *La gran vía* (zarzuela) Chueca eta Valverde.

13:30 IBILGAILU KLASIKOEN KARABANA, herriko kaleetan. Ondoren, plazan.

16:00 BOLA-JOKO TXAPELKETA, San Martinen.

17:00 ARKU TIRO ERAKUSTALDIA, San Martinen.

18:00 Erraldoi eta buruhandien KONPARTSAK, kaleetan zehar.

18:00 Aire libreko 13. MARGO LEHIAKETAKO ETA MARGO-İKASTAROTAKO

İKASLEEN LANEN ERAKUSKETA, kultur etxeko erakusketa-gelan. Urriaren 11ra arte. Ordutegia: asteleheneetik igandera, 18:00-20:00.

19:00 'IRUNBERRI 25. URTEURRENA' diskoaren aurkezpen-kontzertua, txosnagunean.

ASTELEHENA

28

SAN MIGEL AOZARATZA EGUNA

09:30 'OÑATI BEGI BISTAN' ARGAZKI ERAKUSKETA, plazako arkupeetan, urriaren 5era arte. Jaien amaieran lan guztiak zozketatuko dira.

18:00 SARDINA FRESKUE haurrentzako ikuskizuna, plazan.

19:00 TRIKITXARANGA herriko kaleetan, Txosna batzordeak antolatuta.

19:00 Euskal Herriko GARAGARDO DASTAKETA, txosnagunean.

19:00 BELDUR BARIK GUNEA, Unibertsitate etorbidean.

20:00 TXANTXIKUREN JAITSIERA, jaietako hasiera emateko.

20:05 PINTXO-JATEA, txosnagunean.

20:15 DJ AMAIA TXINTXURRETA, plazan.

23:00 DANBORRADA NAGUSIA herriko kaleetan zehar. Amaiera plazan izango da.

24:00 Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideak errespetatu lelopean MANIFESTAZIOA, plazatik abiatuta.

Ondoren DISKO FESTA, plazan.

24:00 TESTINGa txosnagunean, Ailaket elkartearekin.

02:00 KARAOKEA, txosnagunean.

MARTITZENA

29

SAN MIGEL EGUNA

08:00 ARGAZKI ERRALDOIA gaupasero eta mendizaleekin, txosnagunean.

08:05 TXOKOLATE-JANA, txosnagunean.

09:00 Txistulari bandaren GOIZ-ERESIA.

11:00 Herri mailako PLATER TIROA, Txopekua tiro zelaian (armak edukitzeko baimena eta Federazioaren lizentzia eskatuko da).

11:00 12 urtetik gorakoentzako ABENTURA PARKEA (tirolina, ohe elastikoak...), txosnagunean. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

12:00 MEZA NAGUSIA San Migel parrokan, koruak abestuta.

12:00 Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.

12:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

13:00 Oñatiko Udal Musika Bandaren KALEJIRA. Ondoren, 13:00etan KONTZERTUA plazan. Inaxio Ibarrodok zuzenduta eta honako egitarau honekin:

► *A San Miquel* (Martxa) Refice.

► *Donostia* (Euskal pasodoblea) Peña eta Goñi.

► *Country and Western*. Harold L. Walters.

► *Beatles collection*. Lennon/MC Cartney.

► *Aires Vascongados* (Pot-pourria) Carlos Aranburu.

ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

BALORAZIO PACKA:

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

BABES PACKA:

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulketara 500 euro izango da, gehienez.

ASISTENTZIA PACKA

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezkotako autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

FLEXIFRANKIZIA

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharriz izaten ez bada.

GAINERA...

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 30 09
Faxa: 943 78 31 36
Polts.: 620 77 66 20

14:00 12 urtetik gorako GAZTETXOENTZAKO BAZKARIA, txosnagunean. Txartelak salgai 2 eurotan gaztelekuan. Bazkarian ez da alkoholdun edaririk banatuko eta giroten trikitalariak egongo dira. Bazkalostean, HILTAILEAREN BILA JOKOA (KLUEDO).

16:30 Gaztetxoentzako KARAOKEA.

17:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

19:30 LOS GALERNA taldearen kontzertua, Atzeko kalean.

23:00 ESNE BELTZA taldearen kontzertua, plazan.

EGUAZTENA

30

TXANTXIKI EGUNA

11:00 Haur, gaztetxo eta gurasoentzako EKITALDI BEREZIAK (jolasak, tailerrak, lehiaketak...), plazan.

12:00 ATSOLOERRA: urtean zehar jaiotako HAURREI ONGIETORRIA, Udaletxeko batzar areto nagusian, Jose de Azpiazu Musika Eskolako musikaz girotua.

13:00 JOTAK, ALMA NAVARRA taldearekin, Lazarraga jauregiko lorategian.

14:00 *Euskal Presoak euskal pilotalekuetara* lelopean, BERTSO BAZKARIA merkatu plazan.

17:00 IKUSKIZUNA HAUR ETA GAZTETXOENTZAT, Atzeko kalean. Eguraldi txarra eginez gero, gaztelekuan.

17:00 SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. ARNO ganadutegiko zezenak.

17:30 PILOTA TXAPELKETAKO FINALA, Txosna batzordeak antolatuta, plazako pilotalekuan.

17:30 Legazpiko Alaitasuna Errondalla, KALEJIRA IBILTARIA.

19:00 Legazpiko Alaitasuna ALMA TAPATIA mariatxiak, plazan.



Esne Beltza taldearen kontzertua irailaren 29an. | ESNE BELTZA

EGUBAKOITZA

2

19:30 ELKARRETARATZEA PLAZAN, "Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde".

20:00 HARTZAK kontzertua, Atzeko kalean, Harrera Taldeak antolatuta.

21:00 KARRIKALDIA txosnagunean. Atzoko Ogixa: Lokuria, Zuen Azkena, Endemaño, Marianitos Blai.

22:30 BERTSO JAIALDIA Zubikoa kiroldegian. Bertsolariak: Amets Arzallus, Aitor Mendiluze, Maider Arregi, Andoni Goitia, Maialen Lujanbio, Agin Laburu. Gai-jartzailea: Oñatiko Bertso Eskola. Sarrerak salgai, Txokolateixian.

ZAPATUA

3

HERRI EGUNA

09:00 Txistulari Bandaren GOIZ-ERESIA. Ondoren, herriko kaleetan zehar ibiliko dira.

10:30 AZOKA Unibertsitate inguruan: herri mailako behi erakusketa; herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa; asto erakusketa; behor eta zaldi erakusketa; euskal txerri eta oilo erakusketa; gazta lehiaketa; herri

mailako fruitu eta barazki lehiaketa; lore eta landare erakusketa; artisau erakusketa.

11:00 KALEJIRA, Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako TRIKITI-PANDERO eta SOINU-JOLEEN TALDEA, TXISTULARIAK ETA TOLOSAKO GAITEROAK ibiliko dira herriko kaleetan.

12:00 SAGARDO DASTAKETA, plazan. Sagardotegiak: Abaltzisketa: Zalbide; Aduna: Aburuza, Zabala; Asteasu: Sarasola; Astigarraga: Astarbe, Bereziartua, Petritegi; Ataun: Urbitarte; Azpeitia: Añota; Donostia: Barkaiztegi; Hernani: Otsua-Enea, Altzueta, Akarregi, Larre-Gain, Itxas-buru; Ikaztegieta: Begiristain; Legorreta: Aulia; Tolosa: Isastegi; Urnieta: Elutxeta; Usurbil: Saizar; Zerain: Oiarte.

13:15 Lehiaketetako SARI-BANAKETA.

14:00 BAZKARIA Antixena gaztetxean, Txosna batzordeak antolatuta.

14:00 HERRI BAZKARIA, Zubikoa kiroldegian.

17:00 Herriko GAZTETXOEN KIN HERRI KIROLAK, plazan.

18:00 EZTEN GIRO TALDEAREKIN ERROMERIA, Atzeko kalean.

18:00 Profesionalen HERRI KIROLLEN JAIALDIA, plazan.

Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

Ondoren OBANEUKE ERROMERIA, plazan.

19:00 Ekitaldia: "Euskal preso politiko eta iheslarien eskubideen alde", txosnagunean.

19:30 Parrokian F. ESNALEN SALBEA, parrokiako koruak eta Oñati abesbatzak abestuta.

22:00 TRIKIMAILU, GOSE eta DANTZADI taldeen kontzertua, txosnagunean.

DOMEKA

4

ERROSARIXO EGUNA

09:00 Txistularien GOIZ-ERESIA.

12:00 Parrokian MEZA NAGUSIA, parrokiako koruak abestua.

12:00 Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.

12:00 HAURRENTZAKO JOLASAK ETA ESKULANAK, txosnagunean.

12:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

13:00 Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA, plazan. Inaxio Ibarrodok zuzenduta eta honako egitarauarekin:

► *Gerona* (Pasodoblea) Lope.

► *Jeanne Maillotte* (Obertura) J. Reynaud

► *The best of Mancini*. Mancini

► *Los euskaros (Rigodoiak)* Severo de Aguirre, Miramón eta Elosegui

14:00 BAZKARI KARIBEARRA, txosnagunean.

17:00 HAUR PARKEA, Etxaluzen. Eguraldi txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

17:00 SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK, Gipuzkoako kadete eta gazte mailako pilotari onenen artean, Aloña Mendi KEko Pilota Sailak antolatuta, Zubikoa pilotalekuan.

18:00 TORTILA TXAPELKETA eta CODIGO HABANA taldearen kontzertua, txosnagunean.

19:00 JULIETTE eta PAULINE taldearen kontzertua, Atzeko kalean. Ondoren, PETTlren kontzertua Atzeko kalean.

20:00 DANTZALDIA plazan, LONDON ORKESTRAREKIN.

20:30 BALKOITIK BALKOIRAKO BERTSO-SAIOA SEBASTIAN LIZASO eta IKER ZUBELDIA bertsolariekin, Kale Zaharrean.

22:00 BIDEO EMANALDIA txosnagunean: *La batalla de Argel*.

23:00 Musika, PIROTEKNIA eta argi-ikuskitzuna, plazan.

Ondoren DANTZALDIA plazan, LONDON ORKESTRAREKIN.

ASTELEHENA

5

ERROSARIXO BIXAMONA

09:00 SOKAMUTURRA plazan. ARNO ganadutegiko zezenak.

12:00 Oñatiko Udal Musika Bandaren KALEJIRA.

14:30 PAELLA-JATEA, txosnagunean.

16:30 OLINPIADAK, txosnagunean.

17:00 SOKAMUTURRA. Plazan, Kale Barrian eta Atzeko kalean. ARNO ganadutegiko zezenak.

18:00 ROCKALEAN bertsio-taldearen KALEJIRA IBILTARIA.

18:00 DI-BERTSIOAK herriko musikarien eskutik, txosnagunean.

20:00 DANTZALDIA plazan, LAIOTZ taldearekin.

23:00 DANTZALDIA plazan, LAIOTZ taldearekin.



Mekalki
S. Coop. mekanizatuak

*Ondo ibili
jaixetan!!*

Mekanizazio zerbitzu integralak

Zubillaga 13 - 20560 Oñati - tel.: 943 78 19 11 / www.mekalki.es / e-mail: comercial@mekalki.es



2014ko nagusien danborrada. | GOIENA



2014ko txikien danborrada. | GOIENA

Danborren hotsek festa piztuko dute

Txikien danborrada inoiz baino jendetsuagoa izango da, izena eman duten guztiek parte hartuko dute-eta

JOSU BILBAO | OÑATI

Irailaren 28an, San Migel egunaren bezperan, Oñatiko San Migel jaiei hasiera emango die danborradak, Txantxikuaren jaitsieraren ostean. 400 lagunetik gora ibiliko dira ohiko ibilbideari jarraiki, eta plaza nagusian amaituko dute, danbor hotsen eztandaekin.

Aurten, berritasun moduan, Eltzia parean hasiko dira danbo-

rrak jotzen, gaueko hamaiketan, eta Euskadi etorbideetik Kale Zaharrera bidean joango dira. Aita Madinatik plazara egingo dute danborrek, eta ondoren, Atzeko kaletik Kalegoienerraino joango dira. Kale Barrian behera sartuko dira plazan, gauerdian.

Zaldunak, gastadoreak, barrieroak, danbor jotzaileak, sukaldariak, dantzariak -ehundik gora aurten-, banderadunak, bandako

kideak eta danborrada antolatzen dutenak kontuan hartuta, 400 lagunek, gutxi gorabehera, osatuko dute danborrada nagusia Oñatiko kaleetan zehar.

Musika Bandak eta Trikitxararak izango dute musikaren ardura, azkeneko urteetan bezala. Horrela, San Migel jaiei hasiera emango diete oñatiarrek, nagusien danborradako kolore eta burrunbadarekin.

Umeen danborrada

Ez ospatzeko arriskuan izan da, baina, gazte kuadrilla bati esker, inoiz baino ume gehiagok parte hartuko dute biharko danborrada txikian. Aurreko urteetan, parte-hartzea mugatua zen, eta aurten ez da zozketarik izan: "Lehen, traje batzuk zeuden, eta ume batzuk soilik irteten ziren. Guk, hori apur bat aldatzeko, baserritarren konpainia berri bat sartzea pentsatu genuen. Arropak eurek etxetik ekarri beharko dituzte, baserritarrenak, eta danborrak Arrasaten eta Bergaran eskatu ditugu", azaldu du antolatzen ibili den gazte kuadrillako kide Ane Txapartegik.

"Musika Eskolak entseguak aurrera eramateko laguntza eskaini digu, eta guk beste guztia egin behar izan dugu: hurrekin kontaktuan jarri, arropak txukun jarri, gurasoei informazioa eman, egunean egin beharrekoa bertan antolatu... Udalak ez zela haurren danborradarik egongo jakinarazi zuenean, taldetxo bat bildu

ginen eta aurrera aterako genuela erabaki genuen, inor ez zegelako prest", azaldu du danborradako antolaketa dabilen Ane Txapartegik.

Guztira, 150 umeek parte hartuko dute. Danborrada irailaren 19an ospatzekoa zen, baina Udalarari atzeratzea eskatu zioten gazte kuadrillatik, entseguak beranduago hasi zituztelako, eta 26an egiteko proposamena onartu zuten.

Nagusien danborrada Eltziatik irtengo da aurten, 23:00etan

Arrasateko eta Bergarako danborrak erabiliko dituzte txikiek

Ondo pasa jaietan!

GARA

GARA

●● Grupo ULMA, S. Coop. Garagaltza Auzoa 51, 22 P.K. 20560 Oñati (Gipuzkoa) T 943 25 03 00 F 943 78 09 17 www.ulma.com grupoulma@ulma.com

SANMIGELAK 2015 | OÑATI



*Oñatiko Udalak
jai zoriontsuak
opa dizkizue*





Joxe Mari Bengoa eta Eder, Santalutziako zelai parean, Oñatiko txapelketan jarduteko txartela eman dien Gipuzkoako txapelarekin. | JULEN IRIONDO

pensatzen dut aurrera beste batzuek egingo dutela hemen, ez dakit zer egingo didan hemen, baina...". Badaezpada, atea irekita uzten du, txakurrak egin diezaiokeenagatik.

Baina berak ere izango zuen *errurik* Gipuzkoakoan, eta izango du Oñatin ere, ez daramatza alferrik hainbeste urte halako txapelketetan, antolatzaile, baina ikusiz eta ikasiz: "Mahaitik, lasai-lasai, asko ikusten da: hor puntan dabilzan artzainek milimetroak ere hartuta dituzte, noiz geratu txakurra, noiz bidali eta abar; aldiz, berriak hasten direnei, normalean, txakurra geratu orduko lar aurrera pasatzen zaie, ardiek buelta hartzen diete, berriz ere lana egin behar izaten dute... Nik horiek truku denok bada-kizkit, badakizkit, eta hori abantaila da, bai".

Txakurraren garrantzia

Kontua da, baina, Legazpin berekin lehian ibili zirenak ez zirela hasiberriak –*Lagun* eta Jesus Mari Plazaola arrasatearra, bigarren sailkatuak, eta *Azkar* eta Juan Jose Arrizabalaga elgoibartarra, hirugarrenak, adibidez–, eta aurrea hartu ziela Bengoak: "Bai, baina txakurra ere behar da"; merituen zati handiena txakurrari aitortzen, berriz ere. "Arrizabalagak duen txakurra zaharra da dagoeneko, eta Plazaolak esaten du gutxi ibiltzen duela"; eta berea "betidanik ona" izan dela dio.

"Genetikoki" omen da bere txakurra –Gorbeiko euskal artzain-txakurra– ona: "Lau urte ditu, eta oso txakur ona da. Gazte-gaztetatik ikusten zitzaion sen ona zekarrela. Artzain munduan ibilita, askotan entzun dut, bai hemen eta bai kanpoan, Frantziatik-eta, lau bat urte behar izaten dituela txakurrak bere pun-

Antolakuntzaren arima... eta aurten parte-hartzaile!

Zein eta Joxe Mari Bengoa izango da aspaldiko lehen oñatiarra Santalutziatik

JULEN IRIONDO | OÑATI

Galdera: "Pentsatuko zenuen sekula zuk izan behar zenuenik aspaldiko urteetan lehen oñatiarra Nazioarteko Artzain-txakur Txapelketan?"; Bengoak barre, eta irribarrerik kendu gabe erantzun: "Ez, ezta pentsatu ere"; hiru aldiz errepikatu du. "Baina, bueno,


orain hasi naiz sinisten txakurra ona daukadala eta... Ilusionatuta, bai". 56. aldia izango du aurten goa txapelketak, eta esku bateko hatzak adina ez dira bertan parte hartu duten oñatiarrak. Bada, irailaren 6an, Legazpin, Gipuzkoako txapela irabazi eta lortu zuen Santalutziarako txartela

bertako antolatzaile lanetan 28 urte daramatzanak: "Ezustean harrapatu duen lehena neu izan naiz", zioen.

Antolatu eta parte hartu

Aurten biak egin beharko ditu, parte hartu eta antolatu, antolaketak lanak albo batera uzteko

asmorik ez du-eta, batere, parte hartu beharagatik: "Antolakuntzan jarraitu egin behar dut. Nik, hemen, pensatzen dut zazpi minutuko lan bat izango dudala; lehenengo ariketa zazpi minutu izaten dira, hona etortzen diren guztiak oso txakur onak izaten dira, txapeldunak izaten dira, eta



Tel.: 943 71 80 52

AHOLKULARIAK

Aholkularitza fiskala

• Lan aholkularitza

• Kontabilitatea

• Zerga aitorpena

Ondo pasatu sanmigeletan!

Errementari plaza 2-3 behea
OÑATI



RPS:174/13

▲ M^a Angeles Mendizabal
● AHO SENDAGILEA
H Ondo pasa jaixak!

- Inplantologia konbentzionala
- Gidatutako inplantologia (punturik gabe)
- Odontologia estetikoak
- Periododontzia
- Eskanerra

Arantzazuko Ama 2C-behea
20560 Oñati
Tel.: 943 71 60 71
mendikorta@outlook.com

tura iristeko, eta nik hori konprobatu egin dut honekin. Ze, orain arte, beti izan da bizia, beti ibili naiz eutsi ezinda". Bengoak ez du esan gabe utzi nahi Fidel Alonso artzain laudiarrek oparitutako txakurra dela *Eder* -hark oparitutakoa, Oñatiko iazko irabazle Enrike Mendigurenen etxe-ko arbasoak dituena-; txapelaren zati bat Alonsori eskaintzen diola dio.

Erretiroa hartu ostean, artzain

Asko ikusi eta ikasitakoa bai -eta etxean, baserrian, laguntzen-eta ibilitakoa-, baina, esanda moduan, Legazpiko bere lehiakideak ez bezala, Joxe Mari Bengoa bada hasiberria artzaintzan eta txapelketetan: "Erretiroa hartu nuen jarri nituen ardi batzuk; oparitu zidaten txakurra, eta hor nabil, erdi-artzain lanetan, txakurrarekin egunero".

Eta Gipuzkoakoa izan zuen bere lehenengo txapelketa -aurretik, zenbait erakustalditan-eta ibilita bazegoen-; parte-hartzaile gutxi egoten direla-eta erabaki ei zuen izena ematea. Izena eman eta irabazi: "Azkena atera nintzen, txakurra emea delako; eta ondo: neu lasai, ze nik ez nuen esperantzarik txapela ateratzeko; besteak ez ziren hain ondo ibili, eta niri hain ondo egin zidan! Ardiak ere ondo portatu ziren, hori ere esan egin behar da, ze txapelketan garrantzitsua da zor-tea ere"

Oñatiko txapelketak entzutea bai, baina herrikoen bertakoen



Amiño eta Bat, lagun batekin, Oñatin bigarren eginda (1955). | PLAZAOLA

Azken oñatiarra, 'Amiño', duela 47 urte

1968koa da oñatiar baten azken parte-hartzea nazioarteko txapelketan. Olabarrietako Amiño baserriko Bixente Urtzelai orduan aritu zen azken aldiz herrian egiten den txapelketan. 1955eko lehen ediziotik hasita -aurtengoa 56.a da; 60ko hamarkadako urte batzuetan ez zen txapelketarik egin-, Amiño askotan hartu zuen parte Oñatin, eta sei aldiz bigarren postua atera ere bai (17 urte zituen argazkian, lehenengo edizioan).

Urte batzuk eskaini zizkien halakoei, eta Euskal Herrian ez ezik, Katalunian eta Frantzian ere ibili zen txapelketetan eta erakustaldietan. Oñatin ez zuen behin ere txapelik janzterik lortu, baina Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen, adibidez.

Gipuzkoako txapela irabazita, Legazpin, lortu zuen Bengoak Oñatirako txartela

Legazpikoa zuen lehen txapelketa, eta ezustea eman zuen 'Eder'-ekin

artean, gaur egun, behar lukeena baino estimu gutxiago duela uste du Bengoak; ez da nahi beste jende joaten festa bezperetako hitzordura. Orainoan, agian, jende gehiago animatuko da, aspaldiko partez parte-hartzaileetako bat oñatiarra izango dela -eta nor den- kontuan izanda; Bengoa ez dago ziur, hala ere: "Beno, zenbat etorriko da, bada, gehiago horregatik?".

Orain bera hasi dela artzain lanetan, gustura hartuko luke erreleboa antolakuntza lanetan: "Oñatiko egoera gaur egun ez da ona. Gu nekatuta gaude; berririk ez dator, baina uzteko gogoia dugu. Eta nik ez dakit, herrian nik ez dut sumatzen sentsibilitate handiegirik txakurretarako". Antolakuntzan jarraituko duenik behar dute, Nazioarteko Txapelketak herrian jarraipenik izango badu.

Txapelketetan bai, txapelketetan jarraitzeko asmoa badu Bengoak: hori har hori hori dut barruan, eta txakurra dudanez, beste batzuekin lehiari ibiltzeagatik besterik ez bada ere, bai, jarraituko dut".

Domekan, 10:30ean

Hurrengo zita, esan bezala, zita handia, etxean, Santalutziako zelaian, domeka honetan 10:30ean, Euskal Herriko, Herrialde Kataluniarretako eta Biarnoko txakur eta artzain hoberenekin batera, asmo eta helburu garbiarekin: "Behintzat, nik lana txukun egitea, eta horixe egiten badut, konforme".

OÑATIKO LEHIAKIDEAK

Riki / Enrike Mendiguren
Orozko (Bizkaia)
Iazko txapelduna eta Euskal Herriko txapelduna

Suit / Fidel Alonso
Areta (Araba)
Euskal Herriko bigarrena

Seiko / Eneko Serrano
Orozko (Bizkaia)
Bizkaiko txapelduna

Leze / Jose Mari Jauregi
Ilarduia (Araba)
Arabako txapelduna

Jai / Antonio Alustiza
Areso (Nafarroa)
Nafarroako txapelduna

Eder / Jose Mari Bengoa
Oñati (Gipuzkoa)
Gipuzkoako txapelduna

Kim / J.M. Pleguezuelos
La Canonja (Tarragona)
Kataluniako txapelduna

Witney / Hilario Novillo
Santpedor (Bartzelona)
Kataluniako bigarrena

Dover / Ismael Bois
Morella (Castello)
Castelloko txapelduna

Xusco / Miguel Adrover
Felanitx (Mallorca)
Mallorcako txapelduna

Listo / Jean Paul Irikin
Itsasu (Lapurdi)
Iparraldeko txapelduna

Gaua / Gilles Etxegoien
Donamartiri (Nafarroa Beherea)
Iparraldeko bigarrena

Gump / Gerard Esprabens
Arette (Frantzia)
Aramitseko txapelduna



Aitor Ugarte | Oñatiko Udal Musika Bandako kidea

"Logura pixa bat izan arren, merezi du eguerdiko giroak"

Eguraldi ona egiten badu, San Migel eguneko kontzertua Lazarraga parkean izango da aurten ere

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Duela hamar urtetik hona da Oñatiko Udal Musika Bandako kide Aitor Ugarte (Oñati, 1988). Beste behin, parranda eta lana uztartu beharko ditu herriko jaietan. Aurten, gainera, ardura berezia izango du: kontzertua entzuteko aulkiak jartzeko eta kentzeko ardura.

Oñatiko Udal Musika Banda herriko jaietako beste elementu bat izaten da. Emanaldi asko izaten dituzue.

Bai, hala da. Bihartik, zapatua, martitzera arte, adibidez, egunero joko dugu zuzenean: zapatuan eta astelehenean danborradak eta domekan eta martitzenean kontzertuak.

Parrandarako ere egun onak dira datozen horiek. Nola uztartzen dituzu biak?

Ondo. Bat egiteagatik ez diot bestea egiteari uzten. Gainera, jaietako kontzertuak arinak izaten dira.

Baina ordu laurden lehenago jaikitzea ez da nahikoa izango, ala?

Ez, ez. Kontzertuaren aurretik kalejira egiten dugu, eta baita entsegu txiki bat ere. Emanaldiaren ordua baino lehenago egon behar dugu prest denok.

Joaten da jendea zuen emanaldiak entzutea? Esker onekoak dira herri-tarrak?

Nik uste dut baietz, esker onekoak direla. Egia da, hala ere, normalean, ohiko jendea etortzen dela, ia beti jende bera etortzen dela gu entzutea.

Jaikitzeo nagikeriagatik, akaso?

Baliteke, baina nik uste dut eguerdiko giroa bizi izatea ere merezi

Zapatutik, bihartik, martitzenera egunero joko du bandak zuzenean

duela. Nahiz eta logura pixka bat izan, ederra izaten da eguerdian kalera irten, pintxo bat jan eta kalean zer dagoen ikustea. Niri gustatzen zait.

Aurten, gainera, aulkiak eta atrilak jartzeko ardura izango duzu.

Bai. Jose Mari Balantzategik urteetan egin du, eta erreleboa eskatu du. Lehen ere laguntzen genion, eta badakit zer lan den. Taldeko kide bat eta biok apuntatu gara lan horretarako. Emanaldiaren aurretik aulkiak eta atrilak jarriko ditugu eta kontzertua bukatzean jaso berriz. Hala ere, jendeak beti laguntzen du aulkia jaso eta izkina batera eramaten, adibidez.

San Migel eguneko kontzertua Lazarragan izango da aurten ere?

Eguraldiak laguntzen badu, behintzat, bai. Domekakoa eta Erro-saixo egunekoak, Foruen plazan.

Pieza bereziren bat joko duzue aurtengo jaietako emanaldietan?

Ez.



Tronboia jotzen du Aitor Ugarte oñatiarrak. | ARANTZAZU EZKIBEL

Nolako piezak joko dituzue?

Martxa duten piezak izango dira. Normalean, barruan egiten ditugun kontzertuetako obrak serioagoak izaten dira. Kalean jotzen ditugunak, aldiz, erritmo handiagoa izaten dute, martxa handiagoa. Eta jaiak direnez, bada, martxa behar da, hori tokatzen da herriko jaietan, ezta?

Zenbat lagun zaudete Oñatiko Udal Musika Bandan?

Guztira, 45-50 lagun inguru. Egia da, baina, beti ez dugula guztiok jotzen; egoten dira bajak, kanpoan ikasten daudelako edo gaixo daudelako, adibidez.

Tronboia jo izan duzu zuk beti?

Jose de Azpiazu musika eskolan hasi nintzen tronboia jotzen ikasten. Eta handik joan nintzen bandara, tronboiarekin, noski. Duela hamar bat urte hasi nintzen bandan, eta oso gustura nago.

Ondo pasa jaixetan!



Kale barria 20 • Errekalde 8
OÑATI
Tel.: 943 78 01 54



- Gasa
- Berogailuak
- Pellet eta egurrezko estufak
- Eguzki plakak
- Energia berritzaileak
- Isolamendu ekologikoak: zelulosa, kortxo proiektatua eta xafla termikoak.

- Sukaldeak
- Bainurako behar duzuen guztia

Ondo pasau jaixak!

Kale Zaharra 17
Tel.: 943 71 82 49 • Mugikorra: 635 74 62 26
e-posta: e.inurritegi@gmail.com

Sei euskal garagardo aukeran izango dira txosnagunean

Tartean izango da gaztetxean egiten duten edaria, Guardia Zibeer

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Berritasunik badago txosnetako egitarauan: lehenengo aldiz, euskal garagardoen dastatzea izango da txosnagunean. Irailaren 28an izango da, San Miguel Aozaratzan egunean, 19:00etan.

Oier Fernandezek, antolatzaileetako batek, azaltzen duen moduan, hauxe da ekintza horren atzean dagoen motibazioa: "Gaztetxean garagardoa egiten hasi eta txosnetan ere zerbait berria egitea ikusi dugu. Horrela, Euskal Herriko produktua bultzatzeko aukera bat bezala ikusi dugu".

Jaiak hasi eta segituan izango dute zaleek garagardoaz gozatzeko aukera, txantxikuaren jaisierari aurre hartuko baitio ekintza horrek ordu batez, horrela giroa berotzen joateko. Garagardoa bukatu arte iraungo du ekintzak.



Botilan zerbitzatuko da garagardoa, baina edalontzian edateko aukera ere izango da. | IMANOL SORIANO

Sei lagun barra atzean

Euskal Herriko sei garagardo izango dira aukeran, honako hauek: Naparbier (Noain, Nafarroa), Tartalo eta Basajaun (Iruñekoak biak), EPA! (Gordexola, Bizkaia), Boga (Mungia, Bizkaia) eta Oñatiko gaztetxean bertan egindakoa, Guardia Zibeer.

Oier Fernandezek dioen moduan, "botilatan salduko da,

eta garagardo bakoitzeko 100 botila egongo dira". Oraindik ez dute guztiz zehaztu salneurria, baina 2 euro inguru izango da.

Txosnagunean bertan egongo da dastatze-postua. Barra berezi bat egongo da eta sei bat lagun ibiliko dira garagardoa zerbitzatzeko.

Funtzionamendua, berriz, hauxe izango da: "Botilatan egon-

ESANAK

"Botilatan salduko da garagardoa, eta mota bakoitzeko 100 botila ipiniko ditugu salgai"

"Txosnetako edalontziak izango dira euro baten; hura bueltatzerakoan, euroa ere bai"

OIER FERNANDEZ | ANTOLATZAILEA

go da garagardoa eta nahi duenak botilatik edateko aukera izango du, edo, bestela, txosnetako edalontziak egongo dira euro baten truke. Euro hori edalontzia bueltatzen denean itzuliko da".

Oñatiko garagardo horia

Dastatzeak gaztetxeko garagardoa aurkezteko ere balioko du. Urtebete inguru daroate gaztetxeko kideek euren garagardoa egiten, eta horia, gorria eta beltza egin dute. Jaietan horia eskainiko dute; gaztetxeko kide Oier Fernandezek esanetan, "edateko freskagarriena" horixe delako.

Biribil Brewing sagardotegi iruindarrak bi produktu ekarriko ditu. Tartalo Pale Ale garagardoa %4,5 alkohol bolumena duen amerikar Pale Ale motako garagardoa da. Erabilitako lupuluak Columbus, Centennial eta Cascade dira. Euren da ere Basajaun; hori Imperial IPA motakoa da, India Pale Ale motaren barietate bat, normalean gozoagoa eta lupulu zapore handiduna, oso intentsua, oro har.

Gordexolatik dator EPA!, bost lagunek sortutako Laugar mikro-garagardotegian egina. Bitxikeria bat ere badago Laugarren historian: hartzitzailea crowdfunding bidez erosi ahal izan zuten. EPA! %5,4 bolumeneko garagardoa da, Columbus, Chinook eta Cascade lupuluekin egina; adituen esanetan, oso zapore freskagarria eta goxoa dauka.

Naparbier garagardotegian askotariko garagardoak ekoizten dituzte. Euren helburua da "osagarri freskoen eta naturalenekin goi kalitateko garagardoak" eskaintzea.

Boga garagardoa Mungia Boga ekoizpen kooperatiban egiten dute. Han ekoizten duten garagardo mota bakarra da. Modu artizanuan egiten dute.




egalarur



Bidebarrieta 17 behea
Tel.: 943 78 07 15 • Faxa 943 78 08 62
20560 OÑATI
www.egalarur.net

Ondo pasa jaixak!

- > Eraikuntza lanak
- > Industrinabeen eraikuntza
- > Obra Zibila - Urbanizazioak
- > Industriegune eta etxebizitzaren promozioa
- > Etxebizitzaren eraikuntza



MAPFRE

Urte askotan oñatiarren zerbitzura!



ondo pasau jaixak!

Portu kalea 5 • 20560 Oñati
Tel.: 943 78 12 65 • Faxa: 943 78 07 85

Jaietan aske, independente, beldur barik

Gazteei indarkeria sexistaren aurkako baliabideak emateko, Beldur Barik gunea jarriko du Udalak

MAIALEN TORRES | OÑATI

Txantxikuaren jaitsieraz gain, aurten Beldur Barik gunea ere izango da protagonista San Migel jaien hasieran. Beldur Barik gunea "eraso sexistei eta erasotzaileei zuzenean aurre egitea" du helburu, eta astelehenean, hilaren 28an, 19:00etatik 22:00etara egongo da martxan. Unibertsitate hiribidean jarriko dute, parrokiako atariaren parean, jai giroaren erdigunean, ahalik eta jende gehienarengana heldu ahal izateko.

"Indarkeria sexistaren aurkako bitartekoak eskura jartzeko gunea izango da, baita gaiari buruz lasai hitz egiteko ere", azaldu du Oñatiko Udaleko Berdintasun batzordeak. "Herritarren arteko harreman ona, elkarren zaintza eta tratu egokia sustatu nahi ditugu", gaineratu dute.

Egungo egoerari erantzuna

Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, sexu eraso saia-

kerek %29,4 egin dute gora 15 eta 29 urte arteko adin tartean. Gainera, erasotzaile guztien artean, %30 inguru adingabeak dira, eta eraso gehienak aisialdiguneetan edo jaiguneetan izaten direla diote datuek, gauean zen goizaldean. Datuok dira, beste hainbatekin batera, Berdinsareatik jaiotako Beldur Barik ekimenaren jatorria eta gunea bera gazteei zuzenduta egotearen arrazoia.

Izan ere, Berdintasun batzordetik azaldu dutenez, gertaera horien ondorioz, hainbat emakume gaztek jaiguneak ekiditen dituzte bertan ez direlako aske sentitzen. Kasu "larriengan", berriz, erasoaren errepikapena dela eta, jarrera horiek "onartu eta normalizatu" ere egiten dira, jendartearen "konplizitate isilari" esker.

"Askotan, kosta egiten da indarkeria bortitzekoak ez diren erasoak eraso gisa identifikatzea", diote batzordetik. Horregatik, ezinbes-



Beldur Barik gunea jaietarako prestatutako gidaren azala. | BELDUR BARIK

tekoztat jo dute gazteak formatzea, euren ustez, portaera erasokorrek identifikatzen irakastea baita horiei aurka egiteko lehen urratsa. Funtzio horretan laguntzeko, indarkeria matxista zer den azaltzen duten gidak prest ditu Beldur Barik gunea.

Gainera, Udalak herriko emakume taldeak eta mugimendu feministak gonbidatu ditu Beldur Barik gunera. Guztien artean, emakumeei ahalduzko eta burujabetzarako tresnak eskainiko

dizkiete, "inongo lotsarik edo beldurrik gabe, aske eta independente izan daitezten".

Prozesu horretan, gizonezkoen funtzioa ere "ezinbestekoa" dela uste dute Berdintasun batzordean, "erasotzaileen salatzaile zuzenak izanda eta indarkeria matxistaren aurkako jarrera aktiboa hartuz".

Baliabideak, gazteen esku

Gaian adituak diren pertsonen gidatuko dute gunea, eta, adibidez, erasoak ekiditeko aholkuak

emango dizkiete, baita erasorik jasanez gero jarraitu beharreko pausoak azaldu ere.

Dena den, informaziogunea izateaz harago, elkartrukerako gunea izango da, eta gazteek euren iritziak, kezak eta interesak partekatzeko aukera izango dute. Horretarako, iritziak emateko arbela, indarkeria sexistaren aurkako txapak egiteko tailerra eta bestelako materiala izango dute eskura.

Horrela, emakumeek "beldurrik gabe" jaietz gozatzea lortu nahi dute Beldur Barik gunearekin, eta ez hori bakarrik, "ligoteo sanorako bitartekoak" ere eskaini nahi dizkiete gazteei. Dena den, gazteentzat bakarrik ez; interesa duen herritar ororentzat zabalik egongo da gunea.

Udalak, gainera, gaiaren lan-ketarekin jarraitzeko asmoa du ikasturtean zehar. Beldur Barik gunea, beraz, plangintza zabalago baten pausotako bat baino ez da.

ESANAK

"Askotan, kosta egiten da indarkeria bortitzekoak ez diren erasoak identifikatzea"

"Emakumeek beldurrik gabe jaietz gozatzea da gunearekin lortu nahi duguna"

OÑATIKO UDALEKO BERTINTASUN BATZORDEA



LIZARRALDE

KIROLAK

ondo pasau jaixak!



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

LEGAZPI
Patrizio Etxebarria 2
Tel.: 943 08 28 46

Jai dotoreak izan!

ileak

marikarmen ile apaindegia

san lorentzo 9 a - behea
tel.: 943 71 60 46

OÑATI

100 metro luze eta 28 garai den tirolina egongo da

Kanpandorretik Atzeko kalera jaitsi ahal izango dira gaztetxoak

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Tirolina ikusgarria da aurtengo jaietako eskaintza erakargarrietako bat 12 eta 17 urte artekoendako. Betiere, eguraldiak laguntzen badu, parrokiako kanpandorretik behera Atzeko kale-raino –gutxi gorabehera, Ona tabernaren pareraino– irrist egiteko aukera izango dute adin horretako ume eta gaztetxoek; hau da, jaien hasiera iragartzeko txantxikuak egiten duen ibilbidearen antzekoa, baina luzeagoa, bestela larregiko inklinazioa izango luke-eta. Zifratan, tirolina 100 metro luze izango da eta 28 metroko altueratik abiatuko da.

Irailaren 29an, San Miguel egunean izango da hori; hain zuzen, Gaztetxoan Eguna txosnagunean. Gaztelekuko teknikari Jon Lopezek azaltzen duenez, "gaztetxoekin batera" antolatu dute egun hori eta eurek egindako eskaerak aintzat hartu dituzte. Abentura parkea egin zuten iaz ere, baina ez zen halako ekintza ikusgarri izan. Tirolinarekin "ilusio handiarekin" daude gaztelekuan, eta "polita" izango dela ziur dago Jon Lopez; eguraldi ona edo balekoa egin behar du horretarako, baina, bestela kiroldegiko kantxan egingo da-eta tirolina, eta derrigorrez txikiagoa izan behar da orduan.



Inguru enpresak egindako tirolina bat. | INGURU ABENTURA

Goitik frenatzen

Tirolinan ibili ahal izango da 12 eta 17 urte arteko edozein. Arabako Inguru enpresak muntatuko eta kontrolatuko du. Bertako arduradun Alex Ulek honako hau dio: "Oso segurua izango da; izan ere, goitik segurtatuko dugu; kanpandorretik frenatzen joango

gara, horrela jaitsieran abiadura handia har ez dezaten. Oso ondo kontrolatuta egongo da".

Tenkatutako soka batetik zehar poleen bitartez jaistean datza tirolina. Distantzia jakin batera dauden bi punturen artean ainguratuta dago soka. Horrela, diagonal bat lortzen da eta ber-

tatik zehar jaisten dabilenak hegan ibiltzearen sentsazioa izaten du.

Alex Ulek gaineratzen duenez, bestalde, "oso ikusgarria" ere izango da tirolina, "bai dabilzandako, bai kanpotik ikusten dutenendako ere".

Irailaren 29an 11:00etatik 14:00etara izango da ibiltzeko aukera. Gainera, adin-tartea finkatuta dagoen arren, "gero ikusiko da" zabaltzeko aukerarik dagoen, Ingururen arabera.

Bi kontzertu gauean

Tirolinaz gain, txosnagunean beste ekintza batzuk izango dira abentura parkearen barruan: ibilbide txiki bat, ohe elasterikoa, oreka tailerra... horiek ere 11:00etatik 14:00etara.

Bestelako aukeraz josita egongo da Gaztetxoan Eguna. Jon Lopezek esanetan, gaztetxoek "txosnagunera hurbildu" gura izan dute, eurak baino nagusia-goak diren gazteekin identifikatuta sentitzen direlako, eta horregatik hantxe egingo dute beste ekintza bat, gaztetxoendako bazkaria, hain zuzen ere. 14:00etan izango da eta txartelak salgai daude gaztelekuan, 2 eurotan. Janaria gaztetxoek eurek prestatuko dute; badago lantalde bat horretarako. Bazkarian ez da alkoholdun edaririk zerbitzatuko.

Bazkalostean, Hiltzailearen Bila jokia (Cluedo) egingo dute.

Segidan, 16:30ean, karaokea izango dute, 17:00 ingurura arte; eta horren ondoren, pilak berriz kargatu ahal izango dituzte gaztetxoek gauera begira, izan ere, musika eskaintza bikoitza egongo da: 19:30ean, Atzeko kalean, Los Galernaren kontzertua; eta 23:00etan, Foruen plazan, Esne Beltzarena.

Eta 12 urtetik azpikoendako, haur parkea egongo da Etxaluzen (12:00-14:00 eta 17:00-20:00).

Gaztetxoan eskaerak entzun dituzte aurtengoa antolatzeko



MURUAMENDIARAZ
GOZOTEGIA 1939

Ondo pasa sanmigelak!



Kale zaharra, 24 • Oñati • 943 03 93 18



PODOLOGIA ETA ORTOPEDIA
ZERBITZUAK

RPS: 309/13

Ondo pasa
sanmigelak!

Arantzazuko Ama 19 A • Oñati
Tel.: 943 53 36 37

Sanmigelek soinu banda izango dute

Etxeko taldeen akordeek presentzia nabarmena izango dute aurtengo jaietan

ZAPATUA

26

Bala

Txosnagunea | 22:00etan

Bala bikote galiziarra grunge, stoner eta pop zikinaren bozgorailu perfektua da. *Human Flesh* diskoa kaleratu berri dute eta jaietako sorpresa izan daiteke.

Afu eta DJ Gure Besta

Txosnagunea | 23:30ean

Barañaindik etorriko da Afu zortzikotea, musika koktel dantzagarri batekin. Reggae, ska eta musika afrikarra ardatz hartuta sortu zen taldea eta *Aprendamos a desapronder* lana dute kalean. Ostean, Gure Besta disko jartzaileak animatuko du gau oñatiarra.

DOMEKA

27

Papalagi eta Herstura

Txosnagunea | 19:00etan

Irunberri 25. urteurrena diskoaren aurkezpena egingo dute txosnagunean eta etxeko Papalagi eta Herstura formazioak izango dira lana aurkezteko arduradunak. Oñati, Andoain eta Iruñeko taldeek hartu dute parte bilduman eta dagoeneko salgai dago. Ixilik taldea jotzekoa zen arren, arazo batzuk direla-eta bi taldeok aurkeztuko dute lana.

Bi talde oñatiarrak igoko dira taulara, biak proposamen indartsu eta interesgarriekin. Papalagi punk-rock eszenako musikari ezagunek sortu zuten duela urte batzuk. Golpe de Estado taldeko *Txirli*-k eta Laurenek,



Bala bikotea. | BALA

Jimik eta Imanolek hasitako proiektuan murgildu ziren. Punk-rocketik edaten duen taldeak hainbat influentziari tokia egiten die, eta emaitza da filtro estilistiko gabeko kantu sorta eklektiko eta freskoa.

Herstura laukoteari, ostera, post-hardcore etiketa jarri diote adituek. Tool, Lisabö edo Unsane taldeekin konparatu dituzte oñatiarrak, eta zuzeneko indartsuak eta biziak eskaintzen dituzte. Make ta bat eta disko labur bat, *Annuít Coeptis*, kalean dituzte; azken lan hori Bartzelonan grabatu zuten.

MARTITZENA

29

Bandaren kontzertua

Lazarragako lorategia | 13:00etan

Urtero legez, Lazarraga jauregi-ko lorategia musikaz bustiko du Udal Musika Bandak. Iñaxio Ibarrendoren batutapean, sanmigeletako ohituetako bati jarraipena emango diote. Eguraldi txarra eginez gero, kontzertua udaletxe azpian egingo dute, aterpean.



Papalagi oñatiarrak Antixena gaztetxean. | IBAN IDIGORAS

Los Galerna

Atzeko kalea | 19:30ean

Surf eta rock-and-roll instrumentala eramango du Atzeko kalera Arrasateko Los Galerna boskote maskaradunak. Erreberberazioz bustitako gitarrek, saxofoi basatiak eta oinarri erritmiko indartsuak olatuen hotsak eramango ditu Oñatira.

Aurten kaleratu duten *Sangre en el Atlántico* diskoa aurkeztuko dute bertan, The Cavernarios mexikarrekin batera argitaratutako diskoa. Estudioko laugarren erreferentzia da Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratutakoa, eta, Mexiko aldera berriz ere alde egin aurretik, azaroan berriz ere doa boskotea Atlantikoaren beste aldera; enbata instrumentala eskainiko dute.

Esne Beltza

Foruen plaza | 23:00etan

Xabi Solanok gidatutako musika egiteko makina izango da martitzen gauari amaiera ezin hobea emateko arduraduna. Koktelera musikalean hainbat estilo sartu ostean, hip-hop, reggae, soul, rock eta folk musika tartean, festa

girorako musika bikaina erditu zuten 2007an. Orduetik hona, Euskal Herriko herri eta agertoki gehienak zapaltzeaz gain, munduan zehar ere euren musika gogotik zabaldu dute.

Uda osoan zuzeneko zuzeneko ibili ostean, sasoi betean etorriko da Esne Beltza Foruen plazara martitzenean, oñatiarrak dantzan jartzeko gogotsu.

EGUAZTENA

30

Alma Tapatia

Foruen plaza | 19:00etan

Jaliscotik zuzenean etorriko da Alma Tapatia mariatxi taldea. Folklore mexikarraren ordezkariak ekainean zeharkatu zuten Atlantikoa eta uda osoan zehar *Adelita*, *Alla en el rancho* eta *Guadalajara* kantuak ozen eta harro interpretatu dituzte.

Mexikar kantu eta kolorez jantziko dute Foruen plaza eguaztenean, eta gogotik dantza egiteko aukera egongo da.

SANMIGELAK OÑATIN 2015

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEANIRAILAK 29, 20:00, 21:00 ETA 22:30
URRIAK 5, 20:00, 21:00 ETA 22:30**GOIENA TELEBISTA | JAIK**

URRIAK 8, 22:00

BABESLEA:ARETXARGI
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

PAPER ETA JOSTAILU DENDA

TRIKITX

Kale Barria 44
20560 OÑATI
943 08 82 28
trikitx@gmail.comOndo pasau
jaizak

EGUBAKOITZA

2

Lenao

Atzeko kalea | 20:00etan

Potemkin, Sharon Stoner, Gas eta Bitz taldeetako musikariak batzen dituen taldea da Lenao, duela gutxira arte Hartzak bezala ezagunak. Udan, lehenengo diskoa izango dena grabatu berri du laukoteak, eta, hain zuzen, *amerikana* estiloa du ardatz proiektu berriak.

Landutako melodia eta instrumentazioak eta gustuz egindako kantuak eskaintzen ditu Lenao. Gainera aurretik urteetan zehar pilatutako esperientziariak kalitatezko proposamena bermatzen du.

Karrikaldia

Txosnagunea | 21:00etan

Atzoko Ogixa, Lokuria, Zuen Azkena, Endemaño eta Marianitos Blai izango dira aurtengo Karrikaldian parte hartuko duten taldeak. Punk musika izango da protagonista nagusia bertan.

ZAPATUA

3

Ezten Giro

Atzeko kalea | 18:00etan

Erromerrien zapatu gauari hasiera emateko arduraduna Ezten Giro taldea izango da. Alaitz Eskudero, Maitane Unanue eta Mirari Alkorta debarrek sorturiko taldea herriz herri jaiak girotzen ibili da eta laukotea Oñatira onena emateko prest etorriko da.



Gose hirukotea zuzenean. | GOSE

Obaneuke

Foruen plaza | 20:00etan

2007az geroztik Euskal Herriko txoko gehienak bisitatu ditu laukoteak, euskal kantuz osaturiko erreperatorioa zabaltzen. Fandangoa, rantxerak eta umeentzako abestiak eskainiko ditu Obaneukek.

Gose, Trikimailu eta Dantzaldi

Txosnagunean | 22:00etan

Gose izango da gaueko zapatu gaueko izarra. Hirukote arrasatearra aski ezaguna da Euskal Herrian eta mugetatik kanpo ere. Dagoeneko *Gosariak* lanaren bira amaitu du Ines Osinagaren trikitiak eta ahotsak gidaturiko taldeak, eta berriz ere Gose taldearen ohiko kontzertuei hartu diete martxa.

Zuzeneko ikusgarrien sinonimo da Gose; soinu, argi eta espektakulu paregabea, betiere. Hastapenetan trikitia eta elektronika nahastea helburu zuten arren, gaur egun estilo propioa dutela esan daiteke; trikitiari eta elektronikari gainera, *Osoron*-en gitarrak kutsu klasikoagoa ematen dio, askotan, eskaintza berezia sortuta.

DOMEKA

4

Codigo Habana

Txosnagunea | 18:00etan

Domekak zapore kubatarra izango du txosnagunean. Izan ere, gastronomia kubatarrari lekua egiteaz arren, bazkaria egingo dute; ostean, Codigo Habana hirukoteak girotuko du txosnagunea.

Petti, Juliette eta Pauline

Atzeko kalea | 19:00etan

Petti nafarra ere Oñatin izango da folk-rock eta rock akustikoaren alde ilunarekin. Bluesman arima duen musikariak ibilbide luze eta oparoa du eta hamaika proiektutan murgilduta ibili da azken urteotan. Ibilbideari errepaso egingo dio Pettik, *Astirtitan* azken diskoan indarrak jarrita.

Juliette eta Pauline bikote gazteak emango dio hasiera kontzertuari. Formatu akustikoan pop kantuei forma eman die bikoiteak, eta azkenaldian zeresana eman du Julietten ahots goxoak.



Petti nafarra Andoni Zubiagarekin batera. | GOIENA

ASTELEHENA

5

Rockalean

Kalea | 18:00etan

Rock-and-rollaren erritmoeak kaleak hartuko dituzte San Migel jaiei amaiera ezin hobea emateko. Pasa den urtean Psycho-Clown ikuskizunak zeresana eman bazuen, aurten ez da gutxiago izango.

Rockalean taldeak AC/DC taldearen *Highway to Hell* zein *Lau teilatu* kantuak interpreta-tuko ditu.

Di-Bertsioak

Txosnagunea | 18:00etan

Urtero legez, musikari oñatiarrek talde ezagunen bertsioak egingo dituzte txosnagunean. Aurten, besteak beste, Black Sabbath, AC/DC, Ska-P eta Judas Priest taldeen kantutegiari bizia emango diete lagunarteko giroan jaiei amaiera emateko.

Euskal pasodobleak eta The Beatles

Bi kontzertu eskainiko ditu Inaxio Ibarrondok zuzendutako Udal Musika Bandak San Migel jaietan. Lehenengoa irailaren 29an izango da, martitzenean, Lazarraga jauregiko lorategian, 13:00etan. San Migel egunean, santuari eskainitako kantua interpretatuko du Udal Bandak, eta, tartean, The Beatles taldearen moldaketak ere eskainiko dituzte. Eguraldi txarra eginez gero, kontzertua udaletxeko arkupean egingo da.

Errosoixo Egunean izango da bigarren emanaldia, urriaren 4an, 13:00etan, Foruen plazan. Bertan, Loperen *Gerona* pasodoblearekin zabalduko dute emanaldia, eta Severo de Agirrerren *Los Euskaros*-ekin emango diote amaiera. Tartean, Henry Mancini konpositorearen *medley* bat interpretatuko dute.

**PERTSONA NAGUSIEN
ZAINTZARAKO ZERBITZUA****ADMINISTRAZIO LANAK**

- Kontratu egitea.
- Gizarte Segurantzaren alta ematea.
- Nominak egitea.



BIDEBARRI
Enplegu Zentrua

Tel.: 943 71 64 79 • 943 71 64 42
bidebarri@terra.com • iurruvia.bidebarri@gmail.com

Ondo pasa sanmigelak!

GEZALUS
ELEKTRIZITATEA

650 39 80 88

Era guztietako Instalazioak, Argiztapen Lanak, Berrikuntzak...



SANMIGELAK 2015

OÑATI

ETORRI GUREKIN OSPATZERA!

**Izarraitz • Urtiagain • Boga
Ongi etorri • Zurrust • Soraluze
Living Caffé Txurruka • Olakua
Garoa • Aldapa • Aker • Zotz**

SANMIGELAK 2015

ARETXABALETA
JAIETAN!



- ▶ Festa mexikarra
- ▶ Artisautza eta nekazaritza ekologikoko azoka
- ▶ Kantu afaria
- ▶ Doke eta bolo txapelketak
- ▶ Herri kirol ikusgarriak
- + JAIETAKO EGITARAU OSOA

Leizarra musika
eskolako trikitilariak,
iaz Duranan
kalejiran.

AGURRA



UNAI ELKORO
Aretxabaletako
alkatea

Euskal kulturaz
gozatzeko jaiak

Udazkenarekin
batera, iritsi
zaigu

Aretxabaletan San
Migel jaiak ospatzeko
unea. Musikaz, dantzaz
eta festaz gozatzeko
asteburu aparta. Denok
disfruta dezagun,
elkarrengana eta
inguruarekiko
begirunez, ondo pasa,
pasatu gabe.

Festa guztiek bere
kutsu berezia izaten
badute, gure herriko
San Migel jaiena,
zalantzarik barik,
euskal kulturarekiko
lotura da. Igarri dadila
kalean, ez jantzietan
soilik, gure ahotan
bereziki, euskarak bete
ditzala Aretxabaletako
kaleak sanmigeletan.

Ea, bada, gora
sanmigelak!

EGUBAKOITZA

25

18:00 Eidabe taldearekin HAUR
BERBENA: *Sardina freskua*. Herriko
Plazan.

19:30 ARRASATEKO KILIKIEN
KONPARTSA ERTAINA ETA
ARETXABALETAKO ERRALDOIAK
ETA BURUHANDIAK, Arrasateko
eta Aretxabaletako gaiteroekin
batera, herriko kaleetan barrena.

21:00 KANTU AFARIA. Durana
kalean.

ZAPATUA

26

10:00 Artisautzaren eta Nekazaritza
Ekologikoaren 21. FERIA, Durana
kalean, eta Aretxabaletako II.
ganadu feria, Arlutz kantxan.

10:00 DIANA, Aretxabaletako
txistulariekin.

10:00 Tril emakume taldeak
antolatuta, TALO TXOSNA, goizean
zehar. Pagaldai tabernan.

11:30 Leizarra Musika Eskolako
TRIKITILARIAK. Kaleetan zehar.

11:30 KANTUZ KALEAN. Basotxo
elkarteko abesbatza kantuan ibiliko
da herriko kaleetan zehar,
Arrasateko eta Eibarko erretiratuen
elkarteetako abesbatzekin batera.

JAIETAKO EGITARRAUA

12:45 TXALAPARTA. Durana
kalean.

13:00 Simon Otxandategi taldearen
JOALDUNAK. Durana kalean.

14:30 HERRI BAZKARIA. Iturrigorri
frontoian.

19:00 *Beinke-Loramendi* dantza
emanaldia, Herriko Plazan.



Nekazaritza azoka. | IMANOL SORIANO

20:00 eta 22:30 ALAIKI taldea.
Herriko Plazan.

22:00 BOLO TXAPELKETA, herriko
bolatokian. Izen-ematea: 10 euro.
Sariak, honako hauek:

- ▶ 1. saria: urdaiazpikoa eta batutako diruaren %40.
- ▶ 2. saria: urdaiazpikoa eta batutako diruaren %30.
- ▶ 3. saria: urdaiazpikoa eta batutako diruaren %20.
- ▶ 4. saria: batutako diruaren %10.

DOMEKA

27

11:00 DIANA, Aretxabaletako
gaiteroekin.

11:00 Basotxo elkartearen eskutik
doke txapelketa, Basotxo aurrean.

13:00 HERRI KIROLAK, Herriko
Plazan, Gabisolak aurkeztuta.

▶ AIZKOLARIAK:

**Arrosperiden –sei aldiz
Euskadiko txapeldun– eta
Jesus Mari Mujikaren arteko
norgehiagoka:** bi ebaketa
bertikal, sei ebaketa horizontal eta
ebaketak kolpeka.

**Irati Astondoaren eta Alazne
Etxaburuaren arteko
norgehiagoka:** txingak,
artaburuak, trontza eta lasterketa.

**Bikote mistoen arteko
norgehiagoka:** sei ebaketa
bertikal.

▶ HARRI-JASOTZAILEA:

Aimar Irigoien: azken
urteotako txapeldunak hainbat
harri altxatuko ditu.

▶ IPARRALDEKO JOKOAK:

**Jose Martin Tubi-ren
erakustaldia:** abuztuan, Aian,
errekorra egin zuen fardo
altxaketan, 25 jasoaldirekin. Fardo
altxaketa, ingude jasotzea eta
orga jokoa.

16:00 23. SAN MIGEL MUS
TXAPELKETA. Herriko Plazan.
Garaikurra, txapela eta dirua
emango zaie lehenengo sailkatuei.
Izen-ematea: 15:15etik 15:45era,
20 euro.

19:00 KONTZERTUA Aretxabaleta
Abesbatzaren eskutik. JAI
MEXIKARRA izeneko emanaldia,
musikariak eta dantzariak lagun
dituztela. Herriko Plazan edo
Iturrigorri frontoian, eguraldiaren
arabera.

Gemes

Irudi aholkulariak

*Ondo ibili
sanmigeletan!*

... eta orain, mutilendako espazio berria zabaldu dugu.

Zerbitzu berria. Informa zaitez!



*Zure estiloarekin bat datorren zerbitzu
pertsonalizatua eman nahi dizugulako.
Etorri eta ezagut ezazu!*

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko
sistema berri eta pertsonalizatua*



Aretxabaletako abesbatza, eguenean, entsegu egiten Arkupen. | MIRARI ALTUBE

LARRAITZ ZEBERIO | ARETXABALETA
Jaietako azken ekitaldia izango da eta rantxerak, korridoak eta guapangoak izango ditu protagonista. Aretxabaletako abesbatzak buru-belarri dihardu San Migel jaietako emanaldi berezia prestatzen. Domekan, hilak 27, egingo dute, 19:00etan. Asmoa da Herriko Plazan egitea, eta, eguraldi txarra bada, Iturrigorri frontoian. "Festa mexikarra prestatu dugu aurten", azaldu du azken 34 urteotan abesbatzako zuzendari lanetan diharduen Angel Barandiaranek. "Hamalau bat kantu eskainiko ditugu, guztiak oso ezagunak: *Las mañanitas*, *El preso nº 9*, *Cielito lindo*, *Adelita*, *La cucaracha*...". Abesbatzako 40 bat kidek egingo dute kantuan, eta, emanaldia borbiltzeko, lagun izango dituzte musikari talde bat —pianoa, akordeoia eta perkusioa— eta Aretxabaletako 18-20 bat dantzari Nuria Fernandez de Arroia-bereren gidaritzapean. "Agertokiak kutsu mexikarra hartuko du. Dantzariak jantzi bereziak prestatu dituzte, eta abesbatzako ere prestatuko dugu zerbait", adierazi du Barandiaranek.

Aretxabaletako abesbatza Aste Santuko oporren ostean hasi zen San Migel jaietako emanaldia prestatzen. Kantuak aukeratu, moldaketak egin, abeslariak eta bakarlariak prestatu, musikariek eta dantzariekin eszenaratzea adostu... lan handia da emanaldi bakarrekoa den kontzertua prestatzea, baina oso

berezia da abesbatzako kide guztiendako: "Errepertorioa zabaltzen digu emanaldi honek", azaltzen du Barandiaranek. "Beste erregistro bateko kantuak landu ohi ditugu, eta sanmigeletako emanaldia ezberdina da guretzako alde horretatik ere".

Esker oneko lana

Ikusleen gustuko emanaldia izango delakoan daude abesbatzan. "Uste dut, urteen poderioz, sanmigeletako kontzertuak bere lekutxo egin duela agendan. Izan ere, herritarrek gustura hartzen dute, eta konturatzen dira abesbatzak ahalegin berezia egiten duela emanaldi honetarako. Nik uste dut lan polita ari garela egiten, eta herrian baloratzen dela ahalegin hori", esan du Barandiaranek.

Azken entseguetan dihardu Aretxabaletako abesbatzak; dantzariekin eta musikariek batera entsegu orokorrak egiten. Bakarlari lanetan ariko dira Mari Carmen Etxandia, Mariatxen Urkia, Lurdes Urkia, Javier Lizarazu eta Imanol Aizpurua. Mexikora bidaiatuko dugu aurten, Aretxabaletako abesbatzaren eskutik. Ez da erronka makala! Gonbidapena eginga dago.

Festa mexikarra abesbatzaren eskutik

Angel Barandiaranek zuzenduta, musikariek eta dantzariekin batera egingo dute emanaldia domekan

60 bat lagunek hartuko dute parte abesbatzaren emanaldian

GARAJE NORTE

OPEL ASTRA BERRIA

Auto trinkoen erreferentzia berria iritsiko da laster zure kontseziariora. Ikus ezazu!

Eliteari aurre egiozu.



Gertutik ezagut ezazu Premium ezaugarriak sport-jarrerarekin eta inoizko konektibitate onenarekin batzen dituen autoa.

AUTO MARKA GUZTIAK KONPONTZEN DITUGU.



* Deskontuak www.myOpel.es webgunean izena emanda dauden Opel autoentzako aplikagarriak. ** Autoaren adina lehenengo matrikulazioaren datan oinarritua. Deskontu baliagarriak 4 urtetik aurrerako Opel autoentzako bakarrik. *** Deskontua Tailer Mekanikoak egindako lan guztietan aplikagarria. Osagarriak eta pneumatikoak ez daude barne. Eskaintza hau ez da beste promozio batzuekin bateragarria. 2015eko abenduaren 31ra arte baliagarria. General Motors España SLUK programa hau alda/ken dezake.

ZURE AUTOAREN ADINA **	DESKONTUAK PIEZETAN TAILER MEKANIKOAN EGINDAKO LANETAN ***	DESKONTUA ESKULANEAN
+ 4 URTE	% 10	% 10
+ 8 URTE	% 15	% 15
+ 10 URTE	% 25	% 25



www.myOpel.es

Sempre cuidamos lo que fabricamos | Posventa Opel

GARAJE NORTE (OPEL zerbitzu ofiziala)

BASABE POL. A 1-3. pab. • 20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03



Ane Gonzalez aretxabaletarra, iazko azokako postuan bitxiak saltzen. | IMANOL SORIANO

gikoaren aldeko elkartearen proposamena jaso, eta azoka ekologikoa egiteko erabakia hartu zuten. "Garai hartan jendeak ez zuen nekazaritza ekologikoaren berri, eta hasiera ez zen erraza izan", dio.

Izan ere, Aretxabaletan lehen azoka ekologikoa egin zuteneko garaian, Euskal Herriko beste hiruzpalau lekutan baino ez zuten halakorik egiten. Geroztik, ordea, gauzak asko aldatu dira, eta, Garairen ustez, herrian asko aldatu da produktu ekologikoen kontsumoa, neurri baten, azokari esker.

Ardoa, sagardoa, fruta, barazkiak, gazta, eztoa eta haragia topatuko ditu postuetan, besteak beste, bihar goizean Durana kalea hurbiltzen denak, guztiak era ekologikoan eta, gehienbat, bailara inguruetan ekoiztutakoak. Dena den, badira Nafarroatik, Bizkaitik eta Arabatik etorriko diren nekazariak ere.

Bertako ekoizleen lana, herritarren esku

Inguruetako 51 nekazari, abeltzain eta artisauz gain, ikastetxeetako ikasleak ere izango dira azokan

MAIALEN TORRES | ARETXABALETA

Artisautza eta nekazaritza azoka ekologikoaren feriak 21. aldia du aurtengoa, eta, ohiturari jarraituz, inguruetako artisau, abeltzain eta nekazariak izango dira bertan, euren produktuak saltzen. Durana kalean 21 postu izango dira aurten, 10:00etatik 14:00etara.

Azokaren hastapenetatik gaur arte antolaketa lanetan ibili den Martin Garaik azaldu duenez, hasiera batean, nekazariena baino ez zen izaten, baina Biolur Gipuzkoako nekazaritza ekolo-

Kontsumo ohiturak

Aretxabaletarren kontsumo ohiturez galdetuta, Garaik argi dauka: "Batziek urte osoan zehar mantentzen dute elikagai ekologikoak erosteko ohitura, baina beste batzuentzat urtean behingo kontua da, eta azokan soilik erosten dituzte era horretako produktuak", azaldu du.

Hori dela eta, Aretxabaletako kontsumo taldeak ere jarriko du postua azokan, taldeari buruzko informazioa eta izena emateko aukera eskaintzeko. Dena den,



Mobiliario
ARENAZA altzariak

Bizkaia kalea 1 **ARETXABALETA**
Tel.:/Faxa: 943 79 08 07
mobiliarioarenaza@hotmail.com

- Altzariak
- Diseinua
- Apainketa

*ondo ibili
jaixetan!*

bertara hurbildu ezin dutenak atxabalakontsumotaldea@yahoo.es helbidera idatzita jar daitezke eurekin harremanetan.

Eskuz egindako produktuak

Azken urteetan, azokan egon nahi duten artisauen kopuruak gora egin du, eta aurten 30 postu jarriko dituzte, iaz baino hiru gehiago, baina gehiagorentzako lekurik ez dagoelako. Izan ere, 80 artisau inguruk eman dute izena.

Eskaera horren aurrean, Udalak aukeratu egin behar izaten ditu etorriko diren postuak. "Ingurukoak izan daitezten saiatzen gara; hori bai, aniztasuna bermatuz, apur bat denetarik egon dadin", dio Inma Miguelek, Kultura teknikariak. Dena den, ingurukoak gain, Iparraldetik eta Bizkaitik ere etorriko dira batzuk.

Ohiko bitxigintzaz, argizari lanketaz eta egur tailaz gain, aurten, lehenengoz, almendrazko xaboiak egiten dituen artisau bat izango da azokan.

Normalean, artisauen produktuak erosteko aukera horrelako azoketan bakarrik izaten dela dio Miguelek. "Ez da erraza izaten azoketatik kanpo produktu horiek aurkitzea", azaldu du.

Abereak, bertatik bertara

Ohiko postuekin batera, bertako arrazetako abereak ere izango dira ikusgai azokan. Gainera, horietako batzuk -pottokak eta txahalak, hain zuzen- haurrekin egon daitezten ekarriko dituzte, gazteenei abereak ezagutzeko aukera emateko.

Bertako arrazak sustatu beharra

Luis Mari Alberdi aretxabaletarrak, beste lau esplotaziotako jabeekin batera, ardi latxak, ahuntz azpigorriak, pirenaika eta terreña arrazako behiak eta pottokak jarriko ditu ikusgai azokan.

Horiek guztiak bertako arrazak dira, eta, Alberdiren esanetan, azken biak "galzoriar" daude. Izan ere, esaterako, Euskal Herrian ez dira terreña arrazako 200 behi baino geratzen.

Aretxabaletarraren ustez, azoka aukera aparta izango da herritarrentzat, bertako arrazak ezagutzeko, "Terreña arrazako behi bati begiratzean, jendeak behi bat besterik ez du ikusten, baina arrazak ere badu garrantzia", dio. Bertako arrazetako animaliek, txikiagoak direnez, errendimendu txikiagoa ematen dute, eta, Alberdiren esanetan, abeltzain askok horregatik jotzen dute kanpoko arrazetara. Berak, ordea, bertakoa bultzatzen eta jendeari gerturatzeko jarraitzeko asmoa du datozen urteetan ere.



JOSE LONBIDE
NEKAZARI EKOLOGIKOA

"Supermerkatuetako barazkiek plastikoz eginak dirudite"

"Amarengandik jasotakoari esker eta etxean ikusi nuelako jarraitu dut baratzean lanean, baina egungo gazte gehienek ez dute horretarako aukerarik. Dena den, bada-kite nekazaritza ekologikoaren zaporea bereizten, supermerkatuetako barazkiek plastikoz eginak dirudite eta!

Bertakoari eta garaikoari balioa ematen irakatsi ezean, ordea, supermerkatuetan erosten bukatuko dute eurek ere. Zentzu horretan, azoka lagungarria da guretzat, herritarrek baratzean egiten dugun lanaren emaitza ikusten dutelako. Azken urteetan, behintzat, erantzun ona izan dugu, eta badirudi egoera aldatzen ari dela".



GORKA LETE
ABELTZAIN EKOLOGIKOA

"Gure produktuak herrian ezagutarazteko aukera da azoka"

"Egia da gero eta gehiago begiratzen zaiola elikagaien kalitateari, baina, oraindik, jende gehienak supermerkatuetara jotzen du erosotasunagatik eta prezioagatik. Batzuei bost axola zaie zer jaten duten. Ez dute ezer ere jakin nahi izaten elikagaien jatorriaz, eta, diruaren aitzakian, kalitatea alde batera uzten dute.

Azoka egunean, erostera datozenak goizean gerturatu ohi dira, eta, hortik aurrera, azoka erakusleho bihurtzen da. Dena den, horrek aukera ematen digu gure produktuak herrian ezagutarazteko, bai produktu ekologikoak erosteko ohitura dutenen artean, baita ohi-turarik ez dutenen artean ere".

Gazteenak ere, azokaren parte

Duela hogeit bat urte ekin zioten Kurtzebarrikoek eskola ortuko proiektuari, eta, geroztik, "ilusioz" aritu dira lanean. "Ortuan ikusi eta ikasten dugu gozatzen den bitartean lurra bere sekretuak erakusten dizkigula", diote.

Aurten ere, euren lanaren fruituak bildu, eta sasoiko produktuak eta Ojala Zelaiko irteeran jasotako masustekin egindako marmelada salduko dituzte. Gainera, eragiketa matematikoak eta marketin gaitasunak landuko dituzte.

Arizmendiko ikasleek, Herriko Plazan jarriko dute postua; krispetak, etxean egindako pastelak eta tortilla-pintxoak salduko dituzte, besteak beste.

Horrez gain, DBHko lehen eta bigarren mailako ikasleek eskulanak, jolas tailerrak eta aurpegi margotzea egingo dituzte plazan batzen diren txikienekin batera.

Salmentatik lortutako dirua DBHko eta Batxilergoko ikasleen ikas bidaietarako erabiliko dute.

zenbaki

aholkulariak-abokatuak

Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera

LAN ZERBITZUAK
ZERBITZU FISKALAK
KONTABILITATE ZERBITZUAK
ABOKATUAK

Ondo
pasa
jaixak!

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

MAITE TXINTXURRETA | ARETXABALETA
Beste urte batez, Sei Pistols (Eta Trabuko Bat) taldea arduratuko da San Migel jaietako kantu afaria girotzeaz. Aurtengoa ekimena ospatuko den laugarren urtea izango da, eta urtero-urtero jende asko batzen du hitzorduak Durana kalean.

Aretxabaletako, Arrasateko eta Aramaioko musikariz osatuta dago talde hori. Tartean, Oier Sarasua aretxabaletarra dago; gitarra jotzen du hark.

Iaz 600 pertsonarentzako aulkiak jarri zituen Udalak, eta aurtenera ere hala egingo dute. "Daukagun material guztia ateratzen dugu", azaldu du Inma Miguelek, Udaleko Kultura teknikariak. Afaria, berriz, norberak eraman beharko du etxetik, orain arte egin izan den moduan.

Kantu liburua

Aurten ere kantu liburuak jarri dituzte eskuragarri afarira bertaraten diren herritar guztientzako. Astelehena ezkerro salgai daude, euro baten truke, Arkupe kultura etxean. Liburuak berriak dira; hau da, ez da iazko kantu erreperitorio bera errepikatuko.

Oier Sarasuak azaldu duenez, euskal kanta tradizionalaz gain, aurten kanta "berriagoak" ere sartzen saiatu dira. Esate baterako, Zea Mays talde bilbotarraren *Negua joan da ta ospetsua sartu dute*; baita, besteak beste, Kalakanen abestiak edota Mikel Markezek Hertzainaken *No time for love* kantuari egindako bertsio



Iazko kantu afaria hiru herritar kantuan. | IMANOL SORIANO

Udalak mahaiak eta aulkiak jarriko ditu eta afaria norberak eraman beharko du

berria. Taldekideek eurek aukeratzeko dituzte abestiak, eta "kriterio nagusia denetarik egotea da", Sarasuak dioenez: "Batzuk lasaia dira eta beste batzuk marxosoagoak".

Jendea gustora

Oier Sarasuak dioenez, musika egiten edonon gustura egiten den arren, norberaren herria beti izaten da berezia. "Oso giro polita sortzen da", dio gitarristak: "Jendea kantuan eta gustura ikustea beti da pozgarria.

Badira lau urte San Migel jaietan kantu-afaria egiten dela, eta hasieratik izan da Sei Pistols (Eta Trabuko Bat) taldea musika jartzearen arduraduna.

Sarasuak aipatu du taldekideek eurek aukeratu ohi dutela zein lekutara joan eta zeinetara ez. Esate baterako, azaldu du herri bazkari batean hondoko musika jartzen duen taldea izatea ez dela haien agertokirik egokiena. "Jendea kantuan egitera datorren lekuetan jotzea" gustatzen zaie haiei, eta sanmigeletako kantu-afaria eurentzat ezin hobea da. Horrelakoetan hiru orduz jotzen aritzea "normala" izaten dela dio.

Oier Sarasua: "Giro polita dago afarian"

Sei Pistols (Eta Trabuko Bat) taldeak jarriko dio musika aurten ere sanmigeletako kantu afariari

**SAN MIGELETAN
ATXABALTARREKIN
ESKUZ-ESKU**

**ALDERDI
EGUNA
2015**

**ZU ZARA
GURE INDARRA**

**IÑIGO
URKULLU
ANDONI
ORTUZAR**

**IRAILAK 27,
IGANDEA
12:00etan,
FORONDAN**

Dokea, lehen aldiz jaietako egitarauan

Txapelketan lau elkartek hartuko dute parte; domekan jokatuko dute (11:00), Basotxoren egoitza atarian

JOKIN BEREZIARTUA | ARETXABALETAN
Aurtengo San Migel jaietako nobedadeen artean dago doke txapelketa. Basotxo elkartearen ekimez, lehen aldiz sartu dute egitarauan; domekan jokatuko da, Basotxo elkartearen atariko zelaitxoetan (11:00). Lau elkartek hartuko dute parte: Aretxartek, Loramendik, UDAk eta Basotxok. Basotxokoek hainbat alditan antolatu izan dituzte txapelketak, baina euren kontura: "Beste elkarreetako ordezkariak proposatu ziguten doke txapelketa egitarauan sartzea, eta kasu egin diegu", adierazi du elkarteko presidente Jose Ignacio Isasmendik.

Dokea, "oso erraza"

Ekaineko Kirol Egunean lau elkar-te horiek dokean jokatu zuten, eta egun horretako arrakastatik dator, hein handi baten, sanmigeltako egitarauan sartu izana.

Hori bai, Isasmendik onartu du aretxabaletarren artean dokea ez dela oso ezaguna: "Gazte gehienek ez dute ezagutzen, dokeak ez ditu erakartzen. Adinekoon artean, aldiz, hedatuago dago. Arrasaten ezagunagoa da, urtero jokatzen dute Aste Santuan", uste du. Isasmendi bera arrasatearra izanik, txikitatik ezagutzen du joko berezia. Dokean jokatzeke, lurtean lerro bat marrazten da, eta lerro



Herritar batzuk dokean jokatzen Basotxo elkarteko egoitzaren atarian. | GOIENA

horren erdian lauki bat. Ondoren, laukiaren erdian labana bat kateatzen da, eta gertuenez zortzi metro-ra dauden jokalariek txanponak jaurtitzen dituzte lerro edo labana ingurura. Irabazlea da labanara edo lerroa gehien hurbiltzen

Bolo txapelketa ere bueltan dator, bihar (10:30); lehen laurek saria jasoko dute

dena. Dokean jokatzea "oso erraza" dela dio Basotxoko presidentek, "edonork" probatzeko modukoa: "Adin guztiendako aproposa da; praktika apur batekin samur hartzen zaio neurria". Txapelketaren ostean luntxa egingo dute.

Bolo txapelketa berreskuratzen

Bestalde, bolo txapelketa bueltan dator aurten: "Duela urte batzuk Udalak bolo txapelketa antolatzeari utzi zion, ez dakit zergatik, eta ohitura ez galtzeko ni neu hasi nintzen antolatzaileran", adierazi du Aitor Arantzabalek.

Zapatuan izango da, hilak 26, Iturrigorriko bolatokian (10:30). Izena emateko nahikoa izango da bertaratzearekin; 10:00 aldera irekiko dute izen-ematea eta jokalaririk bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu. Aretxabaletan hiru txirlotara jokatzeke ohitura dago, hiru jaurtiketarekin; beraz, puntuaziorik altuena bederatzitxirlokoko izango da. Arantzabalen arabera, boloa ahalik eta zuzenen jaurtitzean dago gakoa: "Norberengan konfiantza izatea garrantzitsua da, eta hori praktikak ematen du. Hala ere, garrantzitsuena da zuzen botatzea, ezinbestekoa den indar puntuarekin. Sekula bolotan jokatu ez duenak ere irabaz dezake".

Lehen laurak izango dira sariatuak; lehenak bildutakoaren %40 jasoko du, bigarrenak %30, hirugarrenak %20 eta laugarrenak %10. Lehen bi sailkatuendako urdaiazpikoa egongo dela ziurtatu du Aretxabaletako Udalak.

Ondo pasa sanmigelak!



**Mitarte kalea 1
Aretxabaleta
943 53 39 05**



Jose Martin 'Tubi' | Kirolaria

"Arratia aldean, egun badabil jendea"

Hilaren 27ko herri kirol erakustaldian, Iparraldeko jokoetan jardungo du norgehiagoka betean

JON BEREZIAR | ARETXABALETAN

Jose Martin *Tubi* dimoztarrak 15 bat urte daramatza herri kirolan. Zornotzako taldearekin hasi zen, lagun harri-jasotzaile bati laguntzen, eta txapelketak irabaztera iritsi da. Aretxabaletako saioan, Iparraldeko jokoan norgehiagokan ibiliko da, lasto altxatzean, ingude jasotzean eta orga jokoan. Bere lansaio gogokenak dira horiek, gainera.

Bat-batean hasi zinen herri kirolan. Nolatan?

Lagun batek erakustaldi baten laguntzeko eskatu zidan, harria nork ipini ez zuela eta. Ahalegintzeko esan zidan, eta proba egin nuen. 100 kiloko harria zen, Dimako jaietan, puztu egin nintzen, eta lau altxaldi egin nituen. Asko sufritu nuen, egur galanta. Hala ere, jendea animatzen hasi zitzaidan eta berehala sartu nin-



Tubi, iaizko lasto jaurtiketa txapelketan Elizondon. | T.B.

tzen saltsan. Arratian, Diman eta Zeanurin, badabil jendea herri kirolen bueltan.

Harriarekin baino, zeuk gurago dituzu bestelako lanak, ezta?

Lasto jaurtitze eta altxaketarekin hasi nintzen. Badira 10 urte federatu nintzela, eta Iparraldeko jokoek garapen handia izan dute. Lasto, ingude eta orga probetan ibiltzen naiz.

Eta txapelak irabazi dituzu.

Lasto jaurtiketan egin diren Euskal Herriko txapelketa guztiak irabazi ditut, eta altxaketan lau. Abuztuan, hain zuen, Aian neurere errekorra gainditu nuen: 25 jasoaldi egin nituen.

Marka atzera hausteko asmoarekin zatotz Aretxabaletara?

Ez, Aretxabaletakoan erakustaldia egingo dugu, proba ezberdinetan, bik norgehiagokan. Bi minutuan nork jasoaldi gehien.

Iparraldeko deritzen joko horiek ez dira ohikoenak. Entrenatzeko nola egiten duzue?

Lau-bost laguneko taldea badaukagu orain, eta Dimako frontoian egitura finkoa daukagu jarrita entrenatu ahal izateko. Eibarren bizi naiz eta astean hiru bider edo joaten naiz Dimara. Hori izaten da zailena, fardoak altxatzeko zazpi metroko egitura jaso behar da eta. Aurrerantzean, neguan zailagoa izaten da entrenatzea, eta baita bakartiagoa ere. Negu partean, beraz, behar baino gutxiago. Pisua hartu egiten dugu, hori baita ere. Taldean entrenatzea oso polita da, horrek asko animatzen du.

Denetariko lan-saioak erakustaldietan

Herri kirolan, primerako erakustaldia egongo da Herriko Plazan domekan, irailaren 27an, denetariko lan-saioekin. Aizkolariak, harri-jasotzaileak egongo dira, batetik, eta, bestetik, Iparraldeko jokoan atalean hiru izango dira probak: fardo altxaketa, ingude jasotzea eta orga jokoak, hain zuzen ere, Jose Martin *Tubi*-rekin.

Aizkolarietan sei aldiz Euskadiko txapeldun izandako Arrospeidek eta Muxikak jardungo dute nor baino nor gehiago. Lan-saioak hiru izango dira: bi ebaketa bertikal, sei horizontal eta ebaketa kolpeka. Bigarren norgehiagoka Irati Astondoaren eta Alazne Etxabururen artekoa izango da, eta, trontzaz gain, txingetan, artaburuetan eta lasterketan jardungo dute. Azkenik, bikote mistoetan, sei ebaketa bertikal egin beharko dituzte. Harri-jasotzaileei dagokienez, berriz, Aimar Irigoienek hainbat harri mota altxatuko ditu.

Ondo pasa San Migelak!!

EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

zure zerbitzura



GUREA



Gora, sanmigelak!

TABERNA

Durana 32 ARETXABALETAN Tel.: 943 79 20 64

SANMIGELAK ARETXABALETAN 2015

GOIENA TELEBISTA | DEBAGOIENA ZUZENEAN
IRAILAK 28, 20:00, 21:00 ETA 22:30 |

GOIENA TELEBISTA | JAIK
URRIAK 1, 22:00



BABESLEA:

ARETXARGI
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



HERRITELEBISTAGINTZAN

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena



*San Migel
jaiak
2015*

*Aretxabaleta
Irailak 25 / 26 / 27*



Eguzki auzoan eguaztenez atari bakoitzeko ordezkariak Udalarekin egindako batzarra. | USOA AGIRRE

Kortabarria: "Auzoetan gutxirekin gauza asko egin daitezke, auzolanean"

Astelehenean, irailak 28, Zurrategi, San Joxepe eta Lizarragako auzotarrek batzartuko da Udala

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Urriari hasiko da lantzen 2016ko aurrekontua Udala. Baina lanketa horretarako baliagarriak izango diren lehen urratsak egin ditu. Hala, Beheko auzoko eta Eguzki auzoko herritarrek batzartu da Udal Gobernuaren asteon. "2016ko aurrekontuaren lanketa egiteko uste dugu auzoetako bilerak oso ondo etorriko zaizkigula. Nahiz eta aurrekontuaren oinarrian, lau urteko ibilbideari begira, hauteskundeetara aurkeztutako herri-programa daukagun, lan-tresna hori ez da ezer itxia eta uneoro osatuz eta eguneratuz joango gara", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak. "Erronda-

ren helburuak auzoetan egon daitezkeen arazoak zuzenean ezagutzea, ikustea eta entzutea dira; baina baita auzotarren iradokizunak, ekarpenak eta gogoak jasotzea ere". Horrez gain, Udalak bizikidetzarako ohitura onak gogora ekarri gura ditu, eta praktikan jarri, kasuak aztertuz eta hausnartuz.

Balorzio positiboa

Auzotarren parte-hartzearekin pozik dago Udala, batzarrak emankorrak izaten ari dira-eta. "Auzotarrek eskaerak egin dituzte, baina euren burua ere aztertu dute. Adibidez, zaborraren ontziak bueltan etxera jaso behar direla

eta norberaren esku dagoela auzo garbi egotea kontziente dira". Beheko auzoan jolas parkea berriro jartzearen nahia ere azaleratu zen. "Ekarpen ugari jaso ditugu bi auzoetan giro onean. Gutxi eginda asko egin daiteke; proposamen moduan, tarteka goiz bat hartuz auzolanean auzoko beharrak konpondu eta egin daitezkeela ere aipatu dugu".

Hurrengo batzarrak

Datorren astean beste bi batzar egingo dira: astelehenean Zurrategi, San Joxepe eta Lizarragako auzotarrek; eta eguaztenez, Kalebarren eta Aiherrakoekin; biak 19:00etan.

Gaur jarri dute indarrean oinezkoen plana

Irailaren 26tik 31ra bitartean herritarrek iradokizunak eta aldaketak proposa ditzakete

M.A. | ANTZUOLA

Oinezkoen planak dakarren aldaketa nagusia alde zaharrean oinezkoei asteburuetan lehen-tasuna ematean datza. Hala, Kalebarren zubitik Herriko Plazarako bidea itxita egongo da Buztinzuriraino. Hau da zirkulaziorik gabeko guneen ordu-egia: egueneko 19:00etatik egubakoitzeko 08:00etara; egubakoitzeko 19:00etatik zapatuko 08:00etara; zapatuko 14:00etatik asteleheneko 08:00etara. Pasaio mandoarekin izango dute gara-

jea dutenek eta elbarriek -ziurtagiria izan behar dute.

Pilotalekua

Pilotalekurako bidea oinezkoendako izango da aurrerantzean. Astelehenean domekara 16:00etatik 19:00etara, hain justu; baita zenbait asteburu berezitan ere: Aratusteak, San Isidro, herriko festak... Baina norbaitek premia izanez gero, sartzeko aukera izango luke, pibotea kenduta. Udaltzainak izango du piboteak jarri eta kentzeko ardura.

Landatxoperen eskutik ikastaroa eta hitzaldia

Ikusmen eta entzumen osasuntsuaz jardungo dute hilaren 28an Olan etxean, 17:30ean

M.A. | ANTZUOLA

Antzuolako erretiratuen elkar-tek informatika ikastaroa antolatuko du. Urriari eta azaroan izango da, KZgunean. "Kurtsoa aurrera ateratzeko sei edo zazpi laguneko taldea osatu behar da. Gehiagok izena ematen badute, bi talde osatuko dira", diote Landatxoeko kideek.

Ikastaroa bazkideendako da, eta doan. Interesa dutenek Landatxoeko arduradunekin

harremanetan jarri beharko dute hilaren 28a baino lehen.

Hitzaldia

Ikusmen eta entzumen osasuntsuaz jardungo dute astelehenean, irailak 28. Asmoa da Landatxoeko erretiratuek urtean behin ikusmena eta entzumenaz aztertzeak aukera izatea. Horretaz jardungo dute, besteak beste, astelehenean Olanen, 17:30ean hasita.

Antzuolako haur eskolan izena emateko epea zabalduko dute urriaren 1ean

Haur eskolan bertan eman dezakete izena, urriaren 1etik aurrera, interesa duten herritarrek. 13:00etatik 14:00etara eman behar da izena. Informazioa eta argibideak gura dituztenek 943 78 60 15 zenbakira dei egin dezakete. Urriaren 2an, gainera, atek zabalik izango dira, 17:00etatik aurrera, hamargarren urteurrena ospatzeko. Bertan ere eskuratu ahal izango da informazioa.

Sukaldaritza eta eskulan ikastaroak urriari eta azaroan Xinkonan, gaztetxoendako

Sukaldaritza eta eskulanak batuko dituen ikastaroa eskainiko du Xinkonak aurtengo ikasturtean. Astero txandakatuz joango dira ekintzak. Izena irailaren 28tik urriaren 2ra eman daiteke. "Janariarekin eta eskulanekin esploratzeko askatasun pixka bat eman nahi diet. Etxean, adibidez, ez diete janariaz jolasten uzten, eta ikastaroan janariaz disfrutatuko dute; baita jolastu eta zikin-du ere. Eskulanetan josi, margotu... denetarik egingo dute".

OHARRAK

ANTZERKIA DOMEKAN

Ana de Petre zuzendariaren gidaritzapean, *Los Intérpretes* antzezlan ikusteko aukera izango da domekan, hilaren 27an, 19:00etan, Torresoroa aretoan (informazio gehiago irakurtzeko, ikus 23. orria).

BEGIRALEENDAKO DEIALDIA

Gazte txokoan hiru begirale kontratatuko dituzte. Ezinbestekoa da euskaraz jakitea, 18 urtetik gora izatea eta antzuolarra izan edo bertan bizi izatea. Esperientzia baloratuko da. Informazioa: 943 76 60 65.



ARROLA MENDI TALDEA

Domekan Finalista Eguna ospatuko dugu

KOMUNITATEA GOIENA | ARROLA MENDI TALDEA | ANTZUOLA

Domekarako, irailak 27, Finalista Eguna antolatuko dugu. Herriko Plazatik goizeko bederatzietan abiatuko gara. Arrola igoko dugu lehenik, eta Arrandaitik gora, auzolanean zabalduko bidetik, Trekutera joango gara. Elkartean txorizoa eta salda izango da gerturatzeko direnendako. Herritarrek parte hartzea animatu gura ditugu.

Txirritolako lagunak omenduko dituzte Sagardo Egunean

Txotx irekiera egingo dute euskara elkartek: 12:00etan izango da hori

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Sagardo Eguna egingo dute etzi, domeka. Udalak antolatu du ekitaldia, Lagun Artean dantza taldearen, Triki-kalejira trikiti taldearen eta herriko sagardogileen laguntzarekin. Herriko sagardoa dastatu eta goiz atsegina pasatzea da asmoa.

Dantzariendako laguntza

11:30ean trikitilariak kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena.

Ondoren, txotx irekiera egingo dute -12:00-. Aurten, Txirritola elkartearen eskutik izango da irekiera. "Omenaldi xumea egin nahi diegu, orain arte eurak arduratu direlako ekitaldi hau antolatzeaz", azaldu du Lierni Altuna alkateak.

Hain zuzen, orain arte Txirritola Eguna bezala ezagutu izan da ospakizun hori. "Txirritolak barne hausnarketa egin zuen iaz antolatzen zituen ekitaldien gainean; ze zentzu izan dezakeen euskara elkarte batek gauza bat edo beste antolatzeak, adibidez", dio Altunak. Horren harira, Txirritolak erabaki zuen Sagardo Eguna antolatzeari uztea.

Egun berezia izaten da

Udalak, berriz, Sagardo Eguna herrian duen onarpena ikusita, bere gain hartu du antolaketa-aren ardura. Dantza taldearen eta sagardogileen laguntza izan-

go dute horretarako. "Dantza taldeak 60. urteurrena beteko du datorren urtean; hala, dirua ateratzeko, euren gain hartu dute taloak egiteko ardura", azaldu du Altunak. 13:00etan,

gainera, dantza erakustaldia egingo dute plazan; eta, bitartean, Aramaioko sagardoa dastatzeko eta taloak eta pintxoak jateko aukera egingo da plazan bertan.

Hamabost sagardogileren lana

Betiko moduan, sagardoa dastatzeko, edalontzia erosi behar da. Aramaioko hamabost bat sagardogileren sagardoa eramango dute domekan plazara. Horrez gain, han bertan zukua egingo dute, eta hori dastatzeko aukera ere egingo da.



Iazko Txirritola Egunean omendutakoak: Santi Elejalde, Gema Arriolabengoa eta Mikel Arantzabal. | JOSETXO ARANTZABAL

Mari Karmen Garrido | San Martin eskolako ikasketa-burua

"Ikasgaiak teknologia berrien bitartez eskainiko ditugu"

- ▶ Aramaioko eskolak 'Sare_hezkuntza gelan' proiektuan parte hartuko du
- ▶ LHko 5. mailako ikasleek hasiko dute proiektua; bi urterako konpromisoa da

A.E. | ARAMAIO

Hezkuntza Departamentuak bultzatutako *Sare_hezkuntza gelan* proiektuan parte hartuko du Aramaioko eskolak aurtengo ikasturtean. Helburua ikasleak teknologia berrietan trebatzea da.

Zer da Sare_hezkuntza gelan?

Ikasgaiak teknologia berrien bitartez eskaintzea da asmoa. *Eskola 2.0*-rekin hasi ginen, LHko 5. eta 6. mailako ikasleekin. Hezkuntza Departamentuan pauso berri bat eman nahi dute ikasgaiak *on line* edo Internet bitartez eskaintzeko. Aurten zabaldu da lehen aldiz aukera hori ikastetxeetara. Horretarako, Aramaioko eskolak irakasle bat lan-jardun erdian izango du, eta 6.300 euroko diru laguntza jasoko dugu material kurrikularra erosi eta irakasle eta gurasoen formaziorako. Eta konektibitatea hobetzeko aukera ere badago.

Ze irakasgai eskainiko dituzue *on line*?

Ikasleen ezagutza eta tutoreen ezagutzea baloratuta, pentsatu



Mari Karmen Garrido, eskolako bulegoan. | A.E.

"Teknologietan trebatu eta horiek zelan erabili erakutsi behar diegu"

dugu 5. mailan dagoen tutorea egokia izan daitekeela. Bi ikasturtetarako konpromisoa hartu dugu proiektuarekin aurrera egiteko. Gutxienez, hiru arlo eman behar dira *on line*. Guk lau aukeratu ditugu: ingelesa, euskara

eta gaztelania, eta ingurunearen ezagutza. Inplikaturik egingo dira bi irakasle eta ni neu koordinatzaile moduan.

Ikasgaiak *on line* egiteak zer esan nahi du?

Betiko moduan, ikasleak eta irakasleak eskolara etorriko dira. Oraingoan, eskaintza mistoa izango da: paperezko liburua eta liburu digitala izango ditugu. Horretarako, lizentzia guztiak erosi ditugu. Nolabait esatearren, ordenagailuan liburuak izango dituzte. Baina ez da hori bakarrik; gaur egun ere, liburuei baino gehiago, proiektuei ematen diegu garrantzia. Aurrerantzean oinarri bat izango dute liburu digitalean, baina proiektuak ere egingo dituzte. Proiektuak beti dauka zuzenduta doaz egiten diren ariketak. Jolasak, bilaketak, elkarrekin lanak egitea nork bere etxetik... *on line* izateak hori ahalbideratzen du.

Helburua teknologia berrietan trebatzea da?

Hemendik aurrera hori izango da euren tresna, papera eta boli-grafoa baino gehiago. Baina ez ditugu teknologietan bakarrik trebatu behar, horiek zelan erabili ere erakutsi behar diegu. Hemen ditugun ikasleek -12 urtera artekoak dira- arrisku handirik ez dute, oraindik ez daudelako sare sozialetan oso sartuta; baina gero eta azkarrago sartzen dira. Balio horietan trebatzea ere gure lana da.

Konpost-gunea egokituko du Udalak Osteta kalean

A.E. | ARAMAIO

Udalak konpost-gune bat egokituko du hondakin organikoak jaso eta modu jasangarrian kudeatzeko. Osteta kalean jarriko dute gunea. Ekimen horretan parte hartu gura duenak izena eman beharko du irailaren 25etik urriaren 9ra bitartean. Horretarako, mezu bat idatzi beharko dute al21zuia@gmail.com helbidera, edo udaletxera deitu, 945-44 50 16 zenbakira.

Prestakuntza saioak

Udalak prestakuntza saioak antolatuko ditu gunearen funtzionamendua eta dinamika azaltzeko, eta baita konposta ondo egiten ikasteko argibideak azaltzeko ere. Asmoa da urri bukaeran edo azaro hasieran martxan jartzea gunea.

Lehiaketa bidez aukeratuko dituzte egutegiko argazkiak

2016ko egutegia osatzeko argazkiak urriaren 30era arte aurkez daitezke udaletxean edo kultura etxean. CD batean edo USB batean, JPG formatu digitalean aurkeztu behar dira argazkiak. Gutunaren barruan, beste gutun batean egilearen izena jarri beharko da. Argazkiek Aramaiokoak izan beharko dute.

Esan Ohi Da gasteiztarrek itxiko dute Sastiñako zikloa

Kontzertuak Sastiñan musika zikloaren azkeneko emanaldia gaur izango da, 20:00etan. Gasteizko Esan Ohi Da boskoteak jazz musikarekin girotuko du iluntzea. Jazz gaztea, freskoa... eskainiko dute, belaunaldi berriek egindako jazz; baina,aldi berean, betiko jazz. Izen bereko jazz orkestraren bertsiio murriztua da.

Ibarran hasiko dute mendi martxa, bihar, 08:00etan

Bihar, zapatua, Orixol mendi elkarteak antolatutako mendi martxa egingo dute. 24 kilometroko ibilbidea izango da, eta izena bihar bertan eman beharko da, 07:30ean, kiroldegian, 10 euroren truke. 08:00etan emango diote hasiera ibilaldiari: Ibarran hasiko dute Aitor Aranaren omenezko martxa.

Lubakietara bisita gidatua, frontea ezarri zeneko urtemugan

Urriaren 4ko bisita doan izango da, eta ez da izena eman beharrik izango

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Francoren tropek 1936ko irail amaieran ekin zioten erasoari. Bergara operazio-base moduan erabilia erresistentzia apurto eta Bizkaian sartzea zuten helburu, baina fronte antolatu bat aurkitu zuten Intxortako magalean. Frontea apurtzeko lehen eraso urriaren 4an egin zuten, eta ez zuten helburua lortu. "Handik hiru egunera, urriaren 7an, sortu zen lehenengo Eusko Jaur-larritza. Jaieguna izango da hurrengo urtean, 80. urteurrenean", gogoratu du Elgetako alkate Iraitz Lazkanok.

Hilero antolatzen dira Intxortako frontea ezagutzeko bisita gidatuak Elgetan; lehenengo eta azken domeketan, hain zuzen ere. Domekarako, irailak 27, bisita gidatu bat dago antolatuta eta zabalik dago izen-ematea. Baina aurten, urriak 4, hileko lehen



Ikasle taldea ibilbide tematikoa egiten. | ELGETAKO UDALA

domeka da, eta bisita gidatu seinalatua izatea gura dute Elgetan. Ohikoa den moduan, 10:00etan abiatuko da, eta doan izango da alde aurretik izena eman beharrik izan gabe. Hiru bat ordu iraungo du.

Mila bisitari inguru

Apirila eta, batez ere, maiatza izan dira bisitari kopuru handien izan duten hilabeteak. Udalak jakinarazi du urte hasiera ezker mila lagun inguru izan direla Elgetako frontera bisita egiten.

Sormening tailerra egingo dute domekan Espaloia kafe antzokian

L.Z. | ELGETA

Bi ekintza zeuden iragarrita aste bukaerarako Elgetako kafe antzokian. Azkenean, baina, bakarria egingo dute; izan ere, produktoreak horrela erabakita, otsailaren 13ra atzeratu dute Rody Aragon pailazoak zapatuan egitekoa zuen *Los payasos de la tele* ikuskizuna. Antzokitik azpimarratu dute aretoarenak ez diren arazoak izan direla erabaki hori hartzeko orduan.

Sormena familian

Elorrioko Onditz Mendizabalek gidatuko du, domekan,

Sormening tailerra. Bigarren bisita izango du Espaloira, eta jakinarazi du, aurrekoan moduan, jolasa, gozamina eta sormena landuko dituela.

Familian hartu behar da parte Sormening tailerretan: helduek eta umeek batera egiteko ekintzak proposatuko ditu Mendizabalek. Ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Antzokian edo sormening@gmail.com helbidearen bitartez egin behar da izen-ematea.

Tailerra 10:30etik 13:00etara izango da, eta prezioa da bost euro parte-hartzaile bakoitzeko.

Ate irekiak kirol zerbitzuko jardueretan

L.Z. | ELGETA

Eguaztenean eta eguenean —irailak 30 eta urriak 1— kirol zerbitzuko jarduerak ezagutzeko aukera emango du Udalak. Eskola kirola, erretiratuendako gimnasia, mantentze gimnasia, tonifikazio gimnasia, spinning... Doan sartzeko aukera izango da.

Gaztelekua

Urriaren 3an zabalduko ditu ateak zerbitzuak, 16:00etatik 20:00etara. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena. Hileko kuota 25 euro da.

Aktak euskaraz bidaltzearen aldeko sententziarekin pozik

L.Z. | ELGETA

Elgetako Udalak aktak euskaraz bidaltzea legezkoa dela ebatzi du Donostia-ko Auzitegiak. Aurreko astean jakin zuten epaia Elgetako Udalean, eta albiste "pozik eta naturaltasunez" hartu dutela esan du Iraitz Lazkanok alkateak. "Uste dugu gauzak horrela izan behar direla", gaineratu du. "Elgetako Udalean euskaraz funtzionatzen dugu. Euskaraz hutsean funtzionatzen dugu batzordean,

udalbatzarraren bilkuretan... Orduan, logikoena da aktak hizkuntza horretan bidaltzea. Ez duena zentzurik da akta bat egin eta itzultzen ibiltzea bidaltzeko leku batera, non honezkero nahiko bitarteko izan duten euskaraz ulertzeko".

Hurrengo batzarra 29an

Martitzenean, hilak 29, egingo du udalbatzak iraileko osoko bilkura. 19:00etan izango da, eta herritarrei irekia.



NEREA VILLA

Bi landatze, emakumeak gogoan

Domekan Elgetako hamar bat emakume elkartu ziren Asentzioko La Belga gunean eta Salvador ermitaren aurrean landatze bana egiteko. Emakumeen Mundu Martxaren baitan antolatutako ekintza izan zen, eta 1936ko gerran tropa frankistei aurre egin zieten emakumeak izan zituzten bereziki gogoan. Urriaren 3an, zapatua, bandera morea zabalduko dute La Belga izeneko gunean.

OHARRAK

HAURRESKOLA ZERBITZUA

Zabalik dute matrikula epe Elgetako haurreskolan urriaren 1etik 9ra. Erabiltzaileek abenduaren 1ean hasteko aukera izango lukete. Gogoratu, bestalde, haurreskola %75ean beteta ez badago edozein unetan matrikula daitezkeela umeak.

MENDI IRTEERA DOMEKAN

Kantsatzekek Legazpi ingurura antolatu du irteera. Argibideak: kantsatzeke@gmail.com.

BATZARRA ORTUZAINEKIN

Baratze-parkeko kideendako deitu du Udalak astelehenerako, 20:00etan, udaletxean.

Gatz Museoko teilatua konpontzen hasi dira oraingo astean

Abendurako bukatu beharko dituzte obrak; edozein modutan, bien bitartean, zabalik dago

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Oraingo astean hasi ditu Eskoriatzako Ramel enpresak Gatz Museoko teilatua berritzeko obrak. Edo, zehatzago esanda, museoaren ondoko biltegiaren teilatuko obrak. Diru laguntza jaso du Udalak lanok egiteko, eta, bertan ezarritako baldintzen arabera, abendurako bukatuta izan beharko dute guztia. 43.000 euro pasako aurrekontua dute obrak.

Dena den, horrek ez dio eragingo museoaren funtzionamenduari, eta obrak irauten duten bitartean zabalik izango da.

Aizkorri-Aratz

Horixe izan zen atzoko (eguna) osoko bilkuran udalbatzak landutako puntuetako bat. Bestelako artean, eta obra kontuekin segituz, erdiguneko aparkalekuko hasierako faseko lanak buka-



Udal ordezkariak eta idazkaria atzoko (eguna) osoko bilkuran. | UBANE MADERA

tuta, aparkalekua bera gauzatzeko 2016ko diru laguntzen zain egon beharko dutela jakinarazi zion GOIENARI Eneka Zankada alkateak. Horrekin batera, Debagoieneko Mankomunitaterako ordezkariak izendatu zituen udalbatzak: Eneka Zankada, Roberto

Otazu eta Ixidor Salaberri. Eta, adibidez, hainbat lurjabe Aizkorri-Aratz parkea kontserbazio bereziko eremu izendatzeko kudeaketa plana atzera botatzea eskatzen duen mozioa onartu egin zuten udal ordezkariak, aho batez onartu ere.

Uso postuak eta oilagorra txartelak eskuratzeko aukera

Ehiza denboraldia zabalik da. Edozein modutan, Gatzagan urriaren 12aren bueltan hasten da uso-pasea. Hala, eta kontuan hartuta aurten ez dutela ehiza postuen enkanterik egingo, Udalak jakinarazi du iazko enkanterik hutsik geratu diren uso postuak erabiltzeko aukera emango duela. Hain zuzen ere, urriaren 2ra arteko epea zabaldu du interesa dutenen eskaerak jasotzeko. Errespetatu beharreko baldintzak bigarren enkanterako ezarritako berberak izango dira. Eta, horrekin batera, jakinarazi du oilagorrek ehizatzeke kartel eskaerak onartuko dituela.

ERRUGBIA

Igor Isasi | Arrasate Rugby Taldeko entrenatzailea

"Ez igotzea erabaki dugu, konturatu gara ez garela kapaz goian lehiatzeko"

- ▶ Apiril amaieran liga irabazi zuen ARTk, eta kategoriaz igotzea izan dute buruan
- ▶ Oporretatik bueltan, errealitatea bestelakoa da, jokalaria gehiago behar dituzte lehiakorak izateko

X. URZELAI / M. BIKUÑA | ARRASATE

Arrasate Rugby Taldeak atzera egin du opor aurretik hartutako erabakian. Berdegunean erakutsitako maila onari esker kategoriaz igotzea lortu zuten Igor Isasiren mutilek, eta, igoera txartela eskuan zutela, taldekideek baiezkota eman zuten, lehenengo mailan jokatu gura zutela. Opor ostean, baina, errealitatea bestelakoa izan da. Aste barruan Isasi berak Arrasate Irratian eman ditu azalpenak.

Gogoan dut ekainean, Garagardo Jaian, gora igotzeko asmoa zenukatela. Zer aldatu da hilabete hauetan?

Bai, oporretara ideia horrekin joan ginen, mailaz igotzeko asmoz. Baina denboraldi-aurrea hasi dugunean konturatu gara ez dela ideia ona, jende gutxiarekin gabiltzalako. Lan arrazoiak direla-eta jokalaria asko kanpora joaten dira, eta, guztira, 22 fitxa osatzea lortu dugu. Horrez gainera, lehenengo lerroan daukagun jendea esperientzia txikikoa da, eta gauzak diren moduan, ez gara kapaz lehenengo mailari aurre egiteko, ez dugu gure burua ikusten denboraldi osoa ondo betetzeko aukerekin.

Beste modu batean esanda, ez zinetela lehiakorak izango.



Igor Isasi, ARTko entrenatzailea. | MIREIA BIKUÑA

"Inork min hartu edo taldea desegin aurretik, hobe gure mailan jokatzeko"

Goiko kategorian horretan dauden zortzi taldeetatik, lauzpabost oso indartsuak dira, Ohorezko B Mailan jokatzeko maila daukaten taldeak dira horiek, eta liga hasi

"Kamioi gaineko esperientzia gustatu egin zitzaigun; ea aurten..."

bai, hasiko genuke, baina gaitza izango litzateke urte osoan eustea. Hor lehiatzeko 30 fitxa izan beharko genituzke, eta aurreko lerroan bospasei jokalaria espe-

rirentziadun. Alde horretatik oso mugatuta gaude, eta, inork min hartu aurretik, edo taldea desegin aurretik, hobe da guri dagokigun kategorian jokatzeko; orain arte egon garena, alegia.

Gogorra izan da erabakia hartzea?

Jendea goian jokatzeko gogoz zegoen. Udan etxerako lanak egiten ibili da jendea, gimnasia joaten, astean hirutan entrentzen... Bueno, egia da lan hori ondo etorriko zaigula. Baina gure errealitatea zein den ikusi dugu.

Arlo fisikoa da bi kategorian horien artean dagoen alde handiena?

Bai. Fisikoa, eta taldeek duten fitxa kopurua. Normalean, talde horiek goiko taldeen harrobiak dira: Ordizia, Universitario... Talde garrantzitsuak dira, baliabide eta jende kopuru handia daukatenak. Eta arlo fisikoa ere ondo landutako jendea da; hala, kontaktu handiko partiduetan, txikiek asko sufri dezakete.

Ze helburu duzue aurten?

Bigarren Mailan bi multzo izango ditugu, eta multzo bakoitzeko lehenengo bi taldeak *play-off* fasea sailkatuko dira. Bada, horra sailkatu behar dugu lehenengo, eta gero, posible bada, fasea irabazi. Kamioi gainean bizi izandako esperientzia gustatu egin zaigu, eta errepikatu egin gura dugu.

GOLFA

Gipuzkoako Golf Txapelketa jokatu dute domekan Oñatin

Irelore klubeko antolatzaileek 72 golf jokalaria batzea espero dute, "eta horietako asko debagoiendarrak izango dira", adierazi du aste barruan Jabi Baltzategik. 09:30ean hasiko dute Gipuzkoako Txapelketa lehenengo txanda, maila absolutukoa izango da, eta 11:30ean bigarrena. Luntxa eta sari banaketa eginda amaituko dute eguna.

TRIATLOIA

Antxintxika, Gipuzkoako txapeldun, Mutrikun egindako lanari esker

Antxintxikako atletak aurrealdeko postuetan jarraitzen dute, baita abuztuko oporraldiaren ostean ere. Hala, joan den asteburuan jokatu zuten Mutriku esprint distantziako triatloia -Gipuzkoako txapelketa-, eta Mikel Mugikak, Mikel Ugartek eta Beñat Arnai- zek egindako lanari esker Antxintxika izan zen talde nabarmenena.

ATLETISMOA

Urriaren 31n egingo dute Antxintxika krosa, Soraluzetik Bergarara

Aste barruan zabaldu dute urriaren 31n egingo duten Antxintxika kroserako izenematea (*Kirolprobak.com*). Iaz, domeka baten egin zuten -10. urteurrena-, baina osterara zapatuan antolatzea erabaki dute. Izen-emate bakoitzeko euro bat gaixotasun mitokondriakoak dituztenei laguntzeko izango da.

ATLETISMOA

Arrasate-Oñati lasterketak irekiko du ibarreko atletismo proben egutegia

Urriaren 10ean izango da lasterketa; zabalik dago izen-ematea, Interneten eta Intersport Loramendin

X. URZELAI / M. BIKUÑA | OÑATI

Antxintxiketan atletismo taldeko lagunak buru-belarri dabilta urriaren 10ean (17:00) egingo duten Arrasate-Oñati lasterketaren 32. aldia prestatzen, eta aurten ere Arrasate Atletiko Atletismo Taldekoen laguntza izango dute, eta baita Bergarako Hanka Labanka taldekoena ere.

Aste barruan egin dute lasterketaren aurkezpena, Oñatin, eta zabalik dago izen-ematea, www.herrikrosa.eus-en edo Arra-

sateko Intersport Loramendi kirol dendan: "Lasterketa hau antolatzeko ardura hartu genuenean, Behobiaren bolada aprobetxatzeko ekarri genuen lasterketa urrira, eta azken urteotan indar handia hartu du. 400 lagundik gora izan ditugu, eta ez dugu baztertzen zenbateko hau hazten joatea", azaldu zuen Asier Osinagak.

10 euro, eta txipa barne

Lasterketan parte hartzeko derri-gorrezkoa izango da izena aurrez ematea, egunean bertan ez da eta aukerarik egongo, eta 10 euro ordaindu beharko dira: "Gauzak errazte aldera, jakin dortsalak berak itsatsita izango duela txi-

pa, eta horrek antolatzaileoi ere asko errazten digu lana. Bestalde, proba aurretik Oñatitik Arrasatera etortzeko bi autobus jarriko ditugu, eta zerbitzu hori erabili gura dutenek bi euro gehiago ordaindu beharko dute; hama-bi euro, guztira".

Ekilore parean, bidegorrira

Ibilbideari dagokionez, iaz bezala, aurten ere bidegorria ahalik eta gehien erabiltzen ahaleginduko dira. Arrasateetik irten eta Elorregirako bideko zati handi bat errepedetik egingo dute, baina Ekilore parean bidegorrira sartuko dira -aurretik ez dago atletak eta patinatzaileak sartzeko bidegorri aproposik-, eta handik eta Zubillagako goiko biribilgune-raino -Fagor Industrial parean- bidegorria erabiliko dute; han, Urteazpirainoko zuzena errepedetik egingo dute, eta osterara ere bidegorrira sartuko dira: "Izan ere, segurtasun neurriak direla-eta, hobe da zati hori errepedetik egitea, bidegorria asko estutzen delako".



Oñatiko udal ordezkariak eta lasterketako antolatzaileak, eguaztenean. | M. BIKUÑA

ESANAK

"400 lagundik gora izan ditugu lasterketa honetan, eta ez dugu baztertzen zenbatekoa igotzea"

ASIER OSINAGA | ANTOLATZAILEA

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ESKUBALOIA



Izarraitz Aloña Mendiko eta Ford Mugarri Arrasateko jokalaria bana. | GOIENA

Izarraitz Aloña Mendik eta Ford Mugarri Arrasatek etxetik kanpo hasiko dute liga

Oñatiko taldeak Gasteizko Limpiesol Corazonistas izango du aurkari eta arrasatearrek Legazpiko Lau Bide Jatetxearen kontra jokatuko dute

JOSU BILBAO | ARRASATE

Bihar hasiko dute Ford Mugarri Arrasatek eta Izarraitz Aloña Mendik eskubaloiko Euskadiko Txapelketa. Arrasateko taldeak Lehen Mailari uko egin behar izan dio, eta maila bat beherago lehiatzearen erronka du. Oñatiarrek, aldiz, igotzea lortu ostean, maila berrira ahalik eta lasterren egokitu beharko dute.

Ford Mugarri Arrasatek Lau Bide Jatetxea Legazpiko taldearen kontra jokatuko du bihar, 18:00etan, Bikuña kiroldegian. Aloña Mendik, berriz, Gasteizen jokatuko du, Limpiesol Corazonistasen aurka, bihar, 20:00etan.

Izarraitz Aloña Mendiko entrenatzaile Aitor Aranburuk dio taldea erronka berrirako prest dagoela: "Denboraldi-aurrea gogorra izan da, baina ondo joan da. Hiru lagunarteko jokatu ditugu eta denak irabazi ditugu. Orain-

dik gauzak hobetzeko ditu, baina oso gustura gaude. Taldea sendo ikusten dut. Lehenengo partidua, beldurrarekin baino gehiago,

errespetuarekin hartuko dugu, maila berria delako. Jokalariak kristoren ilusioarekin daude".

Ford Mugarriko entrenatzaile Patxi Garcia hilabete bat soilik darama taldea zuzentzen, eta jokalariak "liga hasteko gogotsu" ikusten ditu: "Denboraldi-aurrean ondo egin dugu lan, intentsitatearekin. Agian, nahi baino lan gutxiago egin dugu, baina ez dut kezarik. Lesionaturen batzuk ditugu, baina lehenengo partidurako prest gaude.

Bergarak urriaren 4an

Lehenengo Lurralde Mailako txapelketa datorren aste bukarran jarriko da martxan, eta Bergarak Zarauzko Aritzbatalde Tabernaren aurka jokatuko du aurreneko jardunaldia. Denboraldiko lehenengo norgehiagoka urriaren 4an jokatuko du Bergarako taldeak.

ESANAK

"Jokalariak kristoren ilusioarekin daude"

AITOR ARANBURU | ALOÑA MENDI

"Lesionatuak ditugu, baina liga hasteko prest gaude"

PATXI GARCIA | FORD MUGARRI

SASKIBALOIA



IMANOL SORIANO

Ointxe!-ren saskibaloia taldeen aurkezpena

2015-2016 denboraldian lehiatuko diren hemeretzi taldeak –nesken zazpi talde eta mutilen hamabi– aurkeztu zituzten joan den igandean Iturripe kiroldegian. EBA mailako Mondragon Unibertsitate taldeak, gainera, EASOren aurka jokatu zuen Euskal Kopako azken jardunaldia, eta 56-75 galdu zuen. Partiduen gainera informazioa, 11. orrialdean.

FUTBOLA

Jaitsiera postuetatik irteteko aukera ona izango du UDAk, Bermeoren aurka

J.B. | ARETXABALETA

CD Vitoriaren aurka 2-1 galdu ostean, jaitsiera postuetan sartu da UDA. Aretxabaletako taldea 19. sailkatua da, lau punturekin, eta denboraldiko lehenengo garaipenaren bila zelairatuko da, Ibarren, bihar, 16:30ean, Bermeo futbol taldearen kontra. Bizkaiko taldea 10. sailkatua da zortzi punturekin, bi neurketa irabazi, bi berdindu eta bi galdu ondoren.

UDAK, aurrerapauso garrantzitsua emateko aukera paregabea izango du, beraz, baina, horretarako, defentsan sendo

arituko beharko du. Bermeoko taldeak 5-0 irabazi zion azkenengo jardunaldian Aurrera Ondarroa taldeari, sailkapeneko azkenari, eta bizkaitarrek ere taulan postu ugari aurreratzeko aukera izango dute Aretxabaletan.

Beraz, denboraldiko aurreneko garaipena zazpigarren jardunaldian lor dezake UDAk. Lau partidur berdindu eta bi galdu ondoren, hiru puntuak Aretxabaletan gelditzea albiste bikaina izango litzateke Gorka Valle zuzentzen duen taldearendako eta zaleendako.

FUTBOLA

Aloña Mendik denboraldiko bigarren garaipena lortzea du helburu, Zarautzen aurka, Azkoagainen

Oñatiko taldeak 2-1 galdu zuen Tolosaren aurka bigarren jardunaldian, eta garaipenaren bidera itzultzeko aukera ona izango du, Zarautzen aurka. Norghegiagoka domekan jokatuko da, Azkoagainen futbol zelaian, 16:30ean. Aloña Mendi hamargarren sailkatua da, Getariako Ketaren aurka lortutako hiru puntu garrantzitsuei esker, eta Zarautz KE zazpigarren sailkatua da, lau punturekin. Zarautzarrek ez dute partidurik galdu oraindik, bi jardunaldi hauetan, eta bolada onari eusteko asmoarekin etorriko dira Oñatira.

FUTBOLA

Mondrak eta Bergarak etxean jokatuko dute eta Antzuolak eta Aretxabaleta B-k, etxetik kanpo

Erregional Preferenteko 2. jardunaldia lider moduan hasiko du Mondrak, Antzuolari 0-5 irabazita. Arrasateko taldeak Lagun Onaken aurka jokatuko du bihar, etxean, 16:30ean. Antzuolak, berriz, hartutako jipoia ahazteko aukera ona izango du Ikasberriren kontra etxetik kanpo, igandean, 16:00etan; Aretxabaleta B-k ere ondo hasi du denboraldia, Usurbili 3-1 irabazita, eta bigarren da sailkapenean. Bihar, 11:30ean, Zestoan jokatuko du bigarren jardunaldiko neurketa. Bergarak Urkomendi 14 Alkidebaren kontra 1-1 berdindu zuen, eta bihar Tolosa hartuko du etxean, 16:30ean.

32.0
11,8 km.
arrasate oñati herri lasterketa
2015 / 10 / 10 - 17:00

Izen emateak: www.herririkorra.com eta Laromendi kirolak dezan

Urdaitz	ULMA	Natraonati	Urtaza	goiena
Urdaitz	Gizartea	Lurauto	INGI	Koiku
Urdaitz	Ziga-gym	IZARRAITZ	ASTORE	WATERGOLF
Urdaitz	Oñati Taberna	smk	OTZAMENDI TASCANI	LEZETTES TABERNA
Urdaitz	Urdaitz	Urdaitz	Urdaitz	Urdaitz

Antolatzaileak:

'Amama': publikoa poltsikoratuta, epaimahaikideen eskuetan orain

- ▶ Asier Altunaren film luzeak maila gorenean jarri du Euskal Herrian ekoiztutako zinema
- ▶ Debagoieneko hainbat sortzailereren lanak erakutsi dituzte 63. Zinemaldiaren mantapean

AITZIBER ARANBURUZABALA | BERGARA
Donostiako Zinemaldiaren alfombra gorria tolesteko bezperatan, Asier Altuna eta haren lantaldea gustura da *Amama* filmak izan duen harrerarekin. "Jendeak gogotik egin du txalo, eta asko hunkituta atera dira aretotik; zoragarria izan da!", diote, besteak beste, Telmo Esnalek eta Michel Gaztanbidek, Bergarakoaren filmeko gidoia orrazten lagundu dutenek. Iritzi berekoak dira Kurzaalen batutako zuzendariaren herrikideak, erakundeetako ordezkariak eta politikariak: "Oso ederra da ikuspegi estetikitik begirata, eta bikaina da arte garai-kidearekin duen konexioa. Arriskatua eta abangoardista iruditu zait", esan du Markel Olanok, Gipuzkoako ahaldu nagusiak. "Oso konpletua iruditu zait. Oso polita. Eta asko hunkitu naiz", esan dio Agurne Barrusok, Bergarako alkate ohiak, Imanol Gallegori, Goienako berriemaileari Zinemaldian. "Euskaldunak oso harro egoteko filma da *Amama*", erantzun du Mikel Irizarrek, Gipuzkoako Hizkuntza Berdintasuneko zuzendariak. "Hemen talentu handia dago", gaineratu du Maite Iturbek, EITBko zuzendari arrasatearrak.

Bada, estreinaldiko kritika bikainen ostean, euskal gidoigileen elkartearen eskutik jaso dute astean euskal gidoi onenaren saria Asier Altunak eta Telmo Esnalek. Eta, horrez gainera, sail ofizialeko sari nagusia eta Zinemira sariak eskuratzeko aukerak zabalik ditu oraindik ere Bergarakoak.



Asier Altuna, *Amama* filmeko taldearekin. | ARITZ DENDATEGI

Azkoitiaren laburrak, saria

Euskaraz bizi nahi dut sariketan, berriz, film labur onenaren saria jaso du Iker Azkoitiak, Aretxabaleako zinema zuzendari eta aktoreak, *Semeak* lanarekin. Eta Azkotia bera da film laburreko protagonista. Hain zuzen ere, istripu baten ondorioz hitz egiteko gaitasuna galdu duen mutilaren istorioa da. Euskara eta bikotekidea berreskuratzeko egiten dituen ahaleginak islatu ditu Azkoitiak, zortzi minutuan.

Loreak filmak, berriz, saria jaso du euskal zinema-industriari egindako ekarpenagatik.



Iker Azkoitia, saria jasotzen familiakoekin eta lagunekin. | IKER AZKOITIA

Arrasatearra, sagardotegiez

Asko dira Zinemaldiaren mantapean aurkeztu diren egitasmoak; horien artean da Bego Zubia arrasatearrak idatzi eta zuzendu duen *Sagardo bidegile* dokumentala. Ezustekoz betetako ibilbide geografiko, kultural, teknologiko eta gastronomikoaren kontakizuna da.

Informazio gehiago:
eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Iruña-Veleiara, Jardunen eskutik

KOMUNITATEA GOIENA | JUAN MARTIN
ELEXPURU | BISITAREN GIDARIA

"Existitzen da Iruña-Veleia?", galdetzen du zenbaitek. Zulo beltz batek irentsiko zuen, hedabideetan ez baita ia sekula aitatzen; ez berririk, ez erreportajerik, ez Eliseo Gil izeneko bati elkarrizketarik. Zutabegileei eta tertulianoei ere, denetik jakin arren, ez zaie honetaz berba bat buruzatzen azken hiru-lau urtean.

Eta, hala ere, existitzen da. Aurtengo udan "bisita gidatu alternatiboak" egiten hasi gara, eta lehengo tokian dago. Hiru antolatutako ditugu, eta hirurak jendez gainezka egon dira. Jendeak jakin nahi du zer gertatu den, zer jartzen duten grafitoek,

nola dagoen auzi juridikoa. Guk informazioa eta iritzia ematen dugu, geure ikuspegitik, jakina.

Baina polemika eta grafitoak baino gehiago da Iruña-Veleia. Lekua zoragarria da. Egun osoko plana antolatu du Bergarako Jardunek urriaren 3rako. 10:30ean elkartuko gara aparkalekuan. Harresien kanpoaldea eta Arki-zeko muturra ere bisitatuko ditugu. Oinetako egokiak ekarri. Eguerdian bazkaria Langraitzen. Izena ematerakoan esan bazkal-tzera geratuko zareten edo ez. Arratsaldeko lehen orduan, proiektzioa eta solasaldia jatetxean bertan. Jardunen eman behar da izena irailaren 29a baino lehen 943 76 08 19 telefonoan. Azkar ibili, ez da toki asko geratzen eta.

Faemino eta Cansadoren umore surrealista ibarrean




Faemino eta Cansado humorista bikotea. | FAEMINO Y CANSADO

A. A. | ARRASATE

Datorren asteburuan Elgetan (urriak 3, 22:30) eta Arrasaten (urriak 4, 19:30) izango dira, Bergarako Pikupe Produksioak-en eskutik. Orain dela bi urte estreinatuta zuten *¡Como en casa ni hablar!* ikuskizunarekin datoz. Publiko fidela dute, baita Debagoienean ere; horren erakusle da Elgetako sarrera guztiak agortuta daudela. Arrasateko saiorako sarrerak 25 eurotan eskura daitezke antzokiko leihatilan eta *Arrasate.eus* atarian.

Oinarrian, aurreko lanen bideetik doa: agertokian argi fokuak eta mikrofono pareak, besterik ez. Hitzak eta keinuak, asko eta azkar, bata bestearen segidan ederto lotuta; horiek dira Faemino eta Cansadoren ikuskizunetako osagai bakarrak. Ez dute gehiagorik behar aretoak lepo betetzeko.



Joxe Mari Anduaga abeslaria eta Iñazio Irizar, liburuaren autoreak. | 'KONTZEUJUPETIK' ALDIZKARIA

'Iparragirre Oñatin' antzerki liburua kalean da dagoeneko

Abenduaren 5ean berriro ere eramango dute antzezlanaren taula gainera Olaitturri elkarteak

MAITE TXINTXURRETA | OÑATI

Iaz sanmigeletan Santa Ana aretoan taularatu zuten *Iparragirre Oñatin* antzezlanaren, eta orain, horren liburua kaleratu du Iñazio Irizarrek, Olaitturri kultura elkartearen presidentek. Eguaztenean, irailak 23, egin zuten aurkezpena, kultura etxean, Joxe Mari Anduaga abeslari eta gitarrarekin.

Aurkezpenean, liburuaren eta antzezlanaren proiektuaren sorrera eta garapena azaldu zituen Irizarrek, eta, tarteka, Anduagak Iparragirreren lau kantu abestu zituen gitarraren laguntzarekin. Bitartean, emanaldiaren argazkiak proiektatu zituzten kultura etxeko aretoko pantailla handian.

Jose Maria Iparragirre bertsolari urretxuarraren bizitza kontatzen du istorioak, atzerrian izan zeneko garaian eta Oñati herriarekin izandako loturan sakonduta, bereziki.

Adibidez, Oñatiko San Migel jaietan izaten ziren pilota partiduak aipatzen dira lanean, urretxuarrak kirol horrekiko zuen zaletasuna erakutsiz.

Gainera, kontakizunean zehar Iparragirrek berak idatzitako hamalau kantu tartekatzen dira. Liburuak kanta horien guztien hitzak eta partiturak biltzen ditu.

Liburuaren atalak

Hiru zati nagusi ditu *Iparragirre Oñatin* liburuak. Lehendabizi,

obrari buruzko azalpenak batzen dira bertan, baita hura aurrera eramateko prozesu guztiari buruzkoak ere. Horren ostean, antzerkiaren testua dator, oso-osorik. Eta, bukatzeko, aurrez aipatutako partiturak.

Partitura horien artean, *Agur Euskal Herriari* eta *Gernikako Arbola* abesti ezagunak daude, baita bertsolari urretxuarrak Oñatiri idatzitako *Aloña-Mendi* kantua ere.

Bestalde, antzezlanaren argazkiak ere badakartza liburuak kontrazalean.

"Antzezlanarekin jendea pozik geratu zen, eta espero liburuak ere gustatzea", adierazi du idazle oñatiarrak.

Autorea

Iñazio Irizarren hemezortzigarren liburua da. Aurrez ere publikatu ditu herrigintzari lotutako beste hainbat, hala nola *Oñatiko historia eta arte bilduma* (1987), *Oñatiko Korpus eguna* (1987) eta *Anexiñua oñatiarrez* (2002). Azkenengoz *Olaitturriren herri antzerkia* publikatu zuen, Jerardo Elortzarekin batera, 2010ean, hain zuzen ere.

Enpresa Zientzietan doktorea da Irizar, eta, adibidez, Mondragon Unibertsitateko talde sustaileko partaide izan zen. Gaur egun, bertan dihardu lanean.

Talde lanean egina

Irizar autoreak nabarmendu du kaleratu berri duen liburu hori ez dela bakarkako lana izan, eta aurkezpenean eskerrak eman zizkien liburuan zein antzezlanean parte hartu duten guztiei: "Olaitturri beti kuadrilla handia ibiltzen gara", dio.

Gainera, elkartearen kide diren aktoreez gain, herriko hainbat abeslari ere parte hartu dute proiektuan. Besteak beste, Azpiazu Musika Eskolakoek, Oñati Abesbatzakoek, Parrokiako Korukoek, Ganbara Abesbatzakoek eta Bertso Eskolakoek lagundu diete Olaitturrikoiei.

Antzerkia abenduan

2014ko San Migel jaietan antzezlanaren lehen aldiz taularatu zuten, bi emanaldi egin zituzten, eta, guztira, 550 ikusle bildu ziren Santa Ana aretoan.

Estreinaldi hartan obrak harrera ona izan zuen herritarren aldetik, Iñazio Irizarrek azaldu duenez: "Sarrerak bi egunean agortu ziren, eta lekurik lortu ez zuen jende asko penaz geratu zen". Hori dela eta, abenduaren 5ean, zapatua, beste emanaldi bat egitea erabaki du Olaitturri elkarteak. "Aurten sanmigeletan jai hartu dugu, pixka bat deskantsatzeko", azaldu du Irizarrek.

Abenduaren 5eko antzerki horretarako sarrerak Txokolateixan daude salgai. Bost euroren truke, antzezlanerako sarrera eta liburuak eskuratzeko aukera egongo da.

Amaia antzokian, garai zaharrak eta berriak

KOMUNITATEA GOIENA | ARIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE

Irganari eutsiz ikuskizuna antolatu dugu aurten ere Arizmendi Ikastolako bigarren mailako batxilergoko ikasleok. Gaur, egubakoitza, bertan egingo dugu ikuskizun hori, 18:00etan, Arrasateko Amaia antzokian. Prestatu duguna ikusteko sarre-rra jarri dugu. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da eta diru hori ikas bidaiarako izango da. Ikas bidaiak egin ahal izateko ekintza asko ari gara egiten eta prestatzen, eta horietako bat da gaurko ikuskizuna.

Performancea

Maila horretan ikasten ari garen 100 lagun inguruk hartuko dugu parte. Abestiak, dantzak eta beste hainbat jardun prestatu ditugu. Baita performance bat eta desfile bat ere.

Aurkezleek iraganera eramango gaituzte ekitaldian zehar. Adibidez, genero indarkeriaren gaia azken urteetan nola aldatu den erakutsiko dugu performancean. Desfilean, berriz, ezkongaien arropak ikusiko ditugu, lehengoak eta gaur egungoak. Ezkontza izango da desfilearen gaia, eta, arropen aldaketaz gain, ohitura ere erakutsiko du desfile horrek: lehen eta gaur nola eta zenbat ezkontza egiten diren konparatuko dugu, adibidez. Lehengo garaia hartuko dugu erreferentzia moduan eta gaur egungoarekin konparatuko dugu, nolabait.

Ikuskizuna gaur izango da Amaia antzokia, eta irekia izango da. Dagoeneko saldu ditugu sarrera batzuk!

Norberaren hutsunearen bila ibiltzeko metodologia taula gainean

Bergaran eta Antzuolan antzeztuko dute Venezuelako Altosf taldearen lana

OIHANA ELORTZA | BERGARA

Los intérpretes. Movimiento allegro ma non tropa antzezlanaren egingo du Venezuelako Altosf antzerki taldeak gaur, egubakoitza, Bergaran eta domekan Antzuolan. "Antzezlan poetikoa da, berezia", azaldu du Iñaki Mata aktoreak.

Metodologia

Juan Carlos de Petrek eta bere alaba Luz de Petrek hartzen dute parte lanean, Ana de Petreren zuzendaritzapean. Antzerkia egiteko metodologia berri bat era-

biltzen dute. Baita antzezlan horretan ere. "Norbanakook badakigu zer garen, zer egin dezakegun, zer ikusten dugun... baina norberaren hutsunean zer dagoen ez dakigu. Hutsune hori biltzeko eta ikusteko metodologia lantzen dute aktore horiek, antzerki ezezaguna deritzona. Zinemarako, dantzarako zein antzerkirako balio du metodologia horrek. Berezia da, eta oso interesgarria", azaldu du euren laguna den Iñaki Mata antzuolarrak.

Metodologia hori azaltzeko eta horri buruz ikasteko tailer bat egin dute, hain zuzen ere, Antzuolan. Joan den asteburuan, berriz, nazioarteko mintegi bat egin zuten Arantzazun gai horretan gehiago sakontzeko.

Bi saio

Venezuelako Petre aita-alabek gaur, egubakoitza, antzeztuko dute Bergarako Zabalotegi aretoan, 22:00etan. Eta domekan, 19:00etan, Antzuolako Torresorran.



Petre aita-alabak antzeztzen. | CELOIT.ORG. ARG



BADATOR MARITXU KAJOI! ATERA ZURE ARGAZKIA

MARITXU KAJOI 2015 | HERRIKO PLAZA | PHOTOCALL

URRIAK 2, 13:00ETATIK 15:00ETARA ETA 17:00ETATIK 19:00ETARA

Argazkiak Goiena.eus atarian egongo dira ikusgai, eta Whatsapp bidez jasotakoak ere bai.

PARTE HARTU ETA BIDALI ZURE ARGAZKIAK

WHATSAPP: 688 69 00 17

ANTOLATZAILEA: BABESLEAK:

goiena



Sikol



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena

Martin Larrañaga | Dantzaria

"Agertokiak ez dit beldurrik ematen, oso gustura egiten dut dantza"

Etorkizunean dantzari profesionala izatea da Larrañagaren ametsa.

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Dantza da Martin Larrañagaren zaletasunik handiena (Bergara, 1999). Orain dela hiru urtetik Eibarko Biraka taldean dabil. Dantza garaikidea egiten du bertan, Josu Muxika irakaslearen gidaritzapean. Horretaz gain, Bergarako Orfeoi Gaztean ere badabil Larrañaga, eta klarinetea eta pianoa ere jotzen ditu. Batxilergoa hasi berri du aurten Bergarako Ipintza institutuan.

Noiz hasi zinen dantzan?

Ume-umetatik gustatu izan zait dantza egitea, eta duela hiru urte, lagun bat eta biok Eibarko Biraka taldean izena emateaz erdi-txantxetan berbetan hasi ginen, eta, azkenean, biok animatu ginen. Oso gustura nago bertan.

Adibidez, *Peter Pan* musika-lean parte hartu dut, eta orain, adibidez, Aratusteetan Bergaran egin genuen kabareta egingo dugu Deban, urriaren 3an.

Nondik datorkizu zaletasun hori?

Lagunengandik, batez ere. Kua-drillako askori gustatzen zaigu dantza egitea, eta sarritan egiten dugu elkarrekin. Lagun taldeko hiru pertsona gabilta Eibarren eta beste lau Bergarako Camden Town eskolan.

San Martin jaietako danborradaren osteko errepresentazioan ere dantza egin zenuen plazan.

Bai; aurtengoa hori egin dudana bigarren aldia izan da.

Ez dizu beldurrik ematen horrenbeste jenderen aurrean aritzeak?

Ez; alderantziz, oso gustura egoten naiz.

Nolakoak izaten dira zure dantza-eskolak?

Astean bitan izaten ditut entseguak. Lehenengo, beroketak egiten ditugu, eta ondoren, ballet ariketak, lehenengo barran eta gero barra barik. Hamabost pertsona inguru gaude klasean.

Hala ere, balleta entseguetan egiten dugu, entrenamendutarako eraginkorrena delako, baina gero, taula gainean lantzen ditugun koreografiatan, dantza garaikidea egiten dugu. Bertan, gaur egungo abestiek egiten dugu dantza, batez ere, eta, gainera, dantzariok kantuen aukeraketan parte hartzen dugu.

Eskolaz kanpo lanketa berezirik egin behar duzu?

Ez bereziki. Hori bai, irakasleak *gogor* samar ikusten bagaitu, malgutasuna lantzeko luzaketak egiteko eskatzen digu.

Gazte Orfeoi entseguak ere izaten dituzu.

Bai; martitzenetan biltzen gara eta ordu eta erdiko entseguak egiten ditugu. Aste honetan izan dugu ikasturteko lehena. Aurten jende gehiago hasi da bertan, eta talde handia sortu dugu, azkenean. Ni duela lau urte hasi nintzen, eta hamar bat pertsona genbiltzan orduan; orain, berriz, hogeitaz inguru izango gara.

Orfeoian, eskolaz kanpo aho-tsa apur bat zaintzeko eta arnasa ondo hartzeko esaten digute.

Abesteko eta musikarako zaletasuna familiatik datorkizu?

Bai, hala da. Nire familian betidanik egon izan da musikarekiko zaletasuna. Esate baterako, amamak abestu egiten du, eta haren aitak klarinetea jotzen zuen, eta orain, nik ere bai.

Zaila izaten da Orfeoiaren eta Birakaren entseguak, emanaldiak eta ikasketak uztartzea?

Oraingoz, ondo daramat. Beti denboraz abisatzen digute noiz izango ditugun emanaldiak, eta horren arabera...

Hala ere, aurten Batxilergoan hasi naizenez, pentsatzen dut azterketa garaian estuago ibiliko naizela; izan ere, orain arte bi astean zehar egiten genituen azterketak, eta orain, berriz, guztiak aste bakar batean izango ditugu. Azterketa garaian, agian, entseguak alde batera laga beharko ditut.

Badirudi oraindik ere dantza ikuskizunetan neska gehiago izaten dela mutilak baino. Nola ikusten duzu egoera?

Bai, hori hala da. Oraindik ohitura zaharrak mantentzen direla ikusten da: neskak dantzan eta mutilak futbolean.

Batxilergoaren ostean zer egin nahi duzu?

Oraindik ez daukat argi, baina zientzia arloko zerbait ikasi nahi dut, hori bai. Agian, Medikuntza edo Biologia...

PERTSONALA

Dantzatzea ala abestea? Dantzatzea.

Film bat: Ez nuke jakingo bat aukeratzeko, baina akziozkoak gustatzen zaizkit.

Amets bat: Dantzari profesionala izatea eta Ameriketako Estatu Batuetan aritzea.


Janari bat: Txokolatea.

Bizi izateko leku bat: Los Angeles.

Bergarako txoko maitena: Usondo parkea.

Kolorerik gustukoena: Urdina.

Dantza egiteko toki bat: Edozein agertoki.



ZORION AGURRAK



BERGARA
Garazi Igarza de Lucas
Irailaren 30ean, 4 urte.
Zorionak urte askotan!
Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Beñat Hernandez
Irailaren 29an, 6 urte!
Zorionak, mutikote, eta urte askotarako. Belarritik tirakada bat eta muxu potolo handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Nahia Eskarza Vernaza
Irailaren 29an, 8 urte.
Zorionak, Nahia. Jada 8 urte. Gure txikia badoa handitzen. Muxu pila bat etxeko guztien partetik: mua, mua eta mua! Ondo pasatu eguna.



ARAMAIO
Nahia Reguero
Irailaren 29an, 5 urte.
Zorionak, printzesa, bost urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean, etxeko guztien eta, bereziki, Liberren partetik. Muxu handi bat eta asko maite zaitugu.



ANTZUOLA
Xuban Rodriguez
Irailaren 28an, 11 urte.
Zorionak, mutil handi!
Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, aitaxoren, Ainararen, Danelen, Aiurren eta Antzuolako eta Azpeltiko familiaren partetik.



ARETXABALETA
Izaro Hernandez Urzelai
Irailaren 28an, 9 urte.
Zorionak, Izaro! Irailaren 28an, bederatzirte beteko dituzu. Muxu potolo bat etxeko guztien partetik!



ARAMAIO
Eki Balantzategi
Irailaren 27an, 12 urte.
Zorionak, maittia!
Konturatu barik neskatu egin zara, baiña geure txikiña izengo zara beti! Belarri-tirakada gozo bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Joanes eta Maier Agirre Aldalur
Irailaren 27an, 7 urte. Zorionak, bikote, eta patxo handi bana familia danaren partetik. Bereziki Alaitzen, aitaxoren eta amaxoren partetik. Ondo-ondo pasatu zuen eguna!



BERGARA
Xiker eta Joritz Blazquez Alday
Irailaren 27an, urtebetetzea. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta muxu handi bat familiako guztien partetik!



ESKORIATZA
Maren Markaide
Irailaren 27an, 13 urte.
Zorionak, potxola!
Ondo-ondo pasatu zure egunien. Muxu potolo bat etxeko guztien partetik. Muak!



ARRASATE
Hodei Morales Murgia
Irailaren 27an, 6 urte.
Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat guztien partetik.



OÑATI
Oier Igartua
Irailaren 26an, 8 urte.
Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna eta indar guztiarekin jo tanborra. Muxu pila bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Luis Mari Murgia Ormaetxea
Irailaren 26an, 72 urte.
Zorionak, aitia! Muxu handi bat familia guztien eta, bereziki, Ibairen, Haizearen, Hodeiren eta Izaroren partetik.



ARETXABALETA
Hodei Caballero Rodriguez
Irailaren 26an, 5 urte.
Zorionak, etxeko gizontxo! Besarkada erraldoi bat eta mila patxo etxeko guztien partetik!



ARRASATE
Eider Dominguez Garai
Irailaren 25ean, urtebete. Zorionak, polit hori!
Jadanik urtetxo bat. Muxu handi bat Juneren, aitaxoren eta amaxoren partetik.



ARRASATE
Iargi Ortega Arrieta
Irailaren 25ean, 9 urte.
Zorionak, maitea!
Izugari maite zaitugu! Haitz, aitaxo eta amatxo.



ARETXABALETA
Naiara Ignacio Ortiz
Irailaren 25ean, urtebetetzea. Zorionak, koki. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Amets eta Ekhi Arregi
Irailaren 25ean, Amets 6 urte eta Ekhi 2. Trastuok! Bixok merzi dozuen bezala zelebratu zuen urtebetetze eguna! Zorionak, bikote! Belarri tirakada iraitzen eta Ainhizeren partetik! Baita etxeko danon partetik be!



BERGARA
Elene Diez Diaz
Irailaren 25ean, 7 urte.
Zorionak, sorgintxo!
Ondo pasatu zure egunean eta erregalu asko izan. Muxu handi bat Leireren, Inmaren eta Joseren partetik.



BERGARA
Aitana Mendaraz Paya
Irailaren 24an, 5 urte.
Zorionak, printzesa. Mila mosu familiaren partetik. Alex, aita, ama, aitaita, amama, osaba Jokin eta izeba Nerea.



ANTZUOLA
Enaitz Aranguren
Irailaren 24an, urtebete.
Zorionak, maitia. Ondo pasatu zure egunean, guraso, familia eta lagunez inguratutik. Asko maite zaituzten aitaxo Aitorren eta amatxo Alaitzen partetik.



BERGARA
Ibai Zaitegi Fernandez
Irailaren 24an, 2 urte.
Zorionak, Ibai! Patxo pila bat, maitxe zaitugun danon partetik!



OÑATI
Eider Arrizabalaga Madinagoitia
Irailaren 23an, 2 urte.
Zorionak, polit hori.
Ondo-ondo pasatu zure bigarren urtebetetzian familia danaren partetik. Mila muxu!



ARAMAIO
Deiane Zufiria Azkona
Irailaren 23an, 4 urte.
Zorionak, printzesa!
Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna!
Patxo potolo bat etxeko guztien eta bereziki, Oihanen eta Anjerren partetik.




ANTZUOLA
Garazi Aranburu
Irailaren 23an, 4 urte.
Azkanean 4 urte!
Zorionak etxeko guztien partetik.




ARRASATE
Ibai Ezkurra Iturbe
Irailaren 22an, urtebete. Ibaixto, pirata! Zorionak! Abenturaz betetako urtia pasatu dou zurekin. Segi zure irribar politx horrekin gu danok alaitzen. Muxu potolo pila!



OÑATI
Danel eta Unai Irizar Azkune
Irailaren 22an, Danelek 6 urte eta abuztuaren 25ean, Unai 4 urte. Zorionak etxeko danon partetik!



OÑATI
Uxue Osés Egaña
Irailaren 21ean, 10 urte.
Zorionak, polit hori!
Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi eta bero bat familiako guztien partetik. Eta belarritik 10 tirakada Joanesen, Keparen eta Iratiren partetik.



ARETXABALETA
Josu Barandiaran
Irailaren 21ean, 5 urte.
Zorionak, Josu! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Marrubi ospatuko dogu zure bost urtiak! Patxo potolo bat! Itsasne, aita, ama, aitaita, amama, tio eta tia.



OÑATI
Enara Garcia Calzada
Irailaren 21ean, 3 urte.
Zorionak, sorgintxo!
Ondo pasatu zure urtebetetzean. Marrubi eta txokolatzeko hiru muxu, aitaren, amaren, Aneren eta Hegoiren partetik.



OÑATI
Enaitz Igartua Arregi
Irailaren 19an, 3 urte.
Zorionak, Enaitz! Hiru urte jada! Ondo-ondo ibili zeure egunian eta ein putz fuerte kandelairi! Mila patxo etxeko guztien eta, batez be, Alixen partetik!



ARRASATE
Danel Castillo Romero
Irailaren 19an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun!
Ondo pasatu eguna eta indarrak hartu kandelai putz eitteko! Patxo handi bat Oihanen, aitaxoren, amaxoren eta etxeko guztien partetik.



OÑATI
Ainara Azkoitia
Irailaren 18an, 35 urte.
Zorionak, amatxo! Askotan gurekin sutan jarten zaren arren, asko maite zaitugu. Zorionak zaren bezalakoa izatiagatik, eta baita urte bat gehixau betetiagatik be! Ez aldatu inoiz!



ELORRIO
Malen Bergaretxe Garitaonandia
Irailaren 18an, 2 urte.
Zorionak etxeko printzesa, aitaxoren eta amaxoren partetik, eta muxu pila bat!



OÑATI
Xabat Samaniego Gonzalez
Irailaren 17an, urtebete. Zorionak, Xabat. Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetze eguna! Muxu handi bat etxeko danon partetik!




ESKORIATZA
June Aguirre Gandarias
Irailaren 17an, 3 urte.
Zorionak, gure printzesa!
Patxo asko, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Izaro Altube Uribe
Irailaren 17an, 3 urte.
Zorionak, polit hori! Oso ondo pasatu zure egunien. Hiru tirakadaxo belarritik eta muxu erraldoi bat familiaren eta laguntxoaren partetik.



ESKORIATZA
Irati Apraiz Garcia
Irailaren 17an, 6 urte.
Zorionak etxeko guztien partetik. Oso ondo pasatu eguna.



OÑATI
Oxel Arregi Camino
Irailaren 16an, urtebete. Zorionak, Oxeltxo!
Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo pila-pila bat, bereziki Anartzren, Maialenen eta Agerren partetik.



ARAMAIO
Amets Deltoso Astondoa
Irailaren 14an urtetxo bat bete zuen. Zorionak Otxandixoko piratar! Patxo handi bat amamaren, aitaitaren eta, bereziki, Xabiartxoaren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 25	ZAPATUA, 26	DOMEKA, 27	ASTELEHENA, 28	MARTITZENA, 29	EGUAZTENA, 30	EGUENA, 1
12:00 Debagoiena zuzenean	10:00 Amaia DJ	10:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Artxibotik tiraka: Maritxu Kajoi	10:30 Zaindu zaitetz	11:00 Astea iruditan	13:00 Lurrean bizi	12:30 Harmailatik	12:30 Osoko bilkura: Bergara	12:30 Erreportajea: Ibarako azoka
13:30 Harmailatik	11:00 Debagoiena zuzenean	11:05 Osoko bilkura: Oñati	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Onein	13:30 Hurbilean	13:05 Onein
14:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Astea iruditan	12:00 Zorion Agurrak	14:30 Berriak	13:30 Debagoiena zuzenean	13:30 Zorion Agurrak	13:30 Amaia DJ
14:30 Berriak	12:05 Aurresku txapelketa	12:05 Amaia DJ	15:00 Zaindu zaitetz	14:00 Harmailatik	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean
15:00 Amaia DJ	13:45 Onein	13:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Erreportajea: Ibarako azoka	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak
15:30 Ertzak: Okupazioa	14:15 Artekale	14:00 Astea iruditan	16:00 Onein	15:00 Amaia DJ	15:00 Harmailatik	15:00 Hurbilean
16:00 Debagoiena zuzenean	15:10 Zorion Agurrak	14:05 Aurresku txapelketa	16:30 Berriak	15:30 Onein	15:30 Onein	15:30 Harmailatik
16:30 Berriak	15:15 Amaia DJ	15:45 Osoko bilkura: Oñati	17:00 Hurbilean	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean
17:00 Erreportajea: Mendi duatloia	15:45 Ertzak	16:45 Debagoiena zuzenean	17:30 Osoko bilkura: Oñati	16:30 Berriak	16:30 Berriak	16:30 Berriak
17:30 Artxibotik tiraka: Maritxu Kajoi	16:30 Debagoiena zuzenean	17:45 Astea iruditan	18:30 Berriak	17:00 Hurbilean	17:00 Ertzak	17:00 Lurrean bizi
18:30 Berriak	17:30 Astea iruditan	17:50 Ertzak	19:00 Artekale	17:30 Erreportajea: Ibarako azoka	17:45 Zaindu zaitetz	18:05 Ur eta lur
19:00 Amaia DJ	17:40 Zorion Agurrak	18:30 Amaia DJ	20:00 Debagoiena zuzenean	18:00 Lurrean bizi	18:20 Zorion Agurrak	18:30 Berriak
19:30 Lurrean bizi	17:45 Osoko bilkura: Oñati	19:00 Hurbilean	20:30 Berriak	19:00 Erreportajea: Ibarako azoka	18:30 Berriak	19:00 Artxibotik tiraka
20:00 Debagoiena zuzenean	18:45 Aurresku txapelketa	19:30 Erreportajea: Ibarako azoka	21:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Harmailatik	19:00 Osoko bilkura: Bergara	20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	20:30 Jaiak	20:00 Lurrean bizi	21:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Astea iruditan	20:25 Zorion Agurrak	22:00 Harmailatik	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak	21:35 Osoko bilkura: Oñati	20:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:30 Berriak	22:00 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigjel jaiak
22:00 Osoko bilkura: Oñati	22:30 Amaia DJ	21:30 Astea iruditan	23:00 Berriak	22:00 Osoko bilkura: Bergara	22:00 Osoko bilkura: Bergara	23:00 Debagoiena zuzenean
23:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Debagoiena zuzenean	21:35 Amaia DJ	23:30 Harmailatik	23:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Berriak
23:30 Berriak	00:00 Astea iruditan	22:00 Zaindu zaitetz	00:00 Debagoiena zuzenean	23:30 Berriak	22:00 Artxibotik tiraka	23:30 Jaiak: Aretxabaletako Sanmigjel jaiak
00:00 Amaia DJ	00:05 Zaindu zaitetz	23:00 Debagoiena zuzenean	00:30 Berriak	00:00 Harmailatik	23:00 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Debagoiena zuzenean	00:30 Amaia DJ	00:00 Astea iruditan		00:30 Debagoiena zuzenean	23:30 Berriak	00:30 Berriak
01:00 Berriak	01:00 Astea iruditan	00:05 Aurresku txapelketa		01:00 Berriak		

ARRASATE IRRATIA

Kooltur Ekintzak-ekin elkarlanean jarraituko du 107.7ak

Ikasturte honetan ere egue-netako saioetan Kooltur Ekintzak elkarteko lagunek tokia izango dute irratan. Kontzertuetarako sarrerak zozkatu dituzte eta Arrasateko gaztetxeko agertokian izango diren artistak elkarriketatuko dituzte.

Faemino eta Cansado umoristen saiorako sarrerak zozketan

Arrasateko Amaia antzokian izango dira urriaren 4an, 19:30ean, Faemino eta Cansado umoristak, eta bertarako sarrerak zozketan parte har daiteke. Parte hartzeko: 943 25 05 05 edo irratia@goiena.eus

EZKONTZAK



Iker eta Azahara

Iker Dominguez eta Azahara Gonzalez zapatuan ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Bergaran ezkondu eta Elgoibarren bapo bazkalduko dugu. Eskerrik asko zaretzen modukoak izateagatik. Primeran pasatu eguna, familiaren, lagunaren eta Aiurren partetik. Muxuak!".



Jorge eta Alaitz

Alaitz Kortabarría eta Jorge Perez oñatiarrak irailaren 26an ezkonduko dira Arantzazuko Gandiaga Topagunean, eta Zeelanda Berrira joango dira eztei-bidaian. "Zorionak, bikote! Egun ederra pasatuko dugu. Izan zaitetzte oso zoriontsu! Zuen familiaren eta lagunaren partetik".



Aitor eta Alaitz

Aitor Ibarrondo eta Alaitz Belategi zapatuan, irailaren 26an, ezkonduko dira Arrasateko San Balerio ermitan. Ondoren, Gure Ametsa jate-txean ospatuko dute. "Zorionak, bikote! Etxeko partetik, muxu handi bana!".



Aretxabaletako San Migel jaiak ikusgai

Asteburuan Aretxabaletan ospatuko dituzten sanmigiletan jasotakoa ikusi ahal izango da asteleheneko *Debagoiena zuzenean* saioan. Jaiak eman dutenarekin osatuko den saio berezia, berriz, eguenean eskainiko dute, 22:00etan, Goiena telebistan. **'Debagoiena zuzenean'** Astelehena, 20:00



Osoko bilkurak osorik ikusteko aukera

Gaur, egubakoitza, Oñatiko osoko bilkura eskainiko dute oso-osorik. Martitzenean, berriz, Bergarako ikusi ahal izango da telebistan, 22:00etan. Modu horretara, Udalean hartutako erabakiak gertutik jarraitu ahal izango dituzte herritarrek. **'Osoko bilkura: Oñati'** Egubakoitza, 22:00

URTEURRENA

Lorentxo Olañeta Olañeta



Datorren igandean, irailaren 27an, urteurreneko meza egingo da Uberako Paulo Deunaren elizan, 10:30ean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Ubera), 2015eko irailaren 25ean.

URTEURRENA

Jose Luis Urcelay Ganboa



Oñatin hil zen 2014ko irailaren 26an, 69 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, irailaren 26an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko irailaren 25ean.

HILDAKOAK

- Valeriana Gartzia Martinez.** Arrasaten, irailaren 11n. 83 urte.
- Ines Arregi Albizua.** Arrasaten, irailaren 12an.
- Anton Losada Bilbao.** Arrasaten, irailaren 13an. 56 urte.
- Isabel Elortza Beitia.** Oñatin, irailaren 13an. 57 urte.
- Maria Clara Axpe Unanue.** Aretxabaletan, irailaren 13an.
- Antoni Arregi Egizazu.** Arrasaten, irailaren 15ean. 90 urte.
- Eugenia Heriz Untzueta.** Arrasaten, irailaren 16an. 95 urte.
- Juan Jose Gomez Cañizo.** Bergaran, irailaren 17an. 87 urte.
- Ruben Dario Guzman Huasebe.** Bergaran, irailaren 17an. 42 urte.
- Juan Cruz Aramendi Albisu.** Oñatin, irailaren 18an. 86 urte.
- Maria de las Nieves Iglesias Gartzia.** Arrasaten, irailaren 18an. 86 urte.
- Ramon Eraña Gallastegi.** Aretxabaletan, irailaren 18an. 65 urte.
- Maribel Iturbe Goikolea.** Aretxabaletan, irailaren 20an. 68 urte.
- Maria Angeles Lazkano Bilbao.** Arrasaten, irailaren 20an. 63 urte.
- Antonio Aretxaga Fernandez de Retana.** Bergaran, irailaren 21ean. 85 urte.
- Jose Gomez Gomez.** Arrasaten, irailaren 21ean. 84 urte.

URTEURRENA

Maritxu Alegria Uribe-Etxebarria



2014ko irailaren 25ean hil zen, 85 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 27an, 12:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan, 2015eko irailaren 25ean.

ESKER ONA



Victoriano Belinchon Moya




Arrasaten hil zen 2015eko irailaren 23an, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada bana, familiaren partetik.

Arrasaten, 2015eko irailaren 25ean.

ESKER ONA



M. Angeles Lazkano Bilbao



Gasteizen hil zen irailaren 20an, 63 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Beti egongo zara gure bihotzean.

Arrasaten, 2015eko irailaren 25ean.

ESKER ONA



Sabin Goiti Arozena



2015eko irailaren 10ean hil zen, 81 urte zituela.

Lerro hauen bidez Goiti-Bilbao sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2015eko irailaren 25ean.

ESKER ONA



Antonio Aretxaga Fernandez de Retana




Irailaren 21ean hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zireten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2015eko irailaren 25ean.

ESKER ONA



M. Clara Axpe Unanue



2015eko irailaren 13an hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi.

Zenbat botatzen zaitugun faltan: zure poztasuna, umiltasuna, umorea, eskuzabaltasuna... Eredua izan zara eta izango zara. Betirako gure bihotzean.

Zure familia.

Aretxabaletan, 2015eko irailaren 25ean.

ESKER ONA



Maribel Iturbe Goikolea



Irailaren 20an hil zen, 68 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Aitatzarekin zenuen hitzordura joan zara. Bidaia ona izan.

Aretxabaletan, 2015eko irailaren 25ean.

ESKER ONA

Benito Abarrategi Beitia



Aramaion hil zen irailaren 22an.

Familiak esker onez, une saminitan lagun izan dituen sendiko, lankide eta adiskideei.

Aramaion, 2015eko irailaren 25ean.

ESKER ONA

Ramon Eraña Gallastegi



2015eko irailaren 18an hil zen.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoiei eskerrik asko, sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2015eko irailaren 25ean.

OROIGARRIA

Maribel Iturbe Goikolea



Beti izango zaitugu gogoan.

Zure lankideak.
Aretxabaletan, 2015eko irailaren 25ean.

OROIGARRIA

Ramon Eraña Gallastegi



Txistularia

Loramendi Dantza Taldearen sortzailea

Zureganako maitasunak alaituko ditu gure txistu soinuak.



Aretxabaletan, 2015eko irailaren 25ean.

OROIGARRIA

Ramon Eraña Gallastegi



Loramendin alde eindako dana beti eukikau goguen. Eskerrik asko, Ramon.



Loramendi Elkarte.
Aretxabaletan, 2015eko irailaren 25ean.

OROIGARRIA



Maribel Iturbe Goikolea



Irailaren 20an hil zen, 68 urte zituela.

Udazkenekin batera joan zara gugandik baina gure bihotzetan bazaude oraindik.

Zure lobak: Iker, Kepa, Goiatz, Xabier, Amets, Ibon, Garazi, Uxue, Beñat, Izaro, Julen, Aner, Zigor, Nora, Naroa, Mikel, Cristina, Danel eta Laia.
Aretxabaletan, 2015eko irailaren 25ean.

OROIGARRIA

Ramon Eraña Gallastegi



Almen Kirol Elkartearen eragilea

Urtetan zure emari oparoa gogoan duen Arizmendi Ikastola



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2015eko irailaren 25ean.

OROIGARRIA



Ramon Eraña Gallastegi



Beti izango zaitugu gogoan gure bizitzako marathoian. Mila esker, Ramon.

Korrikalari lagunak.
Aretxabaletan, 2015eko irailaren 25ean.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

MUSIKA

ARETXABALETA Antihumano eta Bala taldeak

Bala galiziarrek *Human Flesh* diskoa aurkeztuko dute. Oñatiarrek, aldiz, punk-hardcore doinuak joko dituzte. Doan.

Gaur, egubakoitza, Haizea tabernan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Kantuz kalean' ekimena

Basotxoko kantu taldeak kantuan egingo du herriko kaleetan Eibar-ko, Arrasateko eta Elgetako taldeekin batera.

Bihar, zapatua, herriko kaleetan, 11:00etan.

OÑATI La Basu, Bala eta Afu taldeak eta Gure Besta DJa

Oñatiko Emakumeen Asanbladaren eskutik. Doan.

Bihar, zapatua, txosnagunean, 22:00etan.

OÑATI Santa Hussein, Aran, Esti eta Txomin, Papalagi eta Herstura

25 *Irunberri oroitz* diskoaren aurkezpen kontzertua, Andoain-go, Iruñeko eta Oñatiko taldeek grabatutakoa.

Bihar, zapatua, txosnagunean, 22:00etan.

ARRASATE Zuen Azkena, Lokuria eta Des-kontrolen bertsoiak

San Migel jaiak ospatuko dituzte gaztetxean.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

OÑATI Los Galerna

San Migel jaietan kontzertua egingo dute arrasatearrek.

Irailaren 29an, Atzeko kalen, 19:30ean.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

OÑATI Esne Beltza

San Migel jaietako kontzertua egingo du Xabi Solanoren taldeak. Irailaren 29an, Foru plazan, 23:00etan.

ARRASATE Priscilla Band

Funk-soul doinuak egiten dituen taldearekin hasiko da Kooltur Ostegunaren ikasturtea.

Urriaren 1ean, gaztetxean, 22:00etan.

ERAKUSKETAK

BERGARA Jose Ramon Andaren eskultura

Brontzezko eta egurrezko bost eskultura ipini ditu Andak ikusgai urriaren 11ra arte.

Urriaren 11ra arte, Aroztegin.

ARETXABALETA Marije Carrilloren ikasleen lanak

Marije Carrilloekin ikastaroan parte hartu duten emakumeek egindako pintura lanak ikusgai.

Irailaren 29ra arte, Arkupen.

ARRASATE 'Dinbi, danba, mailukaren hotsa'

Azken errementari Bixente Barandiaranen lanak eta burdinaren

kulturak herriaren bilakaeran izan duen eragina ikusgai. Harresi aretoan ikusgai.

OÑATI Arizmendiarrietari buruz

Arantzazuko basilikaren aurrean panela ipini dute, Arizmendiarrietaren ekintza nagusiak jasotzen dituen.

Irailaren 25era arte, Arantzazun.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE Maritxutako Nobenaixua

Komisiñuak Santa Ageda abesbatza omenduko du, urteetan herriko bazterrak alaitzen egindako lanagatik, eta abesbatzaren sortzaileei emango diete aurten inbutu preziatua. Maritxu azpi-

**ARAMAIO Esan Ohi Da, Sastiñan**

Jazz doinuak lantzen dituen talde gasteztarrak itxiko du Sastiñako zikloa. Zazpi lagunek osatzen dute taldea eta askotariko instrumentuak erabiltzen dituzte: bateria, gitarra, tronboia, kontrabaxua eta tronpeta, besteak beste.

Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 19:30ean.

IRAILA 25
URRIA 1

ra inguratzen diren herritar guztiendako ardoa eta gazta egongo da.

Bihar, zapatua, Maritxupear, 18:30ean.

ARAMAIO Sagardo Eguna

11:30ean trikitilarien kalejira; 12:00etan txotx irekiera Txirritola elkartearen eskutik; eta 13:00etan dantza erakustaldia.

Etzi, domeka, herriko kaleetan, 11:30ean.

JAIK

ARETXABALETA San Migel jaiak

Aste bukaeran ospatuko dituzte jaiak Aretxabaletan. Askotariko ekintzak egongo dira.

Aste bukaeran, Aretxabaletan.

OÑATI San Migel jaiak

Astelehenean hasiko dituzte jaiak Txantxikuaren jaitsierarekin, baina aste bukaeran badago zertaz gozatu Oñatin; besteak beste, haurren danborradaz eta Nazioarteko Artzain-txakurren Txapelketaz.

Irailaren 26tik 30era, Oñatin.

ARRASATE San Migel jaiak Garagartzan

Buzkantz usainaren bueltan ospatuko dituzte jaiak. Trikitilarien kalejira, umeendako jolasak, Gorritiren erakustaldia, futbol partiduak, euskal dantzen emanaldia eta auzo bazkaria egingo dituzte, besteak beste. Bestalde, Zarzamora, Agressive Combat eta Crap taldeek III. Buzkantz

UDAKO ARGAZKIEN XI. GOIENA LEHIAKETA

Aukeratu zure argazki gustukoena!

Irabazi otarre eder bat munduko hainbat kafe motarekin Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

Eman botoa: blogak.goiena.eus/argazkiak irailaren 26tik urriaren 1era

Jarraitu gaitzazu: udakoargazkiak udakoargazkiak



ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

Begira
argazkilaritza

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

EROSKI
ARRASATE

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Santa Ana
jateko
oreina saltsan



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2015-09-25

AZKEN BERBA

ANDER
ETXEBERRIA



Mehatxuak

Bat Volkswagen munduko automobil fabrikatzaile handienetakoa da, baina (baina?) egundoko iruzurra egin du mozkinak handitzeko. Halako multinazional bat hain onuragarri zaizkion merkatuaren arauak errespetatzen eredugarri izan beharko balitz ere, kodizia gailendu da (berriro).

Bi. Greziako gobernuak onartutako hirugarren erreskatean pribatizazioak aurreikusten dira nonahi. Nortzuek eros ditzakete portu, aireportu edo meatzeak, besteak beste? Kanpoko enpresa handiek bai, behintzat.

Hiru. Ameriketako Estatu Batua eta Europako Batasuna negoziatzen ari diren TTIP itunak arbitraje-epaimahai bat aurreikusten omen du; enpresek bertara joko lukete herrialde bakoitzeko sistema juridikoa saihestuz.

Eta lau. Aurreko elementuok kontuan hartuz -diru-gosea; pribatizazio handiek zabaltzen dituzten merkatu berriak; enpresak tokiko araudiaren gainetik jartzeko joera-, dimentsio berezia daukate uztaile amaierako Hillary Clinton-en hitzek. Kubara askatasuna ekarriko duelakoan, blokeo ekonomikoaren amaiera eskatu zuen hautagai demokratik honek: "Konpromiso hau ez da opari bat castrotarrentzat, mehatxu bat baizik".

BUKATZEKO

Bederatzi egun film eta izar artean

- ▶ Imanol Gallego kazetari arrasatearra Goienarako berriemaile dabil Donostiako 63. Zinemaldian
- ▶ Zaleen zoramena eragiten dute aktoreek, eta aurten izar distiratsuen hutsunea igarri dute askok

MIRARI ALTUBE | DONOSTIA

Tim Roth-ek txisteak kontatu ditu, txisteak eta istorioak; Alejandro Amenabar han eta hemen ibili da ezin gusturago; Mario Casasek eta Hugo Silvak zaleen zoramena ekarri dute, beste behin, eta Sienna Miller eta Luke Evans hotz agertu dira kameraren aurrean, baita Ellen Page kanadarra ere. Donostiako 63. Zinemaldiko kontuak dira.

Imanol Gallego kazetaria eta Mikel Zabaleta teknikaria, biak arrasatearrak, eta Aritz Dendategi argazkilaria dabilta han, Goienarako berriemaile: "Zinemaldia da zoramena, kaosa, lana eta festa. Zinemaldia dira izarrak, baina, batez ere, filmak", dio Gallegok; eta aurten izar gutxiaren distira iritsi dela hirira gaineratu du: "Zinemaldiaren irekiera beste urte batzuetan baino lasaia goa izan da. Amenabar zuzendariak girotu du, eta, askok uste bezain zozoa ez izan arren, zalaparta sortzen duten aktore horiek igarri ditugu faltan".

Sare sozialen bitartez

Film mordoa egin dituen Tim Roth britainiarra izan zen iristen lehenengoetakoa. Aktore eta zuzendari txikiak ondo baino hobeto



Tim Roth aktore eta zuzendaria, Imanol Gallego alboan duela. | ARITZ DENDATEGI

daki zelan saldu filmak: "Zaleei gura beste argazki ateratzen utzi die, hiriarekin gozatu du, hurbilekoa izan da kazetariok... txakur zaharra da eta badaki zelan jokatu", argitu du Gallegok.

Sienna Millerrek, ostera, hotz ospea dauka, eta halaxe agertu da: "Ekitaldietan egon da, baina handik kanpo segituan alde egin du. Eta harekin batera Luke Evans-ek. High Rise filmeko hirugarren

aktorea, Tom Hiddleston, ostera, gertukoago agertu da".

Etxeko izarrekin ere izan da Gallego, Amama filmeko zuzendari Asier Altunarekin eta aktoreekin, esaterako, estreinaldi osteko jaialdian. Bi filmekin etorri den Veronika Moral bergararrarekin ere bai.

Zaleek ordu asko pasatzen dituzte Maria Cristina hotelaren inguruan. Batzuk, gustuko duten



Veronika Moral eta Gallego. | A.D.

izar horren zain; beste batzuk ezagunen bat ikusteko esperoan. "Baina aldatzen dabil hori. Lehen, zale askok hotelean uzten zizkieten izarrei mezuak, opariak... Orain ere bai, baina sare sozialek indarra hartu dute, eta Twitter bidez geratzen saiatzen dira. Eta batzuek, jarraipen estua egin ostean, lortu egiten dute!".

Gaur, Emily Watson

Donostia saria jasoko du gaur, irailak 25, Emily Watson aktore britainiarra: "Saria gizonezko batendako zela zioten zurrumurruek, eta izena ere jende askoren ahotan ibili zen: Ethan Hawke. Diote lan kontuengatik eman zuela ezetza. Baina ezin jakin hala den, Zinemaldiko zuzendari Rebordinos mutu dago-eta...", dio Gallegok.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE
Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

2. betaurrekoak
DOAN

erreflexuen aurkako
GRADUATUTAKO
zure mó-ak erosita

77€

www.multioplicasgipuzkoa.com

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA • LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

2015eko bildumak
marka guztietan